

+



Erreferente positibo bihurtu diren erretiratuak

Elkarriketa Jon Umerez filosofia irakasle oñatiarrari



SAGARDO DENBORALDIA HASTEKO "GOGOTSU"

Aramaioko Iturrieta sagardotegian egingo dute Arabako txotx irekiera-ekitaldia, eguenean / 2

Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciña, gertuko lagun kuadrilla batendako eguaztenez egindako sagardo-dastaketan. XABIER URTZELAI ATXA



Maite Retolaza elgetarra da Euskal Sagardoa jatorri izeneko presidente berria / 2

Astelehen eguerdian itzuliko dira pentsiodunen elkarretaratzeak, zazpigarren urtez / 4

Herriko 2.855 toponimo batzen dituen mapa interaktiboa osatu dute Oñatin / 24

Debagoieneko zazpi herritatik irtengo dira autobusak bihar Bilbon egitekoa den manifestaziora / 4

SINADURAK

GARAZI BEDATSE BARBERAN GARAI / 9

AINHOA PARDINA / 19

LANDER BELOKI MENDIZABAL / 6

OIER ZUMARRAGA ARANBURU / 14

ANDER ETXEBERRIA / 40



VW ID7

Disfrutatu teknologiaz!

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz



Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciña, ezkerrean, eguaztanean sagardo berria dastatzen izan zen kuadrillarekin. XABIER URTZELAI

Txotx denboraldia zabalduko dute Iturrietan

Eguenean, Arabako txotx irekiera egingo dute Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Haziak elkarteko kideek izango dute horren ardura, eta Iturrietako Juanjo Peciña adierazi du aurtengo uzta handia izan ez den arren sagardo "ona" datorrela

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Arabako txotx irekiera ofiziala egingo dute eguenean, hilak 16, Aramaioko Iturrieta sagardotegian, eguerdian. Euskal Herriko Haziak elkarteko kide batek zabalduko du txotxa, eta greñas motako sagar-hazia landatuko du. Ekitaldira gonbidatuta daude Diputazioko ordezkariak,

Jaurlearitakoak eta beste lurralde batzuetako sagardogileak. Aramaioko Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciña adierazi du euredako "ohorea" izango dela aurtunen euren zabalte txotx denboraldia: "Ohorea da guretzat. Arabako sagardogileok bertako sagardoa eskainiko dugu eta Hazien elkartekoek izango

dute lehenengo dastatzeko aukera. Sagardogileok oso lotuta gaude elkarte horri, haziakin lan egiten dugulako, eta lotura estua daukagu euskal sagar motak zabalteko eta mantentzeko lanean. Gainera, Nafarroatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Iparraldetik ere sagardogileak etorriko direnez, elkarrekin egote-

ko eta kupeletako sagardoa dastatzeko momentu polita izaten da". Bezeroendako hurrengo egunean, hilak 17, zabalduko dituzte kupelak.

Aurtengo uzta

Iazko uzta "oso berezia" izan zela adierazi du Peciña, eta, zuhaitzek normalean bi urtean behin ematen dutenez uzta potoloa, aurtengoa kantitate alde-rik baxuagoa dela zehaztu du: "Aurtun, iaz baino uzta txikiagoa izan dugu, baina normaltasunez hartzen dugu, horrela izaten delako". Iaz, 22.000 litro ekoiztu zituzten Iturrietan, eta aurtun, 20.000; horietatik, 15.000 litroekin sagardoa egin dute eta 5.000ekin sagar-zukua.

Hamabi sagar mota

Guztira, hamabi sagar mota erabili dituzte eta gehienak mota hauetakoak direla azaldu du: errezil-sagarra, goikoetxe, gezamina, txalaka eta moko.

Sagardo "ona"

Aurtengo sagardoa nolakoa izango den galdetuta, hauxe erantzun du: "Ezaugarri zehatzak zeintzuk izango diren jakiteko, pixka bat gehiago itxaron behar da. Kontuan izan behar da sagardoa garapena izaten duela eta aldatzen joaten dela egunez egun. Guk, gainera, ekologikoa egiten dugunez, ez dugu ezer ukitzen; beraz, naturak bere bidea egiten du. Baina txotx denboraldia za-

baltzearen dagoenean, egunero dastatzen dugu, enologoekin batera, eta aurtun sagardo ona dator; azken hilabeteotan ikusten ari garenaren arabera, oso itxura ona dauka".

Erreserba ugari

Iturrietan dagoeneko uztaile bitarteko zapatu eguerdi guztiak erreserbekin beteta dituzte: "Ohiturak aldatu egin dira eta orain hori gertatzen da", esan du Peciña. Baina gaintzeko momentuetarako erreserbak zabalik dituzte. Aurtun, sagardoen hamaika depositu dituzte, eta horien artean desberdintasunak beti egoten direla aitortu du Peciña: "Batzuk lehenago heltzen dira, beste batzuk geroago... Kupeletan sagardo desberdinak dastatu ahal dira".

Gaineratu du txotx garaiko "magia" mantentzen dutela euren euren, sagardotegietako menu tradizionalak eskaintzen eta txotx denboraldian sagardoa kupeletatik dastatzeko aukera emanaz. Gogoz dago denboraldi berriari ekiteko eta bezeroek sagardo berria dastatzeko.

AURTEN, 15.000 LITRO SAGARDO ETA 5.000 LITRO SAGAR-ZUKU EKOIZTU DITUZTE ITURRIETAN

"Helburua da %100 bertako sagarrekin egindakoa izatea"

MAITE RETOLAZA EUSKAL SAGARDOA JATORRI IZENENKO PRESIDENTEA

Amaia Txintxurreta Guridi ARRASATE Euskal Sagardoa jatorri izeneko presidente berria da Maite Retolaza elgetarra; karguan ia bost urte egin dituen Oihana Gaineraini hartu dio erreleboa. Euskal Herriko beste hainbat etxetan bezala, Retolazaren familia betidanik egin da sagardoa, baita Haritz Eguren senararenean ere. Bien artean zuzentzen dute Zeraingo Oiharte sagardotegi gaztea; 2010eko uztan hasi ziren sagardoa merkaturatzen. Hazten eta berritzen joan dira orduz geroztik.

Jauzi handia ekarri du elkarteko presidente kargu-hartzeak?

Ez; azkenean, egunero egiten dugunaren berri ematea da.

Zein berme eskaintzen dizue bertan zaudeten sagardogileoi?

Elkartea sortu zen, batez ere, sagardogileen eta sagar ekoizleen produktuei balioa emateko, eta uste dut gure produktuak posizionamendu garrantzitsua jaso duela jatorri izena sortu zenetik. **Gipuzkoako 42 sagardotegi, Bizkaiko lau eta Arabako bi daude Euskal Sagardoan, 48 guztira; eta lanean diharduzue Nafarroako eta**



Maite Retolaza, eguaztanean, Goiena telebistako platoon. A.T.

Iparraldeko sagardotegi eta sagardogileak elkartera batzeko.

Gaur egun esku artean dugun proiektu handiena hori da. Iparraldeko nahiko aurreratuta dago, eta Euskal Sagardoan sartuko da hemendik denbora

gutxira. Eta hurrengo pausoa da Nafarroarekin hizketan hastea. Uste dut jatorri izena bakarrik ez bada, bakarrenetakoa izango dela mugez kanpokoa, estatu desberdinak batzen dituen.

Bertako nahikoa sagar dago sagardo ekoizleen produktioa asetzeko?

Erronka da, datozen urteetara begira, egiten dugun %50 bertako sagarrekin egin eta euskal sagardoa izatea; hori lortzen ari da. Eta hemendik 10-11 urtera helburua izango da %100era iristea. Gaur egun dauzkagun sagastiekin ez da lortuko, baina horregatik jarri zen prozesu bat sagarrondoak sartu eta helburu horretara pixkanaka iristeko. Hemen lursailak oso malkartsuak dira, eta horretan dago zailtasuna. Nafarroa eta Iparraldea barne hartzean, uste dut lagunduko digula sagastiek sartzeko lursail gehiago izateko.



Elkarriketa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Zaborraren tasaren igoera, %30en bueltan

Legeak behartuta, aurten udalentsat zabor bilketa zerbitzua ezingo da defizitarioa izan, eta, horregatik, 2025arekin batera %30eko igoera izan da tasa horretan bailarako herri guztietan. Aretxabaleta da salbuespena, bertan %11 inguru igo da-eta zabor-tasa

Jokin Bereziartua Lizarazu
DEBAGOIENA

Urte urte bizimodua garestitzen doan seinale, debagoiendarrek 2025ean poltsikoan igarriko duten prezio igoeren artean zaborraren tasan izan den igoera nabarmena azpimarratu beharra dago. Europatik datorren legeak behartzen duenez zabor-bilketa zerbitzua defizitarioa ez izatea, bailarako udal gehienetan igoera nabarmena izan da tasa horietan. Hala, honako igoera hauk izan dira zabor-tasan, herriz herri: Arrasaten zaborraren tasa %38 igo da 2025arekin batera; Bergaran, %29ko igoera; Oñatin, %33,6ko igoera; Aretxabaletan, %11ko igoera; Eskoriatzan, %39ko igoera; Antzuolan, %24,31ko igoera; Elgetan, %35,57ko igoera; eta Aramaion, %30eko igoera. Datuei erreparratuz gero, Aretxabaleta da salbuespena; azken urteetan zabor bilketa zerbitzuaren kostua udalek euren gain hartu behar-

ko zutela iragarri zenez, Aretxabaletan proportzionalki igo dute zaborren tasa, eta, horregatik, aretxabaletarrek ez dute beste herrietan besteko igoera nabarmenik igarriko aurten.

Bestalde, kiroldegi zerbitzua eskaintzen duten herrietan tasa %3 inguru igo da, batez beste.

12 urtetik behera, autobusa doan

Kontrara, garraio publikoa sustatzeko neurriekin jarraituko du Diputazioak. Mugi txartelaren erabilzaileei %50eko deskontua aplikatuko zaie, ekainera arte. Gainera, 12 urtetik beherako umeek autobusa doan erabili ahalko dute; horretarako, nahitaez, Mugi gazte txartela izan beharko dute; hau da, ez dute txartel berririk eskatu behar. Umeak txartela gidariari erakutsiko dio eta gidariak paperezko txartela emango dio, doan. Etorbizunean sistema egokitu egingo dute, haiei ere doakotasuna automatikoki aplikatzeko.

Bailarako langabeen kopurua egonkor mantendu da 2024an

2024ko urtarrilean 2.424 debagoiendar zeuden lanik gabe, eta 2024ko abenduan 2.389 ziren langabeak

J.B.L. DEBAGOIENA

Langabeen kopuruak ez du gorabehera handirik izan urtebetean Debagoiengan, egonkor mantendu da-eta 2024an. Hain zuzen ere, 2.424 pertsona zeuden lanik gabe iazko urtarrilean, eta 2.389 izan dira 2024ko abenduan: alegia, 2024aren hasieran baino 35 debagoiendar gutxiago daude lanik gabe. Horrenbestez, beherakada izan du langabezia-tasak ere: %7,9koa zen urtearen hasieran eta %7,83koa, berriz, abenduan. Herriz herriko datuei dagokienez, urtebeteko aldiari, Antzuolak

hiru langabe gutxiagorekin amaitu du 2024a –guztira, 55–; Aretxabaletak hamar gutxiagorekin (193); Arrasatek, 26 gehiagorekin (1.099); Bergarak, 36 gehiagorekin (538); Elgetak, bat gutxiagorekin (28); Eskoriatzak, 17 gehiagorekin (168); eta Oñatik, azkenik, hemezortzi gutxiagorekin (308). Bestalde, EAEko Lanbideren eta Nafarroako Lansarearen enplegu zerbitzu publikoetako bulegoetako datuak aintzat hartuta, 137.735 pertsona daude lanik gabe Hego Euskal Herrian, eta %9,77koa da langabezia-tasa.



Mankomunitateko langile bat plastikoen edukiontzia jasotzen, iazko azaroan. GOIENA



LANERAKO FORMAZIOA

%100 DIRULAGUNTZAREKIN

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOKO			
IKASTARoen IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0876	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA Planoen inakurketa.	60	2025/03/10 2025/04/10
UF0883	TXORBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2025/05/05 2025/05/20
UF0879	TXORBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA	80	2025/01/13 2025/02/26
OC24200194	3D ESKANEATZEA	15	2025/03/10 2025/03/25
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
UF0885	ETXEBIZITZA-ERAKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	2025/01/27 2025/02/27
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0314	KONTABILITATE KUDEAKETA	90	2025/02/17 2025/04/10
IFC00330H	KALKULU ORRIA: EXCEL	50	2025/03/10 2025/04/07
IFC00340H	ONARRIZKO INFORMATIKA	30	2025/05/05 2025/05/20
BESTEAK			
COML003PD	ORGA JASOTZAILIEN ERABILERA	8	2025/02/10 2025/02/12
COML006OV	ZUBI GARABIEN ERABILERA	6	2025/01/27 2025/01/28






EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



Agirrebidea 2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa) Tel.: 943 89 92 72 – 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus



Goizane Aranburu, Orue Auzolana Fundazioko idazkaria, eta Monika Belastegi, Goiena Komunikazio Taldeko lehendakaria. GOIENA

Adinkeria saihestea helburu duen hitzarmena

Goiena Komunikazio Taldeak akordioa hitzartu du Gizadiberri programako arduradun direnekin, adinkeriaren inguruko kontzientzia pizteko: langileekin ikastaro bat egingo dute, eta hor jasotzen dutena helaraztea izango da euren lana landutako edukietan

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ARRASATE

Gizarte arloko gaien inguruan eztabaida publikoa sustatzeko asmoa du Gizadiberri programak –Orue Auzolana Fundazioa da sustatzailea–, gai jakin batzuen inguruko hausnarketa bideratzea, eta, hain zuzen ere, adinkeria da horietako bat; bada, hori go-goan, hitzarmena sinatu dute Goiena Komunikazio Taldeak eta Orue Auzolana Fundazioak. "Komunikazioaren eremutik abiatuta, lehen helburua da gizarteko gaien inguruko kontzientziaren sentsibilizazioa komunikazioko profesionalak, eta, aldi berean, helarazten duten informazioaren bidez, herritarrak", azaldu du Ainara Arregik, Gizadiberri programako teknikariak.

Hain justu, abenduan sinatu zuten hitzarmena, Arrasaten, adinkeriaren ohartarazteko, kontzientziatzeko eta neurriak hartzeko, adinaren arabera –zehazki, zahartzaroari lotua– diskri-

minazioa aintzat hartuta; hori baita, adituen hitzetan, adinkeria, hiru arlotan jasan daitekeela nabarmenduta: erakundeean, pertsonen artekoan eta nork bere buruari eragindakoan.

Ikasitakoa helarazteko

Komunikazio arloko profesionalak formatzea da akordioan jasotako lehen urratsa, eta horretarako ikastaro bat egingo dutela adierazi du Monika Belastegik, Goiena Komunikazio Taldeko lehendakariak: "Gure gizartean diskriminazio modu ezberdinak daude, eta horietako bat da pertsona edadetuek nagusi izateagatik jasotzen duten bazterkeria. Alabaina, Gizadi-

KOMUNIKAZIO GIDA BAT SORTU DU GIZADIBERRIK, ADINKERIARIK GABE JOKATZEKO

berrirekin sinatutako akordioari esker, Goienako kazetariok eta teknikariok ikastaro bat egingo dugu, gure kontzientzia pizteko eta sentsibilizazioan eragiteko". Ondoren, ikastaroan jasotakoa helaraztea izango da profesionalen ardura: "Ikastea, gure egunerokoan sortzen dugun eta gizarteak kontsumitzen duen eduki horietan adinkeria saihesteko eta baztertzeko".

Horrez gain, Belastegik erantsi du *Puntua* aldizkariko kolaboratzaile izango dela aurrerantzean Gizadiberri, adinkeriari –beste zenbait gairen artean– buruzko artikulua idatziko baititu hilean behin.

Gidaren sorrera

Gizadiberri, HelpAge Fundazioarekin elkarlanean, *Adinekoenganako adinkeriari gabe komunkazio-gida* garatu du, eta komunikatzaileen eskuetan dago dagoeneko; gaiaren inguruko zenbait gako biltzen ditu puntuz puntu.



Pentsiodunen elkarretaratzea iazko irailean Arrasaten. GOIENA

Herriko plazetara itzuliko dira pentsiodunak, zazpigarren urtez

Astelehenean, urtarrilaren 13an, hasiko dituzte berriro ere elkarretaratzeak, 12:00etan; baita bailaran ere

A.R.K. DEBAGOIENA

Pentsioak %2,8 handitu dira urtea hastarekin batera Hego Euskal Herrian, hori izan baita Espainiako batez besteko inflazioa 2023ko abendutik 2024ko azarora. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak pentsioen igoera hori euren borrokaren "garaipena" dela dio, baina ez dela lortzen "2011ko pentsioen erreformaz geroztik galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea"; horrenbestez, berreskuratze hori izango dute, besteak beste, eskaeratzat astelehenean berrartuko dituzten

elkarretaratzeetan: "Gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) %100ekin parekatzea eskatzen dugu".

Pentsiodunen mugimenduak martxan du Eusko Jaurlaritzara herri ekinaldi legegilea gauzatzera bultzatu nahi duen sinadura biltzea, eta herritarrak animatu ditu batzera, "belau-naldien arteko borroka" dela iritzita: "Pentsiodun guztientzako gutxieneko pentsioak osatzeko euskal sistema ezartzen duen legea da, LGSren parekoak; tramiterako onartu du Legebiltzarreko mahaiak".

Sareren manifestaziora joateko autobusak izango dira bihar

17:00etan egingo da mobilizazioa Bilbon; hara joateko goiz eta arratsalde izango dira autobusak bailaratik

A.R.K. DEBAGOIENA

Sare Herritarrak antolatuta, *Behin betiko* lelopean, mobilizazioa egingo dute bihar, urtarrilak 11, Bilbon, Casillatik abiatuta, "behin betiko bakea, konponbidea eta elkarbizitza eskuratzeko garaia" dela aldarrikatzeko asmotan; bada, urteroko moduan, hara joateko autobusak antolatu dituzte Debagoieneko herrietatik.

Antzuolan 10:45ean eta 15:00etan aterako dira autobusak, gelto-ikitik, eta 11:00etan eta 15:15ean izango dira Bergaran, Torrekuan;

Aretxabaletan, 15:15ean, Azben; Arrasaten, 11:00etan eta 14:30ean, Zalduspen; Elgetan, 15:30ean, herriko plazan; Eskoriatzan, 15:00etan, Gorosarrin; eta Oñatin, 10:30ean eta 15:00etan, Mondragon Unibertsitatean.

Ekintza gehiago

Manifestazioa arratsaldean da, baina 12:30ean dultzaineroen, buruhandien, txistularien eta trikitilarien kalejirak hasiko dira Bilboko kaleetan; 13:00etan, berriz, Berakatz Kantuz taldearena, Zamudioko ataritik.



Teresa Aranzibia, Sasha Melnyk, Martin Aranzibia eta Iñaki Ayastuy, etxeko sukaldean. GOIENA

Sara Lanz Azpiazu BERGARA

Bergarako Teresa Aranzibiaren etxea argiz betetzen da Gabonetan. Ez soilik ohiko apaingarriengatik, baizik eta barruan dagoen ilusio guztiagatik. Aurren ere, Sasha Melnyk etorri da Ukrainatik, Aranzibiaren eta bere familiaren besoetara. Melnykek 13 urte ditu, eta bigarren etxea aurkitu du Bergaran, Chernobil elkartearen Atsedeen Programaren bitartez.

Chernobil elkartearen Atsedeen Programak aukera paregabea eskaintzen die haurrei. Aurten go kanpainaren baitan, Ukrainako 47 haur Euskal Herrira etorri dira, Gabonetako oporrak gerratik eta Ukrainako negu gordinetik urrun igarotzeko asmoz. Sei haurrek lehen aldiz bidaiatu dute eta beste 41 haur beteranok esperientzia errepikatzea erabaki dute. Egonaldi horrek, besteak beste, atsedendaldi bat ematen die adingabeei, gerra-egoeratik eta bertako bizitzako antsietatetik urruntzeko. Haur horiek Hego Euskal Herriko familiekin egongo dira, urtarilaren 18ra arte.

Melnykek 2017an zapaldu zuen lehen aldiz Euskal Herria, eta, orduz geroztik, ia urtero etorri da Gabonetako eta udako oporrak pasatzera. "Olentzerorekin batera Sasha ere iristen da", dio Aranzibiak, irribarrez. Hasiera batean, udan bakarrik etortzekoa zen Melnyk; txikia zela Gabonetako argiak ikustearekin amesten zuenez, neguko oporrak

Euskal Herriko goxotasunean

Ukrainako 47 haur Euskal Herrira izan dira, Gabonak gerratik urrun igarotzeko, Chernobil elkartearen Atsedeen Programaren bidez. Sasha Melnyk, 2017az geroztik Bergarara etortzen den haurra, itxaropenaren eta harrera beroaren adibide da

ere Angiozar bailarako Gaztelu baserrian pasatzen ditu.

Egunak elurretako abenturatan, mendiko txangoetan eta familiako planetan igarotzen dituzte. "Igeri egitea eta tenisa asko gustatzen zaizkit. Udan mendira joatea ere bai", dio Melnykek. Baina familiarekin egotea baloratzen du gehien. Bereziki Aranzibiaren seme Martinekin duen harreman berezia nabarmendu zuen. "Batzuetan, jendeak galdetzen du ea anaiak garen, eta ezagutzen ez gaituztenei baietz esaten diegu", dio, umorez.

"OSO HARREMAN BEREZIA DUGU; SASHA ANAIA ETA SEME BAT DA"

TERESA ARANZIBIA, HARRERA-GURASOA

Ukrainako gerrako bizipenak

Melnyken irribarreak ezkututzen duen bizitza gogorra da. Ukrainako gerrarekiko beldurra eta sufrimendua azalean daramatza. Aitak, gerran hainbat aldiz zauritu den gizonak, agian berriz ere frontera joan beharko du. "Beldurra ematen du", dio Melnykek, ahotsa motelduz.

Hasieran, inork ez zuen gerraren itzala etorriko zenik uste. "Arduratuta galdetzen zigun ea zer gertatuko ote zen gerra bat hasiko balitz. Nik erantzuten nion: 'Hori ez da pasatzen gehiago'. Baina bai, pasatu da", gogoratu du Aranzibiak. Urte hartan, Melnyk Ukrainara itzuli, eta egun gutxira egin zuen eztanda gerrak.

Gerraren lehen egunean, Melnyk eta bere familia lur azpian ezkutatu ziren. Errusiako tankeak haren herritik iga-

ro ziren, eta ezjakintasunak arrastoa utzi zien. Bi hilabetez inkomunikatuta egon ziren. Bi hilabete haiek bizi izan zituzten bergararrek ere, kezka eta itxaronaldiz beterik.

Denbora luze baten ostean, Melnyk Aranzibiarekin kontaktuan jarri zen. "Azkenean, apirilean deitu ziguten eta hemen hartu genituen", azaldu du Aranzibiak. "Ez genuen inolako zalantzarik izan: gure etxea prestatu genuen, eta, Sasharen amarekin eta anaia txikiarekin batera, familia oso bat bilakatu ginen", gaineratu du.

"IGERI EGITEA ETA TENISA GUSTATZEN ZAIZKIT; MENDIRA JOATEA ERE BAI"

SASHA MELNYK, UKRAINARRA

Bigarren etxe bat

Melnyk Bergaratik urruntzen denean, bertan duen familiaren hutsunea sentitzen du. Baina ez da bakarra: Martinentzat ere hutsune nabarmena uzten du. "Asko igartzen dut faltan", dio Martinek. "Etortzen denean ilusioa egiten dit, eta ez dagoenean, aspertu egiten naiz". Izan ere, Martinentzat, Ukrainatik datorren anaia "berezi" bat da.

Aranzibiarentzat ere Melnykek berezitasuna du: "Oso harreman berezia dugu. Familia honendako, Sasha anaia eta seme bat da".

Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten dute Melnykekin. "Gaztelaniak etorkizun batean ate gehiago zabalduko dizkiola uste dugu", argitu du Aranzibiak. Melnyk gaztelaniaz ondo moldatzen den arren, euskaraz dena ulertzeko gaitasuna du.

Etorkizun baten itxaropena

Euskal Herrian emandako egonaldiek, bertako kultura eta jendearekin izandako topaketek, etorkizuneko itxaropena pizten diote Melnyki. Baina, aldi berean, Ukrainan geratzen diren familia eta lagunak buruan daramatza beti. Euskal Herrian bizitzaren beste alderdi bat ikusi ahal izan arren, etxean bizi duten egoera horrek bihotzean sakon eragiten dio.

Aranzibiak itxaropen mezua du Atsedeen Programan parte hartzeko interesa izan dezaketentzat: "Haur bati aukera bat ematea, eta gu bigarren familia bat izatea, izugarria da. Opari ederra da guztiontzat: bai haientzat, bai guretzat. Esperientzia honek bizitza osoan markatzen zaitu, eta uste dut eraldatzeko indarra duela". Programak, beraz, harremanaren eta babesaren bidez, gerraren ondorioz ziurgabatasunean bizi diren haurrei itxaropen berria eskaintzen die, etorkizun hobe baten bila.

Melnykek mezu hau zabaldu nahi izan du: "Lehenengo urteetan haurrak zailak izan daitezke, ni izan nintzen moduan. Gero, hori pasa, eta ondo egongo zarete". Harrera familiek egiten duten lana azpimarratu nahi du hark, eta, horrez gain, hura bezalako haurrentzat horrelako atsedendaldi batek izan dezakeen garrantzia nabarmendu du.



ZABALIK

LANDER BELOKI MENDIZABAL

ChatGP: eragina lanpostuetan

Munduko Ekonomia Forumaren azken txostenean, adimen artifizialak hainbat lanpostu nola automatizatu edo hobetuko dituen ebaluatzen da. Aztertu da ChatGPT bezalako eredu linguistiko erraldoiek izan dezaketen eragina 867 profesionalak egindako 19.000 banakako egitekotan. Hainbat mailatan sailkatu dira: automatizazio gaitasun altua, gero eta automatizazio gaitasun handiagoa, gaitasun baxua eta eraginik izango ez duten egitekoak.

Adimen artifiziala lanpostuetan bi modutara barneratuko da: lehenengoa, zereginen automatizazio bitartez; hau da, adimen artifizialak zeregin errepikakorrek eta datuetan oinarritutako automatizazioak ditu, langileek sormenezko, izaera subjektiboko gaitan erabakiak eskatzen dituzten eta giza harremanak behar dituzten jardueretan zentratu ahal izateko. Eta bigarrena, adimen artifizialaren laguntzarekin gaitasunen handitzearekin: adimen

ALDAKETETARA EGOKITZEKO, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA EZINBESTEKOAK DIRA

artifizialak giza gaitasunak osatuko ditu, informazioa denbora errealean emanaz, prozesuak automatizatuz eta erabakiak hartzen lagunduz. Sektoreka eragina desberdina izango da, baina guztiek eraginak jasango dituzte, eta automatizazioa eta giza

gaitasunen handitzea konbinatuko da.

Etorkizuneko lanpostuei dagokienez, automatizatuena zeregin oso egituratuak eta errepikakorrek dituztenak izango dira: datuak prozesatzea eta funtzio administratibo batzuk. Adimen artifizialak gaitasuna handitzen lagunduko du gizarte gaitasunak, sormena eta arazo konplexuak ebazteko gaitasunak eskatzen dituzten egitekoetan: kudeaketa, diseinua eta software garapena.

Hori horrela, etorkizuneko lan-mundurako egokitze proposa izateko hainbat gomendio ere jasotzen dira txostenean: gaitasunak garatzearen garrantzia, gobernuen, enpresen eta langileen arteko kolaborazioa sustatzea, lan legedia eguneratzea eta hezkuntzan inbertsioa handitzea.

Adimen artifiziala lan-merkatua eraldatzen ari da. Erronekak planteatzen dituen arren, produktiboagoa den lanbide etorkizuna sortzeko aukera ere ematen du. Aldaketa horietara egokitzeko, hezkuntza, prestakuntza eta kolaborazioa ezinbestekoak dira.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Xehe

GARAZI KAMIO ANDUAGA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/C2DZ3](https://labur.eus/C2DZ3)

Agian ez duzu halakorik egin edo esan, baina lasaitu ederra hartzen dugu egin edo esan dugunok zu zeu halakotan irudikatzen zaitugunean: ez dugu gozorik jango urtebetean, ez dugu alkoholik usaindu ere egingo denboraldi luze batean eta, noski, oraindik ere urte berriaren usainean gauden honetan, dieta beganoa egitea ere otu zaigu. Bai, antxintxika ehun metro ezinean aritzen denak maratoian parte hartuko duenaren uste osoarekin.

Urte berriaren bestondokoak irauten duen honetan urte berriari zehaztasun eta xehetasun osoarekin begiratzen baitiogu; egin ez dugun hura eta egingo genukeena maila berean ipintzen ditugulako, fantasiako munduari tregua txikia emanaz. Lasai, alde egingo dute, errota zahar maiteak hala, xehatuko baitugu alea nola edo hala.

Finitu ziren otordu luzeak eta hara, desordutan edo *desotordutan* iritsi zen berria: milioi bat euro pasatxo ordaindu dute Japonian atungorri batengatik. Bidasoa ibaian arrantzatzen den *lehenbiziko* izokinaren antzeko erritua

dela dirudi, baina irailean Ordiziako azokan enkantean jartzen den gaztaren salneurria izan dezake. Zerbaitetan badu alde, bai, baina zimarroak 276 kiloko pisua du, ez gazta-zatiaren kilo-erdi doa. Kontua da, japoniarrek zoriaren eta zorte onaren ispilutzat hartzen dutela atungorria: urteko lehenengoak zorte onaren xerka erakusten omen du eta hori hala izan dadin, enkantean milioi euroko langa zeharkatu du arrainak.

Batzuentzat gehiegikeria, beste batzuentzat kultura kontua, arraina sushia egiteko erabiliko dute erosleek. [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
 Goiena Komunikazio Taldea
 Kooperatiba Elkarte
 Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE

Lehendakaria
 Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
 Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
 Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
 Monika Belastegi, Mirari Altube,
 Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
 Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
 Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
 Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
 Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
 Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
 Xabier Urzelai (Kirola),
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
 Imanol Soriano,
 Aitor Lagoma,
 Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
 Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
 Amaia Mundiñano.

Administrazioa
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
 Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
 Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05
 Telegram eta WhatsApp:
 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA

Jone Arruabarrena BERGARA
Bergaran bizi da Galia Omar Bashir (Sahara, 1987). Duela hamarkada bat iritsi zen, eta, sahararra den arren, Kanarietako azentua nabari zaio. Hainbat kulturaren nahasketa darama barrenean. **Non jaio zinen?**

Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan jaio nintzen, 1987an. Nire gurasoek kanpamenduan ezagutu zuten elkar, eta han ezkondu ziren. Ni izan nintzen euren lehenengo alaba. Bederatzi neba-arreba gara guztira, baina nire anaia bat gerran hil zen.

Nolakoa da egunerokotasuna errefuxiatuen kanpamentuetan?

Ez dago egiteko ezer. Ikasi dezakezu, Bigarren Hezkuntza egin arte, baina gero, kanpora joan behar duzu. Ikasketekin bueltatzen zarenean ere, ezin duzu lanik egin, ezin duzu ezer egin. Emakume batzuek umeak zaintzen egiten dute lan, edo irakasle. Gizon batzuek gidari lanak egiten dituzte, produktuen salerosketa, mekanikariak dira... baina ez dago askoz aukera gehiagorik. Migratzen dutenek bidalitako diruarekin bizi dira familia asko.

Ze gauza nabarmenduko zenuke saharar kulturatik?

Sahararren eskuzabaltasuna azpimarratuko nuke. Bestalde, izan duten egoeraren gainetik, oso herri baketsua dela uste dut. Saharar herriak borroka baketsuaren alde egin du beti.

Zergatik erabaki zenuen migratzea?

7 urte nituela, nire gurasoek erabaki zuten ni Kanariar uharteetara bidaltzea uda pasatzera, Oporrak Bakean programaren bidez, 1995ean. Hala, Espainiako familiek saharar umeak etxean hartzen zituzten, uda haiekin pasatzeko, eta, horrez gain, umeek osasun arreta jaso dezaten ere baliatzen zen egonaldia.

Nolakoa izan zen zure lehen inpresioa kanpamentuetatik kanpora atera zinenean?

Garai hartan, kanpamentuetan ez geneukan argindarrik, ezta urik ere. Ez genekien zer ziren errepideak edo eraikinak. Beraz,

"Saharar herriak borroka baketsuaren alde egin du beti"

GALIA OMAR BASHIR



Galia Omar Bashir, Bergaran. JONE ARRUABARRENA

Kanarietara iritsi nintzenean, hura beste mundu bat zen niretzako. Uda hartan, osasun azterketak egin zizkidaten, eta ikusi zuten hazteko zailtasunak ematen zizkidan gaixotasun bat neukala. Ia-ia ezin nintzen oinez ibili. Beraz, hartu ninduen familiak erabaki zuen gaixotasuna osatzeko tratamendua bukatu arte haiekin geratu nedin. Bost urtez geratu nintzen bertan.

Gurasoekin nola komunikatzen zinen?

Garai hartan, kanpamentuetan ez zegoen telefonorik, eta nire aitak 400 kilometroko ibilbidea egin behar zuen, desertuan, nirekin telefonoz hitz egiteko. Beraz, haiekin nuen komunikazioa oso txikia zen. Bost urte igarota, arabiera ahaztu egin zitzaidan, eta ez nintzen Saharako bizitzarekin gogoratzen. Beraz, nire gurasoek bueltatu nedin eskatu zuten, nirekin kontaktua ia-ia galdu zutelako. Nik ez nuen hara bueltatu nahi, hemen jendeak esaten zidalako halako lekuetan neskatoak gizon zaharrekin ezkontzera behartzen zituztela, edo ahuntzen ordez trukatu zindutela. Noski, hori guztia gezurra zen.

Bueltatu zinen, azkenean?

Bai. Gogorra izan zen, Kanarietako erosotasunetara ohitu nintzelako. Baina gero, erabaki nuen burua altxatu behar nuela. Ikusi nuen nik ere ekarpen bat egin behar niola nire herriari; beraz, itzultzaile lanak egiten hasi nintzen kanpamenduan. Horren ondoren, nire aita gaixotu egin zen, eta diru-sarrerarik gabe geratu ginen. Hainbat produktu kanpamentuan saltzen hasi nintzen. Oso ondo joan zen negozioa, eta, azkenerako, denda txiki bat zabaldu nuen. Horrek asko lagundu zuen familian.

Zenbat denbora eman zenuen kanpalekuetan garai hartan?

Bost urte, 2005era arte. Nire gaixotasunak asko egin zuen hobera, baina oraindik hezurretako minak izan ohi nituen, eta kanpamenduan ez zegoen nik behar nuen medikaziorik. Kanarietako

nire familiak hara bueltatu nedin nahi zuen, ikasketak bukatzeko. Beraz, garai hartan bueltatu nintzen Kanarietara. Hara bueltatutakoan, hainbat urtez ibili nintzen borrokan, paperak lortu arte. Azkenean, 2010ean lortu nituen paperak, eta nire senarra ezagutu nuen. 2015ean bueltatu ginen Saharako kanpalekuetara, bertan ezkontzera. Hura ere Espainiara umetan etorritako sahararra da. Nire lehenengo alaba Kanarietan jaio zen, eta gero, Euskal Herrira etortzea erabaki genuen. Lana aurkitu genuen, eta hemen bizi gara orduz geroztik.

Sahara eta Euskal Herria: antzekotasun ugari dituzten herriak, elkartasunez lotuta

Euskal Herriagatik galdetuta, Omar Bashirrek dio saharar herriarekiko "elkartasun handia" sumatu duela hasieratik: "Elkartasun eta empatia handia sumatu dut. Antzekotasun asko ikusten dut, alde horretatik, Euskal Herriarekin; jende ona dagola iruditzen zait". Gainera, esan du "gero eta gehiago" gustatzen zaiola Bergara. Edozelan ere, aitortu du hasieran kosta egin zitzailela euskaldunen dinamiketara ohitzea: "Egia da etorkin asko euren baitan ixten direla, baina hemen integratzea ere askotan ez da erraza". Horri lotuta, alaba nagusienarekin "asko" sufritu zuela adierazi du: "Hona etorri ginenean, eta parkera gindoazenean, adibidez, ez zizkieten zirkuluak hari zabalitzen. Eta helduekin ere berdin. Kuadrillak daude hemen, eta, zirkuluetan sartzen ahalegindu arren, oso zaila da horietan sartzea".

"TXIKIA NINTZENEAN, KANPAMENTUETAN EZ GENEUKAN ARGINDARRIK, EZTA URIK ERE"

"IKUSI NUEN EKARPEN BAT EGIN BEHAR NUELA, ETA ITZULTZAILE LANETAN HASI NINTZEN"

Lau proiektu nagusiren oinarriak finkatu eta martxan jartzeko urtea

48.303.380 milioi euroko aurrekontua onartu du Arrasateko udalbatzak 2025erako; bederatzi milioi euro ditu inbertsioetarako, eta gerakina ere ezinbestekoa izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Abenduko ezohiko bilkuran onartu zuen udalbatzak 2025erako udal aurrekontua, 48,3 milioi eurokoa -2024koa baino %5,6 handiagoa 2,5 milioi euro gehiago-. EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek ez ezik, PSE-EEK ere babestu zuen proposamena, agintaldi honetan lehen aldiz. EAJk, aldiz, aurka bozkatu zuen.

Joseba Ezpeleta Ogasun zinegotziak deitoratu egin zuen jeltzaleekin ados jarri ez izana: "Zoritxarrez, EAJrekin ez dugu lortu adostasunik, eta, egia esan, aukera errealak zeuden, iaz bezala; hala ere, iaz bezala, aurten ere ez dugu lortu".

Jeltzaleen bozeramaile Ander Garayk zera erantzun zuen: "Irekita geunden negoziaketarako. 25 emendakinekin hasi ginen eta sei emendakin ekarri ditugu osoko bilkurara. Sei horietan aukerak zeuden akordioa lortzeko, baina ez dituzte onartu; beraz, aurka bozkatu dugu".

Sozialistek, aldiz, negoziaketaren "tonu positiboa" nabarmendu zuten. "Ideia onak ekarri genituen eta haien ideiak ere onak iruditu zitzaizkigun; azken batean, nahiko antzerakoak ziren", azaldu zuen Johanna Sanchez zinegotziak.

Urteko plangintza, eginda

Behin onartuta, Udal Gobernuak aste honetan egin du hori gauzatzeko lehen bilera, urteko plangintza ezarrita. Hala, 2025eko udal aurrekontuak 9.066.929,25 euroko inbertsioak aurreikusten ditu. Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleak berriz urbanizatzeko proiektura bideratzeko egingo du Gobernuak inbertsio handiena, 2.872.167 euro, hain zuzen -3.371.372 eurokoa da proiektu horren aurrekontua-. Iazko irailean hasi zituzten lanak

eta 2025eko udazkenerako amaiztea aurreikustean dute, "urri-rako edo azarorako".

Halaber, beste bi inbertsio esanguratsu, 500.000 eurokoak biak, egingo dituzte, argiteria LED sistemara aldatzeko eta BAZeko bulegoak berritzeko. Azken horri dagokionez, proiektua idazketa fasean dago eta lanak urteko bigarren seihilekoan hastea espero du Gobernuak. Horrez gainera, Arrasate Herri Eskolako Erguin guneko teilatua konpontzeko 350.000 euroko inbertsioa ere jasota dago aurrekontuan.

Aurten egingo duten beste proiektu bat Jose Luis Iñarra pasealekuaren urbanizazioaren lehen fasea izango da, nahiz eta ez dagoen 2025eko udal aurrekontuan jasota -2024koan onartu zuten-. Ondo bidean, abenduan bukatuko dituzte lan horiek.

Era berean, auzoetako proiektu txikiagoek ere presentzia izango dute aurrekontuan, eta urtean zehar egingo dituzte, Auzoak, Obrak, Zerbitzua eta Mantentzea Sailetik. Proiektu horien artean, besteak beste, Santa Marinako liburutegi berria egitea, Portaloiko atea berritzea, Ferixalekuko bi igogailuak berritzea, Gorostizako eta Makatzenako estalpeen mantentzea hobetzeko lanak eta San Andresko Gazte Txokoa berritzea daude, baita Gorostizako igogailuaren proiektua ere. Azken hori lehiaketara aterako dute lehen seihilekoan, urte amaieran idatzita egon dadin.

UDALA AUZOA, GRUPO SAN JUAN, AMAIA ANTZOKIA ETA ITURRIPE BERRIA DIRA LEHENTASUNAK

Proiektu nagusiak, gerakinetik

Era berean, lau proiektu nagusiak euro bateko "partida sinbolikoa" dute aurrekontuan, eta hamahiru milioi euro inguruko gerakinaren bitartez finantzatu dira, urtean zehar diruz hornituta. "Proiektuak idazten ari dira orain, eta behin horiek definitutakoan jakingo dugu obra horietara bideratu beharreko diru kopuru zehatza". Udala auzoko goiko eremua urbanizatzea, Grupo San Juan urbanizatzea, Amaia antzokia guztiz eraberritzea eta Iturripen kiroldegi berria egitea dira lau proiektu horiek.

Udala auzoko proiektuari erreparatuta, aparkaleku berriak eta urbanizazio lanak egiteko aurreiazko lanak egingo dituzte lehen lauhilekoan, ondoren proiektua idazteko eta, urte amaieran, obrak lizitatzeko. Lanak, ordea, 2026ko urtarrilean hastea espero dute daitekeela aurreikusitako Udal Gobernuak.

Grupo San Juango urbanizazioari dagokionez, berriz, hila-bete honetan bertan proiektua idazten hasiko dira eta lanak udazkenean hastea da Gobernuaren asmoa.


Amaia antzokiaren berritze proiektuaren idazketa esleipen prozesuan dago oraindik. "Naguan esleituko dute eta udazkenerako proiektua idatzita izatea espero dugu, urte amaierarako obrak esleitzeko", diote Gobernuak. Horren baitan, bada kontuan hartzeko beste gai bat ere. "Antzokia itxita egongo den bitartean, alternatiba bat behar dugu. Ekimen kultural ugari jasotzen ditu Amaia antzokiak, eta, beraz, horiei alternatibak bilatzeko bide-orri bat markatu dugu. Besteak beste, Udalaren baliabide diren Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturate



Abian da Udala auzoko goiko eremua urbanizatzeko proiektua. ARGAZKIAK: E.A.B.



Urtarril honetan hasiko dira Grupo San Juan berritzeko proiektua idazten.



Amaia antzokian hainbat berrikuntza egingo dituzte.



Udazkenerako idatzita egongo da Iturripe berritzeko proiektua.



Santa Teresako urbanizazio lanak udazkenean amaitzea aurreikusten dute.

erabiltzeko aukera egongo da, baina baita Udalarenak ez diren beste eraikin batzuk aztertzeko aukera ere, hitzarmen berezien bitartez", adierazi dute.

Azkenik, Iturripeko kiroldegi berriaren proiektua udazkeneko egongo da idatzita. Ondoren, jendaurrean aurkeztuko dute eta obrak urte amaieran edo 2026ko lehen hilabeteetan hasita aurreikusi dute.

Politika sozialen urtea ere bai

Bestalde, Udal Gobernuak nabarmendu du "politika sozial eta

komunitarioen urtea" ere izango dela eta aurrez lantzen hasitako proiektu batzuen emaitzak ikusten hasiko direla. Hala, esaterako, osasun mentalaren diagnostikoa sakontzeko galdetegiak herritarrei idatzita, eta otsailean, lanketa berezia egingo dute mugikorren erabilerean inguruan, Altxa Burua taldearekin batera.

Halaber, udaberriaren, Arrasate Bizitegi Merkatuko Tentsio Handiko Eremu bezala izendatzeko eskaera eta dokumentazioa bideratuko dizkio Udal Gobernuak Eusko Jaurlaritzari. Horrekin

batera, II. Bizikidetzeta eta Aniztasun planak "abiadura handia" hartuko du aurtten, "hizkuntza inklusiboan berebiziko arreta jarrita".

Gainera, LGTBI+ pertsonen bizi-baldintza duinak bermatzeko diagnostikaren eta ekintza planaren emaitzaren berri emango dute ekainean.

Azkenik, tren geltoki zaharrean egingo duten Etxe Feminista berriaren proiektua urte bukaerarako idatzita izatea aurreikusten du Gobernuak. Horretarako, 30.000 euro jasota daude aurtengo udal aurrekontuan.

Terrazen lehen ordenantza

Arrasaten, lehen aldiz, taberna eta jatetxeetako terrazen ordenantza idatziko dute aurtten. "Prozesua hasita bazegoen ere, lehen zirriborroa 2025eko lehen hilabeteetan aurkeztuko diegu ostalariei eta herritarrei, haien ekarpenak jaso eta behin betiko ordenantza onartzeko", dio Gobernuak. "Ordenantza lehen seihilekoan onartzea da asmoa", gaineratu du.

TAOren berrikuspena

TAO sistema berrikusteko, halaber, auzoz auzoko parte-hartzea egingo dute, "bizilagunen eskaerak entzuteko eta sistema sinpleagoa bilatzeko". Hala, erabiltzaileek ekarpenak egin ahal izango dituzte eta horretarako prozesua udaberriaren zehar martxan jartzea espero du Udal Gobernuak.

Zarataren mapa, urtarrilean

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berridatzeko prozesuaren baitan, Mugikortasun Plana berri ondoren, irisgarritasun unibertsalerako plana, azpiegitura berdean plana, erai-kigarritasun azterketa, genero ikuspegiaren plana eta zarataren mapa landuko dituzte 2025ean. "Azken hori urtarrilean aterako da jendaurrera eta besteak progresiboki aterako ditugu urtean zehar".

Komertzio bixiari bultzada

Azkenik, tokiko komertzioa sustatzeko parte-hartze dinamika abiaturako duela ere jakinarazi du Udal Gobernuak, herriko komertzioen artean lehendabizi eta herritarrekin ondoren. Lehen aurkezpen saioa abenduan egin zuten, eta 2025eko lehen hilabeteetan emango diote hasiera parte-hartze prozesuari.

NIRE USTEZ

GARAZI BEDATSE BARBERAN GARAI

Etxeko sukalderraino

Etsaia etxean sartu zaigu. Hizkera belikoa da, elkarren kontrako dema. Poetikoki esan dezakegu gorrotoaren arra burmuineko sagarrari koska ari zaigula, garondoan atximurka. Ideia faxistak loratzen ari diren aroan, duela urte gutxi pentsaezinak ziruditen irudiek gure begi-pantailak bonbardatzen dituztelako egunero: genozidio israeldar basatia, ultrasukuineko gobernuen gorakada, pertsona arrazializatuen deshumanizazioa, indarkeria matxista, transfobo zein homofoboaren banalizazioa. Etxeko sukalderra sartzen zaizkigu, gero eta errazago eta azkarrago. Gorrotoaren aurpegi ustez barregarriak, kuñadismoz moztortutako txistek... pertsona eta izate guztien existentzia ukatzen duen negazionismoaren izurri betean gaude. Izaki pribilegiatuen dominazioari gorazarre egitea da orain modako. Genero disidenteak, gorputz lodiak, pertsona arrazializatuak, langile esplotatuak ikusezin egin nahi gaituzten milaka pertsona gara amildegira bultzatu nahi gaituztenak. Munduko ordena normatiboaren mandatuek zalantzan jartzen ditugunon bizitzak arriskuan daudelako... Babes sareak eraiki ditzagun, gorrotoaren murrak eraisteko.

'Familian jolasean' ekimenak goxatuko ditu neguko domekak

Urtarrilaren 12an egingo dute lehen saioa, Okendoko ludotekan, 0 eta 8 urte arteko haurrak dituztenentzat

E.A.B. ARRASATE

Etzi, urtarrilak 12, egingo dute *Familian jolasean* ekimenaren lehen saioa, 17:30etik 19:30era, Okendoko ludotekan. 0 eta 8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera bat da ekimena, "aniztasuna kontuan hartuta eta euskararen transmisioaren garrantzia azpimarratuta", udal ordezkariak azaldu dutenez. "Asmoa da neguko domeketan espazioa, denbora eta hitzordua eskaintzea familiei, elkarrekin partekatuzko jolasa eta kalita-

tezteko aisialdi hezitzailea". Hala, Txatxilipurdiko bi hezitzaileen laguntza egongo da, saioak dinamizatuzko eta familiek behar duten informazioa emateko.

Honako hauek dira hitzorduak: urtarrilaren 12an, 19an eta 26an; otsailaren 2an, 9an, 16an eta 23an; eta martxoaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean. Lekuari dagokionez, Okendoko ludotekan izango da, otsailaren 23an eta martxoaren 30ean izan ezik. Santa Marinako ludotekan eta Usaetxeko ludotekan egingo dituzte saio horiek.

Osasun mentalari buruzko hitzaldiak, hilero, ekainera arte

Arrasateko Udalak, Katearen Loturak elkarteak eta Ediren zentroak elkarlanean antolatuta, ekainera arte, hilero hitzaldi bat egingo dute osasun mentalari buruz. Lehena urtarrilaren 15ean izango da, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan: *Familiaren lekua; nork zaintzen du zaintzailea?*, Idoia Madarieta psikologoaren eskutik.



**ION
ANDER
CASTRO
ZABALA**

Era guztietako
aulkien konponketa
Zumezko
artikuluen salmenta

**TAPIZERIA
OROKORREAN**

**943 78 71 65
639 01 69 69**

Inbertsio nagusia, Santa Teresan

Aurrekontuko inbertsio esanguratsuenak:

- Santa Teresa auzoa urbanizatzea: 2.872.167,69 €.
- BAZeko bulegoak berritzea: 500.000 €.
- Argiteria publikoa LED sistemara pasatzea: 500.000 €.
- Erguingo Herri Eskolako teilatua konpontzea: 365.000 €.
- Bidegorriak egitea: 350.000 €.
- Ferixalekuko bi igogailuak berritzea: 292.000 euro.
- Asfaltatze-lan berriak egitea: 200.000 €€.
- San Andresko Gazte Txoko berria egitea: 168.500 €.
- Santa Marinako biblioteka handitu eta berritzea: 135.000 €.
- Ludoteka eta gazte txokoko inbertsioak egitea: 132.000 €.
- Etxezarreta parkea berreskuratzea: 125.000 €.
- Bizikletentzat aparkaleku berriak egitea: 100.000 €.
- Hirigintza taktikoa gauzatzea: 100.000 €.
- Bedoñabe eskolako patio berria egitea: 100.000 €.
- Santa Barbarako haur parkea egitea: 100.000 €.
- Iturbide aurrealdea berritzea: 91.000 €.
- Ondare historikoa berreskuratzea –Portaloia, Kontzezino eta Markuleteko labea–: 90.000 €.
- Alde zaharrean autoen matrikula irakurketa sistema ezartzea: 45.000 €.
- Gorostizako igogailuaren proiektua egitea: 40.000 €.
- Takolo Goiru proiektua berregokitzea: 40.000 €.
- Baserri-auzoetan inbertsioak egitea: 40.000 €.
- Tren geltoki zaharrean egingo duten Etxe Feminista berriaren proiektua egitea: 30.000 €.
- Gorostiza-Makatzenako estalpeen egiturak mantentzea: 30.000 €.
- Musakola auzoan estalki edo aterpe bat egiteko proiektua idaztea: 18.500 €.

Babes ofizialeko 66 etxe berri eraikitzeko nahia

Polmetasako lurretan etxeak eraikitzea gura du Arrasateko EAJk, eta, horretarako, Udal Gobernuari eskatu dio lursaila Eusko Jaurlaritzari uzteko. Gobernuak jakinarazi du 2025eko aurrekontuek aurreikusten dutela lursaila dohaintzan emateko aukera

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Arrasateko EAJk "aukera paregabea" ikusten du Arrasaten 131 etxebizitza eraikitzeko. Horretarako, batetik, Polmetasako lurak Eusko Jaurlaritzari uzteko eskatu diote Arrasateko Udal Gobernuari, han babes ofizialeko 66 etxebizitza egin ahal izateko –gaur egun apartalekuak hartzen duen espazioa izango litzateke etxebizitza horiek hartuko luketena–. Bestetik, Mesedetako ikastetxea izandakoan 65 zuzkidura-apartamentu egitearen aldeko apustua ere egin dute, *cohousing* proiektu bat eginda. "Horretarako, lehenengo urratsa Udalak eraikin hori tasatu eta erostea izango litzateke, ondoren Eusko Jaurlaritzarekin apartamentu horien eraikuntza negoziatu ahal izateko. Uste dugu pauso hori ahalik eta azkarren egin beharko lukeela Udal Gobernuak", adierazi du Ander Garayk, Arrasateko EAJren bozeramaileak. Etxebizitzarena "benetako arazo" dela uste dute jeltzaleek. "Gazteak inoiz baino berandua go emantzipatzen dira, eta horri irtenbideak eman behar zaizkio", dio Garayk. "Denis Itxaso Etxebizitza sailburuak adierazi du babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurak lehenbailehen eduki behar direla, eta udalerriek dituzten lurak uzteko, etxebizitzak eraikitzeko. Horrekin bat egin dugu".

Lursail hori edukita, "aukera bikaina" dela uste du Garayk etxebizitzak bertan eraikitzeko. "Nabarmenezkoa da etxebizitza mota horren eskaria %43,6 hazi dela, eta agintaldi honetan Udalak oraindik ez du lurzorurik eskaini babestutako etxebizitzaren sustapen berriak eraikitzeko. Bada garaia horretarako". Azken batean, "azken bi agintaldietan egindakoaren jarraipen bat" eskatu dute jeltzaleek. "Azken bi agintaldietan, EAJ eta



Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki nahi dituzten lursaila. GOIENA

UDAL GOBERNUAREN AURREKONTUEK AURREIKUSTEN DUTE LURSAILA DOHAINZAN EMATEA

PSE-EE Gobernuan zeudela, babes ofizialeko bi etxebizitza bloke egin zituzten: batetik, Txetaan 184 etxebizitza eraiki zituzten, 63 salmentakoak eta 121 alokatzeakoak; Garibain, berriz, hamabi zuzkidura-bizitoki egin dira. Horri jarraipena eman gurako genioke".

Lursaila, dohaintzan

Udal Gobernuak erantzun du esanez 2025eko aurrekontuek aurreikusita dutela, hain zuzen, Polmetasako lursail hori dohaintzan emateko aukera. "Izan ere, dohaintzaren aukera negoziatzeko asmoa erakusteko, Gobernuak ez du diru-sarrerarik aurreikusi lursail horren salmentan. Dena den, dohaintza ez da edonolokoa izango, eta baldintzak puntuz puntu negoziatzeko asmo garbia dugu", gaineratu du. Mesedetako ikas-

tetxeko planteamenduari buruz, halaber, zera dio Gobernuak: "EAJ jakitun da Udal Gobernuak gai horretan lanean ari dela; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dagoeneko bi bilera egin ditugu. Bileretan Arrasateko Udalaren izenean izan dira Maider Morras alkateta, Jasone Giraldo Ongizate zinegotzia eta Garazi Etxeberria Hirigintza zinegotzia. Aldundiaren ordezkaria izan da, beste teknikari eta zuzendari batzuen artean, Maite Peña Gizarde Politiketako diputatua. Mesedetako ikastetxea izan zen eraikinaren bideragarritasuna aztertzeke hitzordua izango dute Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak otsailean".

Etxebizitza alorrean, halaber, Udal Gobernuak gogorarazi du "etxebizitza politiketan emandako atzerapausoak eten eta etxebizitza politikak berreskuratzen" ari dela. Hala, azaldu du, esaterako, Arrasate Bizitegi Merkatuko Tentsio Handiko Eremu bezala izendatzeko lanak abiarazi zituela 2024ko urrian, eta diagnosiaren zein ekintza planaren berri emango duela aurreratu du.



GOIENA

Errege Magoak herriko kaleetan

Arrasate pasealekuan hasi eta herriko kaleetan zehar ibili ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar herritarrak agurtzen. Hartu zuten tartea umeak altzoan edo ondoan hartu eta eurekin egoteko; baita eskutitzak hartu edo gaztetxoenen desioak zeintzuk diren entzuteko ere. Ostean, Herriko Plazan gozokiak banatuz agurtu zituzten herritarrak.



IMANOL SORIANO

Mararen gaitza ikusarazten

Lau urte bete berri ditu Mara San Jose arrasatearrak. Batten gaixotasun arraroa du, CLN1 motakoa. Gaixotasunari ikusgarritasuna emateko helburuarekin eta dirua jasotzeko asmoz, Mararen aldeko eguna ospatu zuten; Erraldoi eta Kilikien Konpartsa, Trikitixa Eskolakoak eta Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeak izan ziren, besteak beste.

Martxan da Ekin Emakumeak-en Jabetza Eskola

Dagoeneko zabalik dago Ekin Emakumeak elkarteak antolatutako ikastaroetarako izena emateko epea. Alde batetik, Yintao ariketen ikastaroa egingo dute, Kontxi Garmendiaren gidaritzapean. "Nork bere burua sendatzeko gaitasuna garatzeko, estresa eraldatzeko eta barne bakea lantzeko tailerra" izango da, elkarteak jakinarazi duenez.

Bestalde, Michelle Lenoirrek gidatutako jostintza ikastaroa ere egingo dute. Ikastaroetako saioak urtarrilean hasi eta martxora arte egingo dira, eta ordu-tegien eta prezioen gaineko informazio guztia eskuragarri dago Ekin Emakumeak elkartearen sare sozialetan. Ikastaroetan izena eman daiteke Ekin Emakumeak elkartearen egoitzara joanda, 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoetara deituta edota emakumeak@ekinmakumeak.eus helbidera mezu bat bidalita.

"Konfiantza lortzea da epe laburreko helburua"

JORGE DAVILA MONDRAKO GIZONEZKOEN TALDE NAGUSIKO ENTRENATZAILEA
Abenduaren 2an hartu zuen Ohorezko Erregional Mailako taldea gidatzeko ardura; Zuzendaritzak etxean topatu du egoerari buelta emateko entrenatzailea

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Kargua hartu zuenetik bi berdinketa lortuta eta Gabonetako etenaren ostean, puntuak pilatzen hasteko ilusioa eta gogoia transmititu die jokalariei Jorge Davilak (Arrasate, 1978). Zapatu honetan, Anaitasuna jasoko dute Mojategin, 16:30ean; asteotan egindako lana zelaian islatzea dauka begiz jota.

Aloñaren aurkako porrot mingarriaren ostean iritsi zinen aldage-lara; nola aurkeztu zinen jokalarien aurrean?

Lasaitasunetik eta konfiantzatik hitz egin nien, argi baitaukat bolada ona harrapatzeko argudioak egon badaudela. Udan inor gutxi esango zuen orain egoera honetan egongo ginenik. Edonola ere, klubak Xuban Epelde entrenatzailearen ordezkia bilatzeko erabakia hartu zuen, kategoria galtzeko arriskua ikusi zuelako. Saikapenean azken hirugarrenak gaude orain; beraz, aurrerapausoa ematea da epe laburreko helburua. Erronka hori ilusio eta lanarekin lortuko dugu, gogor saiatuta. Hemendik eta denboraldia bukatu arte, itzuli oso bat gehi bi partidu geratzen zaizkigu; hortaz, badugu salbazioa lortzeko eta denboraldia lasai bukatzeko astia eta gaitasuna.



Jorge Davila, Mojategiko futbol zelaian. H.L.H.

Zertan hobetu behar da partiduak irabazteko?

Konfiantza kolektiboa berreskuratzea beharra daukagu. Iaz, Preferente Mailan nahi bezala aritu zen talde hau, eta, jokalaria batzuk aldatu diren arren, blokea mantendu egin da. Denboraldi hau ondo hasi zuten, baina partiduek ihes egiten zuten gero, gol bakarreko aldearekin sarri, eta dinamika txarrean murgildu zen taldea. Orduan agertzen dira urduritasuna, beldurra...

Duela bi denboraldi gertatu zena errepikatzeko mamuak...

Nahi eta nahi ez, azken jaitsierako mamuak agertzen dira. Minduta daude jokalaria asko eta min hori energia bihurtzen saiatu behar dugu. Hori kudeatzen gabiltza. Gu oso positibo agertu gara lehenengo egunetik. Maila mentalean eman behar dugu aurrerapausoa, astez aste lan intentsoa eginda. Jokalari onak dauzkagu, eta ausardiaz jokatzeko eskatu diet, norbere buruarengan eta ondokoarengan konfiantza osoa izateko. Kolektiboki golera heltzeko ahalik eta aukera gehien sor-

tzean daukagu burua; zelaian dauden hamaika jokalariek lortzen dute hori, atezainetik aurrelariara.

Zure bigarren aroa izango da Mondraren aulkian, 2017tik 2019ra bi denboraldi eta erdi egin baitzenituen; azken bost urteotan pista galdu dizugu apur bat...

Esango nuke duela bost urte baino esperientzia handiagoko entrenatzailea naizela. Eboluzionatu egin du futbola bizitzeko nire moduak. Mondratik irten nintzenez aukera ikusi nuen Madrilen Taldeen Zuzendaritza, Entrenamendua eta Metodologia Masterra egiteko, eta oso esperientzia polita eta onuragarria izan zen. Gero, Eibarrek fitxatu ninduen, eta hiru urtez jardun dut Gazte mailako Nazional Ligako taldearekin. Ikasteko aukera handia eman dit, egitura profesionalago baten baitan, exijentzia ere handiagoa zelako.

Eta iazko udan etxera buelta berri.

Eibarko egonaldiak ez zuen aurrera jarraitu, eta Mondran laguntzeko aurkeztu nuen neurua. Izan ere, lehen etapan lagun asko egin nituen, eta kanpoan egon naizenez ere beti izan dut begi bat klubean jarrita. Alebinekin eta kadeteekin aritu naiz abuztutik abendura. Orain, kadeteak zuzentzeari utzi diot, eta buru-belarri nabil seniorrekin.

Aldamenean ere etxeko jendea daukazu.

Laguntzaile dabil Aritz Uribe-salgo, eta gazte mailako entrenatzaile lanekin uztartzen du eginkizuna. Beharrezko lana egiten du lehen taldean. Uxue Ezpeletak jarraitzen du fisioterapeuta eta Gorka Ibarguenek delegatu. Jende ona daukagu

klub barruan, eta, entrenatzaile aldatu arren, gainontzekoek lehenengo karguetan dihardute. **Zer-nolako entrenatzailea zarela esango zenuke?**

Oso pasionala naiz, pasioak eta ilusioak mugitzen naute. Ia kategoria guztietatik pasatu naiz Mondran, eta Eibarren hasi nintzenez jabetu nintzen saiatu behar nuela kirol arloari denbora gehiago ematen. Esaterako, Realarentzako egiten ditut koordinazio lan batzuk. Bestetik, lanbidez arkitettoa naiz, jarraitzen dut horretan ere. Hori esanda, eta entrenatzaile hasi nintzenetik urteak pasa diren arren, futbolarekiko dudana ilusioak eta pasioak berdina izaten jarraitzen dute.

Eta zure taldeei zer eskatzen diezu gehien?

Partiduak galdu edo irabazi ditzakezu, baina nik nahi dudana da taldeak zelaian partidua irabazteko eta ez galtzeko gauzak egitea, ahalik eta minutu gehienetan eta ahalik eta intentzio handienarekin. Nire lana hori da. Hori, eta momentu honetan kontu taktiko eta futbolistiko urgenteenei heltzea. Ea prozesu honek noraino eramaten gaituen. Epe luzeagora begira, gustatuko litzaidake Mondrak joko-molde bat transmititzea momentu oro zelaian. Baina esandakoa, orain garrantzitsuena puntuak pilatzea da. Ea denboraldia amaitzen denean tonu alaiago batean egin dezakegun elkarriketa, seinale ona izango da, ziur.

"ZELAIAN AUSARDIA HANDIAGOAREKIN JOKATZEKO ESKATU DIET JOKALARIEI, GAI DIRA ETA"

Kirolariei ikusgarritasuna emateko bideopodcasts, abian

Alberto Narro arrasatearrak 'Ave Fenix' proiektua sareratu du Youtube eta Ivoox plataformetan

H.L.H. ARRASATE

"Gabezia bat estaltzeko" beharretik sortu zitzaion Alberto Narrori *Ave Fenix* proiektua sortzeko ideia. "Kirolari apartak ditugu gurean, baina faltan sumatzen nuen haiekin patxadaz

hitz egiteko ikus-entzunezko saio bat. Modu autodidaktan formatu naiz teknikoki, eta estudio batean egiten ditut elkarriketak, aukera daukadan eta interesa pizten didaten pertsonekin", azaldu du Narrok.

Kirola baino gehiago

Maidar Unda, Izar Bedia eta Malen Osa gonbidatu ditu orain arte. Galdera bitxiekin ere harritzen ditu elkarriketatuek, gustatu egiten baitzaizkio kontu parnormalak. Emakume kirolariei ikusgarritasuna ematea da proiektuaren helburuetako bat, baina ez da horretara bakarrik mugatzen: "Aurrekoan, esaterako, Manu Gomez zinemagilearekin egoteko aukera izan nuen, eta laster, misterioan aritua den Enrique Etxezarra etorriko da".



Izar Bedia eta Alberto Narro, *Ave Fenix* saioaren grabaketan. ALBERTO NARRO



Paco Leon eta Maia Zaitegi aktore arrasatearra, *Sin instrucciones* filmean. LA PEPA FILMS

Maia Zaitegiren film berria, zinema-aretoetan

Marina Sereskyk zuzendu duen 'Sin instrucciones' komedia dramatikoko protagonista da Arrasateko aktore gaztea; Paco Leon eta Silvia Alonso izan ditu, besteak beste, bidelagun, "asko gozatu duen" haren ibilbideko bigarren lan luzean

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE
Sevillako Zinemaldian estreinatu zuten, azaroaren 11n, eta abenduaren 25a ezkerko zinema-aretoetan dago ikusgai. Debagoieneko aretoetara oraindik heldu ez bada ere. "Dagoeneko hiru alditan ikusi dugu. Ez gara oso objektiboak, seguruenik, baina asko gustatu zaigu. Istorio oso polita dago atzean, aitatasuna eta amatasuna zer den, zer den maitasun hori.... Gainera, barre ere egiten da; beraz, polita iruditu zaigu. Eta jaso ditugun iritziak oso positiboak izan dira. Oso pozik gaude", azaldu dute Mararen guraso Iker Zaitegik eta Jaione Uriartek.

Film horretan izan dituen bi- zipenekin alaba aktorea ere pozik dagoela diote gurasoek: "Oso eroso sentitzen da grabatzen, eta emaitzan hori antzeman egiten dela iruditzen zaigu guri. Bere burua pantailan ikustea ere oso natural bizi du. *Alba* da Mararen pertsonaia; neska az-

karra da, maitagarria eta dibertigarria, eta Maia ere horrelakoa da; alde horretatik, uste dugu erraza izan dela harentzat pertsonaian sartzea".

Lantaldearen babesean

Paco Leon eta Silvia Alonso aktoreekin egin du, bereziki, lan Maia Zaitegik, eta "mimo handiz" zaindu dutela kontatu dute gurasoek: "Oso gertukoak eta jatorrak dira. Errodajeen ordu asko egiten dute elkarrekin, eta, ondorioz, tarte asko dituzte elkarrekin partekatzeke, eta denak izan dira -kamera atzekoak zein aurrekoak- zentzu horretan zoragarriak. Pacorekin eta Silviarekin sekuentzia asko partekatzen ditu, eta emozio handikoak

'SIN INSTRUCCIONES'
FILM LUZEKO
PROTAGONISTA DA 10
URTE DITUEN
ARRASATEARRA

horietako asko. Bat gehiago izan da Maia eurekin, horrela tratatu dute, harekin jolastu dira, haren istorioak entzun dituzte, haienak kontatu dizkiote... Oso erraza izan da eurekin lan egitea. Horrez gainera, Alazne Etxebarria *coach*-a izan du une oro alboan, eta asko eskertu dugu hori ere".

Zinemagintzan "gogotsu"

La ermita izan zen Arrasatekoak parte hartu zuen lehenengo film luzea, baina handituz doa zerrrenda: "*Angela* telesaila egin du, eta beste bi filmetan paper txikiak ere bai. Aurrera begira, badago proiekturen bat, baina, momentuz, ezin dugu ezer esan. Argi daukagu ez dizkiogula hegoak moztu nahi eta hark mundu hau bizi duen pasioaz bizita ez diogula aterik itxiko, baina guraso bezala badagokigu beste aspektu asko ere kontuan izatea, eta oreka topatzea. 10 urte ditu, eta haurra izateko denbora izatea oso garrantzitsua da".

Euskal Herriko 30 irudi, askotariko argazkilariek jasota

Artgazki elkartearen 'Euskal Herria zure begietatik' erakusketa, Kulturaten, gaur hasi eta urtarrilaren 25era

A.A.J. ARRASATE

Herriko argazkilarien elkarteak (Artgazki) antolatutako azken lehiaketaren emaitza da gaur, egubakoitza, hasi eta urtarrilaren 25era bitartean Kulturaten izango den *Euskal Herria zure begietatik* erakusketa. "Autorearen begiradatik euskal tradizioa, kultura, paisaia eta bestelako gaiekin lotutako argazkiak bilteza izan da asmoa; hori horrela, guztira 108 argazki jaso ditugu, 37 autorek bidalita. Euskal Herriko txoko askotatik jaso ditugu; gehienak, herriko eta eskualdeko artistek egindakoak", azaldu du Artgazki elkarte kide Anibal Carmonak.

Teknikaz eta konposaketaz gainera originaltasuna eta argazkilaria ikuspegi propioa aintzat hartuta hiru sari banatu dituzte gaineratu du: "Bilboko Pedro Luis Ajuriagerra-

rentzako izan da lehenengo saria, Arrasateko Iurgi Indarentzako bigarrena eta Donostialdeko Luis Fernando Anzak eskuratu du hirugarrena".

Salmenta solidarioa

Lehiaketako argazkien aukeraketa eginda, 30 argazki izango dira Kulturateko bilduman ikusgai. "Argazki horiek salgai izango dira, 35 eurotan bakoitza. Hastapenetatik elkartearen helburua da, argazkilaritzaren hedapenez gainera, Arrasateko bestelako elkarteekin kolaboratzea. Aurreko aldietan Aspanogi elkarteari eta errakismoa duten senitaratekoen AERYOH elkarteari eman diegu batutako dirua, eta oraingoan, CLN1 motako Batten gaixotasun arraroa duen Mara San Jose Arrasateko haurrari laguntzeko ematea erabaki dugu".

Solasaldiak, idazketa tailerrak eta ipuin kontaketak aukeran

Euskarazko sormen idazketan trebatu gura duenak Miren Amuriza Plazaren eskutik izango du aukera; izan ere, Arrasateko Udal Bibliotekak antolatuta, hastapen tailerra eginda dutenendako saktontze ikastaroa abiatuko dute urtarrilaren 14an. Lau saio egingo dituzte guztira, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea zabalik dago.

Askotariko solasaldiak egingo dituzte: Komiki Klubeoek *Yo no soy Mikel Laboa* liburuari buruz jardungo dute, urtarrilaren 15ean, 18:00etan, Joseba Larratxe gonbidatuta; ingelesezko taldean *Breakfast at Tiffany's* aztertuko dute, urtarrilaren 21ean; gaztelarazkoek *La plaza del diamante*, hurrengo egunean; eta euskarazko taldean, *Ulu egiteko bolondres bila*, urtarrilaren 30ean.

Bi ipuin kontaketa ere izango dira: urtarrilaren 23an eta 30ean.

Gernikako Audience taldearen kontzertua datorren egunean

Bilboko Moonshakers taldeak zabaldu zuen, atzo, Arrasateko gaztetxeke eguneneko Kooltur Ostegunak musika zikloa, eta eskarmentu handiko Gernikako Audience boskotea gonbidatu dute urtarrilaren 16rako. Mungiako Pi LT taldea izango da urtarrilaren 23an eta Esanezin taldeak borobilduko du urtarri-leko eskaintza.

Datorren astean hasita, tailugintzan trebatzeko ikastaroa

Arrasateko Tailaginen Elkarteak (ARTE) zura zizelkatzen ikasi gura dutenendako hastapen ikastaroa antolatu du. Araba etorbideko 13. zenbakian dagoen egoitzan egingo dute, urtarrilaren 14an hasita, martitzena. Ateak zabalik dituzte edonorendako; izena emateko, deitu 628 05 50 84 (Iñaki) edo 600 45 79 45 (Jose Mari) telefonoetara.



Bertso saioan parte hartuko duten Alaia Martin, Amets Arzallus, Ane Zuazubiskar eta Gorka Pagonabarraga. 'BERTSOZALE.EUS'

Guztia prest daukate gaurko bertso saiorako

Urte berriko bertso saioa egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 20:00etan. Bertan parte hartuko dute Alaia Martinek, Amets Arzallusek, Ane Zuazubiskarrek eta Gorka Pagonabarragak, eta Sabin Abarrategik aurkeztuko du aurtengo saioa

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Urte asko dira Aramaio bertso eskolak eta Udalak elkarrekin Gabonetako bertso saioa antolatzen dutena. Iaz, estreinakoz, urtarrilean egin zuten bertso saio hori, abenduan egin beharrean, eta aurten ere formula bera errepikatuko dute, gaur, egubakoitza, izango da eta bertso saioa, kultura etxean, 20:00etan hasita.

Saio horretako ezaugarrietako bat da parte hartzen duten lau bertsolarietatik bat Aramaio bertso eskolako kide dela, eta aurten Ane Zuazubiskar izango da. Lehenengoz abestuko du Gabonetako Aramaio saioan, nahiz eta arrasatearra "etxeko" bertsolaria izan. Eta harekin batera lehenengoz parte hartuko du saio horretan Gorka Pagonabarraga bertsolariak ere, nahiz eta herrian aurrez abestu izan duen. Eurekin batera ohol-tzan izango dira Alaia Martin eta Amets Arzallus bertsolari ezagunak.

Aurkezle lanak, berriz, Sabin Abarrategik egingo ditu eta gaiak bertso eskolako kideek pentsatutakoak izango dira. Bertso eskolako kide Xabi Igoak adierazi du azken astean "buru-belarri" ibili direla lan horretan, egubakoitzeko saiorako guztia prest izateko. Gaineratu du errendako saio "berezia" dela gaurkoa: "Gaurkoa guretzako da urtero Aramaion egiten den aretoko saio bakarra. Azkenengo urte mordoxkan antolatu izan duguna, Udalarekin batera, eta bada berezia, zelanbait, beste mugarri bat delako urtero gertatzen dugun agendan".

Sarrerak bertan salduko dituzte, saioa hasi baino lehen, 5 eurotan.

ARAMAION URTERO EGITEN DEN ARETOKO SAIO BAKARRA EGINGO DUTE GAUR, KULTURA ETXEAN

Santa Agedarako entseguak

Bertso saioaren amaieran, errendako beste mugarri bat den Santa Ageda batzea iragarriko dute. Bertso eskolakoek gain, Papargorri abesbatzak, Alaiak kantu taldeak eta Trikitixa Elkartek antolatzen dute elkarrekin, eta otsailaren leian, zapatua, aterako dira baserri baserri kantuan. Bertan parte hartzeko entsegu egunak iragarri dituzte: urtarrilaren 23an eta 30ean egingo dituzte, musika etxean, 19:00etan. Eta otsailaren leian bazkaria egingo dute Iturrietan. Bi menu daude aukeran –helduena 29 eurotan eta umeena 16 eurotan–. Eta izena eman behar da Internet bitartez zabaldu duten formularioa beteta, urtarrilaren 26a baino lehen.

Arabako Kuadrill Artekoa

Horren ostean, otsailean hasiko da Araban Kuadrilla Artekoa, eta Aramaio bertso eskolako hiru taldek hartuko dute parte aurten.

Bittor Mendialdua omendu dute Bizente Goikoetxeak

Organo-jole aramaioarra eskertu nahi izan dute abesbatzakoek, urte askoan euren bidelagun izateagatik

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Bittor Mendialdua organo-jole aramaioarrak 91 urte beteko ditu aurten, eta Bizente Goikoetxea abesbatzakoek orain artean euren alboan egin izan duen lan guztiagatik eta gaur egun ere eurekin organoa jotzen jarraitzeagatik eskertu nahi izan dute Mendialdua.

Gabonetan abesbatzak eskaini zuen kontzertuan esker hitzak izan zituzten Mendialduarendako, eta lore sorta oparitu zioten bertan, eskertza moduan. Anton Herrarte zuzendariak adierazi

du "lan oso ona" egiten jarraitzen duela gaur egun ere, eta beti dagoela laguntzeko prest.

23 urterekin hasi zen organo-jole lanetan, eta, 67 urte geroago, gaur egun ere organo-jole jarraitzen du, bai herriko elizan, baita Bizente Goikoetxea abesbatzarekin ere.

Abesbatzako kide den haren emazte Pilar Irasuegik esan du "sorpresaz" jaso zuela omenaldia Mendialduak, ez baitzuen halakorik espero: "Hitz barik gelditu zen, poz izugarriarekin. Ilusio handia egin zion".

Nikolas Gardoki hil da

Abenduaren 23an zendu zen, 86 urterekin, Nikolas Gardoki musikari aramaioarra. 50eko hamarkada amaieran hasi zen soinua jotzen, eta Eguzki erromeria taldea sortu zuen. Hileta elizkizuna Barajuen auzoko Andra Mari elizan egin zuten, eta Udalak "Aramaio herriari eta, oro har, musikari emandako guztiagatik" gogoratu nahi izan du.



GOIENA



ANDER YUSTE

3D inprimaketa ezagutzen

PuzzleKaxa 3D inprimaketa heziketa-tailerra izan da Gabonetan Aramaion. Bertan, 3D inprimatzei buruzko informazioa zuzenean jasotzeko aukera izan zuten herritarrek, eta jolaserako puzzle eta 3D buru-hausgarriak ere izan ziren. Antolatzaileek adierazi dute ekitaldiaren momentu politena iritsi zela adineko pertsonak parte hartzera animatu zirenean.

"Ghanako motibazioak bat egitera bultzatu gaitu"

IZARO ARETXAGA HIRUATX GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEKO KIDEA

Afrika hegoaldean dagon Asuoya udalerriko Lanbide Heziketa Eskolan eguzki-plakak jarriko dituzte, eta Fagor Herrigintza ekimenetik dirulaguntza jaso dute horretarako

Mirari Altube ARETXABALETA

Hiruatz GKEk Ghanan abiatu du hurrengo lankidetzako proiektua; plaka fotovoltaikoak jarriko dituzte herrialde hartako Lanbide Heziketako zentro batean. Horretarako, Fagor Herrigintza programaren bitartez 60.000 euroko dirulaguntza jasoko dute. **Ameriketan diharduzue lanean, eta orain, Afrikara itzuliko zarete.**

Azken urteetan Hego Amerikan gabilta, proiektu politik egiteko aukera izan dugulako. Proiektuz proiektu egiten dugu lan. Hau da, zabalik gaude herrialde edo ekimen berrietara; betiere, gure balioekin bat badatoz. Orain dela bi urte, Hiruatzeko kide bat Ghanan izan zen eta proiektua bertatik bertara ezagutu zuen. Eskolaren eraikuntza lanak hasita zeuzkaten, baina jarraitzeko laguntza gabe zeuden. Komunitatearekin hitz egin, beharrak atzeman eta taldeak zeukan motibazioa ikusita, proiektura batzea erabaki genuen. Hola Love Ghana GKEekin elkarlanean jardungo dugu.

Ghanako hegoaldeko Asuoya herriaren garatuko duzue; zein ezagarririk dugu?

Herri txiki bat da Asuoya; biztanle gehienak nekazariak dira, eta bizilagunen arteko harremanak, familiaren garrantzia eta tradizioekiko lotura nabarmendu daitezke. Azken urteetan Ghanak izan duen garapen handia horrelako herrietara iristea zaila izaten ari da, dauzkaten erreminta ekonomiko eta sozialak oso ahulak direlako. Ondorioz, gazte gehienek ez daukate etorkizuna erabakitzeko ahalmenik, ezta lanbide bat ikasteko aukerarik ere. Eta, noski, emakumeen kasuan, are eta zailagoa da familiarik kanpo aurrera egitea. **Lanbide Heziketa zentro batean eguzki-plakak jarriko dira.**

Asuoyan elektrizitate arazo handiak dituzte. Argindar sarea badagoen arren, egunero daukate argi-mozketak; izan ere,



Oier Sarasua, Izaro Aretxaga, Oihana Arietaleanizbeaskoa eta Aiora Padilla. HIRUATX

"GAZTEEK EZ DUTE LANBIDE BAT IKASTEKO AUKERARIK, ETA EMAKUMEENTZAT ARE ETA ZAILAGOA DA"

Ghanan sarea saturatzen denean, hiriek daukate lehentasuna, eta herri txikiak argindar gabe gelditzen dira. Batzuetan, egun osoz. Eskolaren funtzionamendua bermatzeko elektrizitate iturri fidagarria behar dute, eta horregatik erabaki genuen eguzki-panelak eta bateriak instalatzea.

Horrekin zer lortu gura da?

Proiektu horren zuzeneko onuradunak gazteak diren arren, komunitate osoaren bizi-kalitatean eragitea da helburua. Epe luzera, komunitatearen beharretara egokitutako prestakuntza-programak garatu nahi ditugu; esaterako, emakumeei bideratutako espazio bat. Bestalde, Aretxabaletan eta inguruetan ere proiektua landu nahi dugu, gazteekin. Energia berriztagarrien garrantziaren inguruan hausnartu eta proiektuaren

parte izan daitezen aukera oso polita dugu.

Zenbat iraungo du?

Oraingoan, hiru urterako zehaztu ditugu helburuak. 2024an hasi ginen, eskolaren eraikuntza lagunduz, eta 2026an, eguzki-panelen instalazioarekin bukatuko ditugu lanak. Ordurako eskola martxan izatea espero dugu!

Fagor Herrigintzatik jasoko duzuen laguntzarekin pozik?

Oso pozik! Elkarte txiki bat gara eta horrelako proiektu batean sartzea erronka handia da guretzat. Fagorrek bazkideek gudan jarritako konfiantzak motibazio handia eman digu; eskerrik asko! Gainera, jende askorengana iristeko aukera izan dugu, proiektua ezagutzera eman eta Ghanako errealitate pixka bat gerturatzeko. Argi eta garbi esanda, proiektuari beste dimentsio bat eman dio.

Herritarrek ere egin ditzakete ekarpenak, ezta?

Bai, noski! Proiektua hasi berterik ez da egin; parte hartu nahi duen edonoren laguntza ongi-torria izango da. Horretarako, jarri gurekin harremanetan: hiruatz@yahoo.es edo Instagram bitartez.



Eraikitzen hasi aurreko ekitaldia ospatzen Mbam-en. YAAKAR ELKARTEA

Informatika gela eraikiko dute Senegalgo Mbam udalerrian

Yaakar elkarteak bideratu du proiektua, Aretxabaleko eta Eskoriatzako udalen dirulaguntzari esker

M.A. ARETXABALETA

Senegalgo Mbam udalerriko eskolako informatika gela eraikitzen hasiko dira. Aretxabaleko Yaakar elkarteak bultzatutako proiektua da eta Aretxabaleko eta Eskoriatzako udalen finantzatuko dute.

ikasleak Aretxabaleko Lanbide Eskolako eta Arizmendi Ikastolako ikasleekin bideokonferentzien bitartez harremanetan jarriko ditugu".

Gazteen arteko loturak estutzea ere badago helburuen artean: "Jarduera horri esker, bi herrialdeetako gazteek euren kezkek eta beharrak partekatzeke aukera izango dute. Asmoa da kanal bat irekitzea hain desberdinak diren bi komunitate harremanetan izateko". Ikasgela hori hezkuntzarekin lotutako beste proiektu batzuen abiapuntua izango da, Yaakarkoen iritziz.

Ikasketak osatzeko laguntza

Behin ikasgela gertu dagoenean adituen laguntza jasoko dute, Yaakar elkarteak ikasleekin esantzen: "Informatika ikasketak jasotzen, Mondragon Unibertsitateko bi ikasleren laguntza izango dugu. Gainera, Mbamgo



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA ARANBURU

Sinpletasunaren xarma

Aurtengo Gabonetan kanpai-hots eta petardo eztegi bako bako gehiago entzun ditut frontoiko pilotakadak. Kuadrillan ohitura bihurtu zaigu *infantil goxoa* pilota hartu eta inguruko frontoia bisitatzea: Larrino, Zubillaga, Araotz edo Iturrigorri. Banaka, binaka, kaiolan edo frontoi guztian. Pilota, horma eta lagunak. Ez da behar tresna modernorik, ez teknologia sofistikatorik, eta, nire esperientziatik hitz eginda, ezta pilotan askorik dakienik ere. Denok eskura daukagun zerbait da, eta, hain zuzen, kontsumismoaren legeetatik aldenduz, pilotak errotik gogorarazten digu sinpletasunaren xarma.

Tradizio hau osagai liturgiko garrantzitsu batek biltzen du. Gaztetan bezala, 16:30ean frontoian geratzea; aurretiko pilota aukeraketa; bikoteak aukeratzeko "*pies, pies fuera*"; norgehiagoka osteko tragoa... Hori da pilotaren magia; eta horrek urrea balio du.

Baina bueno, Instagramen ikusi dudana, eskia hau guztia baino hobea izango da...

Liburuen eta diskoen azalak, beste era batean

Kurtzebarri institutuko eta Arizmendiko Almen guneko 49 ikaslek euskal idazleen eta musikagileen lanak oinarri hartuta beste azal bat osatu dute, irudimena lagun; lan horiek Udal Liburutegian jarri dituzte eta otsail bukaera arte egongo dira ikusgai

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Sormena eta literatura uztartzen dituen proposamena egin zien Durangoko Azokak ikasleei: euskal idazleen edo musikagileen lanen azalei jarraipena emanez, gazteek beste azal bat osatu eta argazki bidez jasotzea. Kurtzebarri Institutuko eta Arizmendi Ikastolako Almen guneko hainbat ikaslek egin zuten bat deialdi horrekin, eta abenduan egingadako lan horiek ikusgai jarri dituzte orain, Udal Liburutegian.

49 sormen-lan

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 49 ikaslek utzitako lanak jaso dituzte, "lan xumeak" baina mimo handiarekin egindakoak asko. "Haien lanei erakusleihen bat eskaini gura izan diegu; izan ere, sormen eta irudimen handiko lanak daude", adierazi du Nerea Altuna liburuzainak. Batzuek liburu azalak hartu dituzte oinarri eta beste batzuek, diskoak, eta lan horiekin helduen liburutegiko paretak atondu dituzte. Otsail bukaera arte egongo dira ikusgai han. Altunak zera gaineratu du: "Horiek ikusteaz gain, lanetako protagonista diren liburu eta diskoak maileguan hartzeko aukera ere badago liburutegian, inork interesa izanez gero".

Literatura solasaldia

Bestetik, literatura solasaldiei jarraipena emango diete urte berriarekin batera. Hilabeteko lehen eguaztenetan elkartzen da gaztelaniazko irakurketa taldea, Monica Leiva idazle eta kazetariaren esanetara: otsailaren 5ean, Santiago Lorenzoren *Los asquerosos* liburua izango dute hizpide; eta martxoaren 5ean, Emilia Pardo Bazanaren *El encaje roto*.

Euskarazko taldeak, ostera, hilabeteko bigarren egunenetan du hitzordua. Hilaren 16an, Karmele Jaioren *Maitasun kapitala*

lanaren bueltan jardungo dute, Mikel Antzak gidatuta: otsailaren 13an, Canoren, Iturriagaren eta Larratxeren *Ni ez naiz Mikel Laboa* komikia izango dute hizpide; eta martxoaren 13an, Marlene Haushofer idazlearen *Horma*.

Ipuin kontaketa

Umeek, ostera, ipuin kontaketa saioa izango dute urtarrilaren 15ean, 17:30ean, Txiki Txokoan. Ixabel Agirresarobek kontakutako dizkie, 4 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoei. Gonbidapenak liburutegian dituzte, agortu arte.



Liburutegian jarritako ikasleen hainbat lan. MIRARI ALTUBE

Hirugarrenez deitu dute Aitor Sarasua bertsopaper lehiaketa

Bertsularien Lagunak elkarteak antolatu du, Udalarekin batera, eta otsailaren 21era arte aurkez daitezke lanak

M.A. ARETXABALETAKO

Abian da III. Aitor Sarasua bertsopaper lehiaketa, Bertsularien Lagunak eta Aretxabaletako Udalak antolatuta. Hiru maila osatu dituzte, adinaren arabera: helduek –2007a aurretik jaiotakoak– sei eta hamar bertso artean egingo dituzte; gazteek –2008 eta 2011 urte artekoak–, lau eta zortzi artean; eta umeek –2012 urtera artekoak–, bi eta lau bertso bitartean. Gaia, neurria eta doinua libreki izango dira guztientzat.

Lanak otsailaren 21erako bidali beharko dira, honako helbide honetara: sarasua.lehiaketa@gmail.com. Epaiaren berri martxoaren 14an emango dute. Lekaixoka bertso eskolako, Arizmendi Ikastolako eta Kurtzebarri eskolako ikasleek parte hartuko dutela azpimarratu dute.

Sariei dagokienez, maila bakoitzean lehenengo sailkatutako



Aitor Sarasua zena. 'BERTSOA.EUS'

biek jasoko dituzte: helduen artean, 300 euro eta 150 euro, hurrenez hurren; gazteen artean, Elkarren erabiltzeko 100 euroko eta 50 euro bonuak; eta umeen artean, kirol-jertsea eta kamiseta eta Xilaba txapelketako finalerako sarrerak.

Kanuto Deunaren Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

25 urte pasatu dira Kanutoren omenezko ospakizuna antolatzen hasi zirenetik Aretxabaletan, eta, hori gogoan, jaia antolatu dute urtarrilaren 18rako. Taberna Berri jatetxean elkartuko dira bazkaltzeko, eta txartelak dagoeneko salgai dituzte Kixkor tabernan, 25 eurotan. Zeliakoek eta beganoek alde aurretik jainarazi beharko dute.

Zeramika tailerrak antolatu dituzte ume eta helduendako

Zeramika tailerrak egiteko asmoa du Udaleko Kultura Sailak, eta izena emateko epea zabalik dago; urtarrilaren 16a izango da azken eguna, eta Arkupera jo beharko da. Astelehenetan izango dira saioak: helduenak –15 urtetik gorakoak– 15:00etatik 17:00etara; eta umeenak –8 eta 14 urte artekoak– 17:30etik 19:00etara.

RPS: 136/24 AZA-HARA-HUELMOS • ELKARRO, ZEIB, 40000-007

**INPLANTOLOGIAN ESPERIENTZIA
HANDIKO AHOLKU-EMAILEAK GARA
3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETAKO • TEL.: 943 79 93 55



Eskoriatzako osoko bilkuren aretoan, abenduko ezohiko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI UNAMUNO

6,3 milioi euroko aurrekontua izango du Eskoriatzako Udalak

"Arau fiskala aplikatu denez baldintzatutako aurrekontuak" direla adierazita, 6.346.000 euroko aurrekontua izango du Eskoriatzako Udalak 2025ean. Udal Gobernuaren proposamenaren aurka bozkatu dute oposizioko kideek, EAJko kideek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko urteetan aplikatu ez duen arau fiskala aplikatuko duenez, baldintzatutako aurrekontua izango dutela 2025ean azpimarratu du Eskoriatzako Udal Gobernuak. Hori horrela, EH Bilduk egindako proposamena onartuta geratu da, baina, ezezko botoa eman dio alderdi jeltzaleak, "Eskoriatzaren alde egiten ez duten aurrekontuak" direla adierazita.

"Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak arau fiskala indarrean jarri du, eta, defizita izan dugunez, plan ekonomiko finantzarioa egin beharko dugu hurrengo urtean. Gainera, inbertsioetan geotruke sistemaren gastuak izango ditugu, eta, horren ondorioz, inbertsioetarako tarte txikia geldituko da", adierazi du Xabi Uriartek, Eskoriatzako EH

Bilduko bozeramaileak. Guztira, milioi bat euroko -1.023.660 euro-aurrekontua bideratuko dute Luis Ezeiza Herri Eskolako erakineria eta Manuel Muñoz kiroldegira, geotermia sistema jartzeko lanetara, eta EVeren (Energiaren Euskal Erakundea) laguntza milioi erdi ingurukoa izango da -573.502,50 euro-.

Uriartek gaineratu duenez, oraindik urtearen itxiera egin behar da, eta ostean ikusiko dute zein tarte gelditzen den inbertsioetarako. "Tartea baldin badago, San Pedro auzoko irisgarritasuna hobetzeko proiektua

100.000 EURO INGURU BIDERATUKO DITUZTE SAN PEDRO AUZOKO IRISGARRITASUN LANAK HOBETZERA

lehenetsiko da", adierazi du Xabi Uriartek, EH Bilduko bozeramaileak.

Igogailua San Pedro auzoan 100.000 euro inguru bideratu nahi du Eskoriatzako Udalak San Pedro auzoko irisgarritasun lanak hobetzera. San Pedroko eremu hartan oinezkoentzat aldapa handia dago, eta, eskailerak ere badauden arren, igogailua jarri nahi dute. "Eremu hartako bizilagunei bizimodua erraztu nahi diegu, adineko jende dezente bizi da-eta han".

Oposizioak 2025eko aurrekontuari aurka bozkatu izanagatik galdetuta, berriz, honako hau dio Uriartek: "Oposizioak ideiak ekartzen ditu osoko bilkuretara, baina ez du batzordeetan ekarpenik egin. 2025eko aurrekontuei dagokienez, nondik kendu eta non jarriko luketen esan behar-



Compostela taberna alboan eskailerak. I. B.

Igogailua jartzeko asmoa

San Pedro auzoko irisgarritasunean eragin nahi du Udalak. Batez ere, lurra bustita dagoenean arriskutsuak izan daitezkeen eremuak daude, aldapa malkartsuak, eta, adineko pertsonengan arreta jarritz, Compostela taberna alboan igogailua jarri nahi dute.

ko lukete, eta ez da horrelako ekarpenik egon".

Elkarte eta eragileei laguntzak Herriko elkartei ematen zaien laguntza ekonomikoaren bueltan ere izan zuten eztabaida udalbatzako kideek. "Eskoriatza Kirol Elkartearen ematen zaion laguntza izan dugu berbagai. 2025ean diru partida gutxiago bideratuko diogu kirol elkarteari, uste dugulako aurten herriko beste elkarte batzuek behar handiagoa utela. Etorkizunean behar badute, egingo dugu saiakera baliabideak eskaintzeko. Hala ere, diruaz gain, laguntza emateko prestutasuna handia da; eta, bide horretan, kirol zinegotzia eta bertako teknikariak lan ona egiten ari dira; dena ez da dirua", dio Xabi Uriartek, EH Bilduko bozeramaileak.

Oposizioak, kontra "Eskoriatzaren alde egiten ez duten aurrekontuak dira onartutakoak", adierazi du, bestalde, Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak. "Ez dute irudikatzen guk eraiki nahi dugun Eskoriatza. Ausardia gutxi kontuak dira, gastuak eta diru-sarrerak koadratzera mu-

ESKORIATZAKO UDAL GOBERNUAK PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA EGIN BEHARKO DUELA DIO

gatzen direnak, eraikitzeke asmorik gabe".

Elkarteei eta eragileei ematen dizkieten laguntzei dagokienez, berriz, oposizioak ez du begi onez ikusi Eskoriatzako Kirol Elkartearen dirulaguntzaren gainean hartutako erabakia. "Salatu nahi dugu Bilduk Eskoriatzako Kirol Elkarteari ematen dion laguntza erdira baino gehiagora murriztuko duela; zehazki, 34.800 eurotik 16.000 eurora. Hau da, %54 gutxiago gure kirolarientzat. Eskoriatza Kirol Elkarteak urteak daramatza gure herriarekin konprometituta, kirola babesten, eta gaur egun 200 pertsona baino gehiago mobilizatzen ditu, jokalaria eta federatu artean. Ezin ditugu abandonatuta utzi, ezta euren ekimenak arriskuan jarri ere. Hau al da Bilduk agindutako Eskoriatza berria?", adierazi du alderdi jeltzaleko bozeramaileak.

Inbertsio nagusia txalotu Ezkurdiak gaineratu duenez, "kontua ez da soilik kritikatzeko. San Pedron igogailua jartzeko proposamena txalotu egiten dugu, baina aurrekontuetan partida bakarra agertzen da azterketarako. 2025. urtean zehar hori egiteko behar den partida ematea espero dugu". Horrekin batera, EAJk Musika Eskola birkokatzeko partida bat onartzea proposatu du osoko bilkuran: "Udalak instalazio berrien bidegarritasun-proiektua egin dezala eskatzen dugu".

1.200 axtroki banatu dituzte merkatariek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatzako Axtroki Merkatarik Elkartek herriko komertzio, zerbitzu, denda eta bestelako saltokietan gastatzeko 1.200 axtroki zozketatu ditu, bost saritan. Sari nagusia Santos Santamariak irabazi du -500 axtroki-; bigarren saria, berriz, Maria Jose Oyangurenentzat izan da -300 axtroki-; hirugarren saria, aldiz, Josune Aranburuzabalak eraman du -200 axtroki-; eta laugarren eta bosgarren sariak -100 axtroki bakoitzak-, berriz, Txaro

Muñozek eta Ana Mari Ruiz de Azuak jaso dituzte.

"Urtarrilaren 5ean egindako zozketan sarituetako bost lagunetatik, hiru pasa dira sariak jasotzera, baina oraindik beste biri geratzen zaizkie sariaren bila etortzea; horretarako, Altuna harategitik pasa daitezke". Herriko saltoki ugari egin dute bat egitasmoarekin, eta, 1.200 euro saritan emanda, komertzio txikiari bultzada eman nahi diogu egitasmo honekin", adierazi du Jabi Altunak, Al-

tuna harategiko eta Axtroki Merkatarik Elkarteko kideak.

Herrian erosteko gonbita

"Herrian erosten dutenak saritzeko egiten dugu Gabonetako zozketa. Geroz eta jende gehiagok kanpoan erosten du, saltoki handietan, eta bertan egiten dituzte erosketak eta eguna pasa. Hala ere, azken unean, larrialdi bat dutenean zerbait behar badute, orduan etortzen dira komertzio txikiako saltokietara, gertukora", adierazi du Altunak.



Merkatarien Gabonetako zozketako hiru saridun, Altuna harategian saria jaso zuten unean. AXTROKI MERKATARI ELKARTEA



IMANOL BELOKI

Haur-parkearen zoru berritzen

Gabonen aurretik erabakia hartuta eta egin beharrekoak zehaztuta, Intxaurtxueta auzoko plazan dagoen haur parkean zoru berria jartzen izan dira asteon. Hiri-ekipamenduaren industriako Benito Urban enpresa ari da lanak egiten, eta 14.000 euroko aurrekontua izango dute haur-parke osoko zoru aldatzeko.

OHARRAK

Kinttaden Eguna

Kiroldegian egingo den bazkarirako kinttaden zerrenda osatzeko azken eguna hilaren 12a izango da.

Bertso-afaria

Hilaren 17an, Maider Arregi eta Andoni Rekondo bertsolariak izango dira, 21:00etan, Apotzaga elizateko Auzo Elkartean egingo duten bertso-afarian.

Antzerkia Zaldibarren

Eskoriatzako Ausartak Antzerki Taldeak *Bendita locura* antzerkia egingo du hilaren 18an, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Sarrerak, bost eurotan, aldeztu aurretik, kiroldegian.

LEINTZ GATZAGA | 17



Gatzagako haur talde bat, Negulekuetan, Gasteizko izotz-pistan. GUREL GURASO ELKARTEA

Mendian eta izotzetan aritu dira gaztetxoak, Negulekuetan

Abenduaren 26an eta 27an bi irteera egin zituzten herriko gaztetxoek, Gurel Guraso Elkartek antolatuta

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkartek urtero antolatzen ditu Negulekuak, txikien gozamenerako. Urtea amaitu aurretik egin dituzte, beste behin, eta begirale aritu dira Amets Gonzalez eta Beñat Oñenerra gatzagarrak. Euren batera ekintzetan parte hartzen, berriz, bost haur ibili dira, eta "poz-pozik eta gustura" jardun dutela nabarmendu dute antolatzaileek.

"Jarindora 11:00etan abiatu ziren, eta 16:00etan bueltatu ziren. Eguraldia ez zuten lagun izan eta hotz izugarria pasa zuten, nahiz eta, haien esanetan, ondo pasatu zuten. Hurrengo egunean, berriz, Gasteizko Florida parkera joateko aprobetxatu zuten; izotz-pistan aritu ziren patinatzen, eta, amaitzeko, txokolate beroa hartu zuten, eta Gatzagara buelta", adierazi du Barandiaranek.

Jarindora eta izotz-pistara

Leintz Gatzagako Gurel Gurasoen Elkarteko Ainhoa Barandiaranen esanetan, "egin beharrekoak dira Negulekuak. Irteeren alde egin dugu aurten, eta oso ondo pasa dute haurrek". Bi egunetan bi irteera egin dituzte: abenduaren 26an Jarindora joan ziren, egun-pasa, eta abenduaren 27an, berriz, Gasteizera, patinatzerara.

Aratustek prestatzeko asmoz

Gurel Guraso Elkarteko kideek urtean zehar egindakoak baloratzeke, eta aurrera begirako ekintzak prestatzeko datozen egunetan batuko dira. Hain zuzen ere, aratusteetan herritar talde handi bat gai zehatz batez moztortzen da urtero, eta aurtengo jaietan zertaz moztortu pentsatu eta ekintzak prestatzeko batzeko asmoa dute.

Martitzenerako argimozketa programatu du Leintz Argik

Leintz Argiko teknikariek argimozketak egingo dituzte martitzenean, hilaren 14an. Esku-hartzeak herrigunean soilik eragingo du, eta horrek irauten duen bitartean aparatu elektronikoak deskonektatzea eta igogailuak ez erabiltzea gomendatzen dute.

Argindar instalazioaren kalitate eta fidagarritasuna hobetzeko, argimozketak egingo

dituzte, beste behin, Leintz Argiko teknikariek. Hain zuzen ere, herrigune osoan eragingo du, eta esku-hartzea goizean izango da, 09:00etatik 11:30era bitartean. Gaineratu dutenez, hornidura aldeztu aurretik jakinarazi gabe berrezarriko dute, lanak ondo bidean, eta egin beharrekoak aurreikusitako baino amaitzen badituzte. Horri lotuta, lanak aurrera eramateko moztutako argindar-potentzia 875 kVAkoa izango dela adierazi dute.



Udal Gobernuak osatzen duten EH Bilduko zinegotziak, abenduko ohiko osoko bilkuran. IDOIA ARANBARRI

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udal Gobernuak asteon eman du 2025erako aurrekontu proposamenaren berri. Diotenez, "herriaren garapena eta ongizatea sustatzen duten arlo nagusiak indartzeko proposamena" da. Gobernuak proposamena aurkeztu die udal taldeei, datozen asteetan euren ekarpenak jaso eta behin betiko proposamena otsailerako onartuta izateko asmoarekin.

Inbertsioetan igoera handia

2025erako proposamena 38.448.527 eurokoa da, 2024arekin alderatuta "igoera nabarmena" duena. %14ko igoera proposatzen dute: "Ezohiko aurrekontua izango da aurtengoa, inbertsio handiei erantzutera datorrena. 2026ko eta 2027ko aurrekontuetan ohiko gaitasunera mugatzeko baldintza ere aintzat hartu behar dugu".

Udal Gobernuarentzat "estrategikoak" diren eta aurten gauzatzen hasi beharreko inbertsioek eragin dute, bereziki, aurrekontuaren igoera. 10.681.000 euro bideratuko dituzte inbertsioeta-

%14ko igoera proposatu dute, inbertsioengatik

Udal Gobernuaren 2025erako aurrekontu proposamena 38.448.527 eurokoa da, iazkoa baino %14 handiagoa; igoera "inbertsio handiek" eragin dute. Gainerako udal taldeei aurkeztuta, Udal Gobernuak espero du otsailerako behin betiko onartzea proposamena

ra eta horien artean azpimarratu beharreko lehena da urtarril amaieran berritzen hastea aurreikusten den Barrenkalea. Urtarril amaieran lanak hastea espero dute; 1.600.570 euroko exekuzio aurrekontua du proiektuak, BEZa barne. Barrenkalea berritu ostean etorriko da San Martin plazaren itxuraldaketa, eta, horrekin, alde zaharraren biziberritzean eta eremu monumentalaren zaintzan eragiteko asmoa du Udal Gobernuak.

Hiru milioi euro, hiru inbertsio

Bestetik, udal zerbitzuei begira, udal eraikinetan hainbat inber-

tsio egingo dira. Udaletxean eta inguruan eremuak berritu eta herritarren arreta zein zerbitzuen irisgarritasuna hobetzeko milioi bat euro inguru baliatuko dira. Beste milioi bat euro Agorrsingo kiroldegiko teilatua konpontzeko erabiliko da, eta beste horrenbeste dago aurreikusita Arrizuriaga jauregia "kulturan erreferente" bilakatuko duen eraikina egokitu eta ekipamenduz hornitzeko. Udal Gobernuak gogora ekarri duenez, "berdintasun politikan sakontzeko aukera" emango duen Emakumeen etxea ere Arrizuriagan jarriko da martxan, herriko

emakumeekin batera diseinatu ostean.

Beste inbertsio esanguratsu batzuen artean, honako hauek azpimarratu ditu Udal Gobernuak: Boluko malda egonkortzeko beste esku-hartze bat egingo da aurten (536.000 euro); jasangarritasun ikuspegitik Udaleko energia horniketan burujabetzan sakontzeko 388.000 euro inbertituko dira, eraikin publikoen teilatuetan instalazio fotovoltaikoak gauzatzeko; eta baserri-bideak konpontzeko eta horien garbiketara zein mantentzerako 272.000 euro inbertituko dira.

Udal zerbitzuak hobetu nahian

Aurrekontuaren beste heren bat, 11.930.915 euro, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntetara bideratuko dira, udal zerbitzuen mantentzea eta hobekuntza bermatzeko. Esaterako, udal langileen lansariei 11.230.113 euroko diru izendapena izango dute aurten. "Udal jarduerak eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak sostengatzen dituen giza taldearekiko konpromisoa sendotzen dugu horrela". Horrez gain, hirugarren adinekoendako etxez etxeko zerbitzuaren aurrekontua 1.143.000 eurokoa izango da; Laboratorium museoaren 10. urteurrena ospatzeko urte osoko programazio bereziak 200.000 euro jasoko ditu; kultura ekintzetarako aurrekontua 343.000 eurokoa izango da; eta hondakinen bilketarako eta Mankomunitateak ematen dituen beste zerbitzuak finantzatzeko 2.500.000 euroko ekarpena egingo da.

Gorka Artola alkatearen arabera, proposamenak Udal Gobernuaren konpromisoa islatzen du Bergararen etorkizunarekin. "Aurrekontu hauek Gobernu Planean aurkeztu genuen gure bide-orriko erronka gehienei erantzuten diete. Oso inbertsio garrantzitsuak dira, herritarren espazio publikoak hobetzeko eskaerei erantzuten dizkietelako, adibidez, Barrenkalean edo Arrizuriaga jauregian. Inbertsio horiek gure herria bizi-kalitatean erreferente bihurtzea dute helburu".

LANGILEEN SOLDATAK ORDAINTZeko ERABILIKO DUTE IA HERENA, 11.230.113 EURO GUZTIRA

Garraioa hobetzeko askotariko beharrak dituzte Angiozarren

Bidegorria, asteburuetan eta udan herribusa, auzo-taxia gauzez ere izatea eta "geltoki duina", premien artean

J.B.L. BERGARA

Garraio zerbitzuaren inguruan Angiozarko bizilagunen artean egindako inkestetan parte hartu zutenen arabera, garraio zerbitzuak badu zer hobetu. Partaidetza %25ekoa izan zen,

Goimendiko eta Asentzioko bizilagunen parte hartze barik.

Herribusa, auzo-taxia eta eskolako autobus zerbitzuak dituzte, eta, haien balorazioa egiteko orduan, eskola autobusak soilik gainditu zuen, 10etik 5,96

batekin, batez beste. Herribusaren eta auzo-taxiaren balorazioak 5etik beherakoak izan ziren; hurrenez hurren eta batez beste, 4,12 eta 4,74. Bestalde, hainbat eskaeraren artean, honako hauek egingo dituzte Bergarako Udalerako eta Gipuzkoako Foru Aldundira: Bergararekin lotzeko bidegorria; asteburuetan eta udan herribusa jartzea; auzo-taxi zerbitzua gauzez ere jartzea; autobus geltoki duina jartzea; eta zerbitzuaren tarifakazioa Mugi txartelera lotzea.



Inkesten berri emateko bilera, Angiozarko Arbiaska aretoan. IDOIA ARANBARRI



Udal pilotalekuko teilatua berritzeko lanak aurrera doaz; irudian, frontoia barrutik, atzo. B.U.

Euriak atzeratu ostean, otsailerako erabilgarri

Udal pilotalekuko teilatua berritu eta paretak margotzeko lanak abendurako amaitzeko espero zuten, baina hilabete inguruko atzerapenarekin bukatuko dira; eguraldiaren menpe dagoen "obra delikatua" delako atzeratu da, Udaleko Hirigintza arlokoek azaldu dutenez

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udal pilotalekuko sabaia berritzeko eta paretak berriro margotzeko lanak espero baino beranduago bukatuko dira. Lanak hasi zirenean, 2024ko urriko lehen astean, abenduan zehar amaitzeko aurreikuspena egin zuten, baina asmo hori ezin izan dute bete. Hirigintza arloko zinegotzi Markel Azkargortaren arabera, "obra delikatua" izan da: "Sabaia izatera berritu beharrekoa, eguraldiaren menpe egon gara erabat, eta horrek zailtasun batzuk eragin dizkigu. Atzerapenak atzerapen, espero dugu urtarri amaierarako bai amaituko ditugula lan guztiak". Oraindik ez dago irekiera-egunik, baina Udaleko Hirigintza arloan ez dute espero atzerapen handirik izango denik falta diren azken ukituekin.

Eragina murrizteko neurri batzuk Bereziki estalkia berritzea eta pintaketa lanak gauzatzea izan da lanon helburu nagusia, baina

bestelako lan osagarri batzuk ere egin dituzte; besteak beste, isolamendu termikoan eta akustikoan hobekuntzak egingo dira. Goitu Eraikuntzak enpresa ari da lanok egiten, ia 340.000 euroko aurrekontuarekin.

Obraren eragina ahalik eta txikiena izateko neurriak hartu ditu enpresak; esaterako, eraikin barruan pladurrezko hormak jarri dituzte, frontoia tabernetatik bereizteko, eta Ibargarai kaleko zirkulazioan "mozketa oso puntualak" egin behar izan dituzte.

Pilota saila, itzultzeko irrikaz Udal pilotalekua erabilera handiko azpiegitura izanik, obra hilabete batez atzeratzeak era-

PILOTA SAILEKOAK DESIRATZEN DAUDE OTSAILEAN FRONTOIA ERABILTZEN HASTEKO: "EA HALA DEN"

gin du Gabonetan ohikoak diren ekintza batzuk bertan egiteko aukerarik ez izatea. Pilota sailekoen entrenamendu eta partiduez harago, besteak beste, Gabonetako kontzertu berezia San Pedro elizan egin behar izan zen eta umeen gozamenarako antolatu ohi den Gabonetako jolas parkea aurten Labegaraitan bakarrik jarri behar izan dute. Pilota saileko arduradun Julen Aranbururen arabera, desiratzen daude udal pilotalekura bueltatzeko: "Udaletik esan digute otsailean sartzeko moduan egongo garela. Ea hala den... Izan ere, Antzuolako elkartekoak oso ondo portatu dira eta oso ondo moldatu gara eurekin, baina irrikaz gaude gure betiko lekuan entrenatzeko eta jokatzeko. Antzuolakoaz gain, Angiozarko eta Boluko frontoiak ere erabili behar izan ditugu; bada garaia gure jokalariai alde batera eta bestera ibili barik normaltasunera itzul gaitezen".

NIRE USTEZ



AINHOA PARDINA

Ingelesa bai... Euskara?

Aspaldion kezkatuta nauka hizkuntzen kudeaketarekiko gizartean dagoen hipokresiak. Eguneroko kontua da jatorri atzerritar zehatzeko -hots, espainiar estatuko- lagunekin elkartzean, beste norbaiti zuzendutako esaldiren bat euskaraz esaten bada, gainontzekoek gaizki begiratzea eta errespetu faltatzen hartzea, gaztelaraz hitz egiten duen pertsona horrek ez duelako ulertuko. Zer gertatzen da, aldiz, beste jatorri bat duen pertsona batekin elkartzean eta, beraz, ingelesez komunikatu beharra dagoenean? Atentzioa ematen dit orduan gaztelaraz hitz egitea -ez esaldi bat, elkarriketa guztia baizik-, nahiz eta pertsona horrek ez ulertu, normaltzat hartzen dela, eta ez errespetu faltatzen; are gehiago, gehienek jokaera hori hartzen dute, nahiz eta ingelesez minimoki komunikatzeko gaitasuna guztiak izan. Gauza bera gertatzen da tabernetan ere, susmoa baitaukat "mosto bat" eskatzean ez dutela ulertzen haserre adierazten dizuten euskarafoboi ingelesez eskatuz gero, eta honek ingelesez ezer jakin ez arren, "ulertuko" liokeela. Aldatuko ote da usteko errespetuaren diskurtso euskarafoboa, behingoz?

Azken eguna Ohorezko Kirol Txartela merezi dutenak aukeratzeko

Kirol Zerbitzuko Ohorezko Abonatu Txartela aterako du aurten ere Udalak, herriko kirolaren alde egin duten edo egiten ari diren bergararrei urte osoko abonua osoa emateko. Txartel berezia emateko, honako irizpide hauek izango dira kontuan: kirol merituak, denbora-dedikazioa, generoa, inklusibitatea, kirol modalitatearen izaera mi-

noritarioa, hautagaiaren adina eta hainbat kirol modalitatetan parte hartzea. Gainera, edozein herritarrek proposa dezake hautagai bat saria jasotzeko; betiere, norberaren burua proposatu gabe. Horretarako, dokumentazio egokia -informazio gehiago, www.bergara.eus atarian- aurkeztu beharko da gaurko, hilak 10, Bergararren Arretarako Zerbitzuan (BAZ), Agorrosin edo Udalaren webgunean. Gehienez, bost saridun egongo dira; otsailean jakinaraziko dituzte.

Pentsiodunak kalera, zazpigarren urtez jarraian, hilaren 13an

Urtarrilaren 13an, kalera irtengo dira pentsiodunak, zazpigarren urtez jarraian. Aurtengo helburuen artean dago gutxieneko pentsioa gutxieneko soldatarekin parekatzeko Herri Ekimen Legegilea abiatzea. Hilaren 13an San Martin plazan egingo dute urteko lehen protesta, eta, ekimen legegilerako sinadurak biltzeaz gain, jai giroa ere izango dute: Jesus Mari Olabarria irrintzilaria, Jaime Rodrigo jotariak, Jexux Kortabarria, Maite Aristei eta Luis Markiegi bertsolariek eta *Txefe* eta Jexux Elortza soinu-jotzaileek hartuko dute parte. Ondoren, mokadutxo egin eta ardoarekin topa egiteko aukera egongo da.

OHARRAK

Literatura solasaldiak

Neguko solasaldiak ere badira. Lehen saioa hilaren 22an izango da, Irizarren (18:30): Harkaitz Canoren, Unai Iturriagaren eta Joseba Larretxeren *Ni ez naiz Mikel Laboa* liburua izango dute hizpide, Mikel Antzarekin. Izena emateko: jardun.eus.

Eguaztenak Oxirondon

Baserritarren azokaz gain, zuzeneko sukaldaritza saioak ere egongo dira hilaren 15ean, hilaren 22an eta hilaren 29an Oxirondo azokan, Erikaenaren eskutik (17:30).

Txistulari banda

Kontzertua emango dute domekan, udaletxean (13:00).

"Munduko txapelketarako sailkatu nahiko nuke"

JULEN BADIOLA UNZURRUNZAGA KORRIKALARIA

33.44ko denborarekin, hirugarren sailkatu zen abenduaren 31n jokaturako San Silvestre Traillean, eta, 16 urte baino ez dituen arren, herriko azkarrena ere izan zen

Monika Belastegi BERGARA

Txikitatik du korrikarekiko zaletasuna, eta, pistan eta krosean ere aritzen den arren, traila du gustuko. 16 urte beteta, lehenengoz lehiatu ahal izan da nagusiagoekin, Bergarako San Silvestre proban. "Onena ematera" joan zen, baita lortu ere.

Pozik San Silvestre proban lortutakoarekin? Ez zen makala izan!

Bai, oso pozik. Norbere herrian lehiatzea beti da berezia, eta lasterketa hau oso maitea dut; txikitatik aita ikusten nuen parte hartzen, eta azken bi urteetan boluntario ibili naiz, eta adina betetakoan ez dut zalantzarik izan parte hartzeko. Giroa benetan da aparta, eta egun berezia da.

Espero zenuen halako emaitzarik?

Ibilbidea eta distantzia egokiak dira nire ezaugarrietarako, eta, gainera, horrelako lasterketak lehiatzen ditut Euskadiko zein Espainiako txapelketetan, baina orain arte nire adineko korrikariek nire nongoen lehiatuta; nire onena ematera joan nintzen, baina emaitzari dagokionez zalantzak nituen.

Trailaz gain, pistan eta krosean ere aritzen zara; zein duzu nahiago?

Nahiz eta hiruretan lehiatzen naizen, dudarik gabe gehien gustatzen zaidana eta emaitza-



Julen Badiola helmugan sartzen. MIREIA BIKUÑA

rik onenak lortzen ditudana traila da.

Bateragarriak dira hirurak?

Neguan krosetan aritzen naiz, indarra hartzeko, eta udaberrian, berriz, pistan, abiadura hartzeko; eta, horrela, trailerako ho-

betu prestatuta egoten naizela uste dut.

Eta zer distantzia nahiago duzu?

Sei edo zazpi kilometro inguruko lasterketak gustatzen zaizkit gehien. Laburragoak azkarragoak dira niretzat eta zortzi-

tik gorakoetan ez dut inoiz parte hartu.

Noiz hasi zinen korrika egiten?

Txikitatik gustatu izan zait korrika egitea, eta gurasoak lasterketaren batera joaten zirenean umeek parte hartzeko aukerarik baldin bazegoen, han joaten nintzen ni. Bestalde, aita mendian korrika ikusten nuen eta harekin ibiltzen nintzen, eta horrela hasi nintzen gaztetxoentzako mendi lasterketetan parte hartzen: Antzuolan, Elgetan, Mitxintxolan...

Baina korrika egin aurretik futbolekin ere aritu zinen; zergatik aldaketa?

Bi kirolak nituen gustuko eta biak uztartzen ahalegintzen nintzen. 2023. urtean, Atletismo Federazioak antolatutako Euskadiko trail txapelketa Zumarragan egin zen, eta parte hartu nuen. Emaitza ona lortu nuen, eta atletismoan federatzea erabaki nuen, Goierri Garaia Atletismo taldean. Entrenamenduak geroz eta gogorragoak ziren, eta, azkenean, bat aukeratu behar izan nuen.

Zumarragako atletismo taldean arituz, horrek ere lagunduko dizula pentsatzen du.

Zalantzarik gabe, Goierri Garaia Atletismo Taldea funtsezkoa da orain arte atletismoan lortu duen gauza guztietan, izan trail, pista edo krosa, eta, batez ere, nire entrenatzaile Santi Perezen aholkuak eta prestakuntza oso garrantzitsuak dira.

Zenbat entrenatzen zara? Eta nola?

Astean bost aldiz entrenatzen naiz. Astean behin joaten naiz Zumarragako Argixao pista nire entrenatzailearekin serieak egitera eta beste egun bat, normalean asteburuetan, mendian entrenatzen naiz. Gainerako entrenamenduak nire kabuz egiten ditut, Bergaran, baina,

betiere, entrenatzaileak agindutako distantzia eta erritmoak errespetatuz.

Entrenatzeaz gain, zaindu ere egin beharko duzu...

Adinean aurrera noala gero eta gehiago konturatzen naiz zaintzearen garrantziaz, eta taldean sumatzen da giro hori. Elikadura garrantzitsua da, baina atsedena ere oso garrantzitsua da.

Aurtengo denboraldirako zer helburu daukazu?

Bi nagusi ditut: batetik, Ordizian otsailean egingo den Euskadiko trail txapelketa ondo prestatzea, eta bertan, Eivissan egingo den Espainiako selekzioen arteko txapelketarako sailkapena lortzea; bestetik, ekainean Canfrancen (Huesca) bakarkako Espainiako txapelketa egingo da, eta, gainera, lehenengo lurak Bratislavan (Eslovakia) egingo den 18 urtez azpiko munduko txapelketarako sailkatuko dira, eta hori lortzea amets bat izango litzateke.

Eta etorkizunean egin nahi duzun lasterketarik baduzu?

Etorkizunean, Zegama-Aizkorri mendi maratonia egin nahiko nuke, baina oraindik bide luzea dago egiteko.

Amaitzeko, gustuko lasterkari bat?

Honetan gabiltzan ia guztiok begiratzen diogu Kilian Jornet kataluniarrari, eta niretzat ere erreferente bat da. Etxekoei begiratzen badiegu, berriz, Antzuolako Larrea anaiak, bai kirolari moduan, baita pertsona moduan ere.

"PISTAN ETA KROSEAN ERE LEHIATZEN NAIZ, BAINA EMAITZA ONENAK TRAILLEAN LORTZEN DITUT"

Beñat Labaien, Real Zaragoza taldeko staff berria

Beñat Labaien bergararra Miguel Angel Ramirezen laguntzaile berria da Real Zaragoza taldean, kanariarra lehen entrenatzaile izendatu eta gero. Bergararrak eta kanariarrak elkarrekin jardun zuten irailera arte Qatar Al-Wakrah taldean, eta berriz arituko dira elkarrekin, Zaragozako klubak abendu amaieran jakinarazi duenez.

Beñat Labaienek futbol profesionaleko jarduna analista lanetan oinarritu du, batez ere. Elxen eta Leeds Uniteden aritua, 2018ko udan Realeko analista-taldera egin zuen jauzi, handik bi urtera Japoniako bigarren mailako Tokushima Vortis taldearekin entrenatzaile fitxatu zuen arte. 2023ko abuztura bitartean jardun zuen han, eta gero Qatarreko abiatu zen. Orain, Real Zaragozan ibilbide berriari ekingo dio, Ramirez entrenatzaile berriaren laguntzaile gisa.

Xakezaleen topaleku

Kartzela zaharreko xake txapelketa jokatu zuten astelehenean hogeitaherriarrek. Bost-hamar minutuko zortzina partida jokatu, Iraitz Arizabaletak irabazi zuen txapelketaren aurtengo edizioa; losu Usederendako izan zen bigarren postua eta Jon Altunarendako, hirugarrena. Federatu gabeko bergarar onenaren saria Asier Lariarendako izan zen.



AMAJA RAMIREZ DE OKARIZ

Bideoklipen aurkezpena, bide bereziaren lehen zita

Brigade Locoren 'Bide baten esanahia' disko berria hiru bideoklipen osatutako trilogia batekin dator, eta gaur emango dituzte, Seminarixoan (20:00): "Bergaran aurkeztu nahi genuen, etxean, beti hor egon direnen aurrean". Sarrera doakoa da, edukiera bete arte

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2025a urte berezia izango da Brigade Locorentzat, hirugarren diskoa izango den *Bide baten esanahia* kaleratu eta zuzenean aurkezteko urtea. Eta urte berezi honetako bide bereziaren lehen geltokia gaur izango dute, hilak 10, Seminarixoan (20:00). Izan ere, disko berria hiru bideoklipen osatutako istorio batekin dator, trilogia batekin, eta gaur aurkeztuko dute.

Gertukoenei lehendabizi

Urte eta erdi dela hasi ziren disko berriari forma ematen, taldeko bateria-jole Manex Egañak azaldu duenez: "Buruan ideia bagenuen bideoklip batzuk elkartu eta istorio bat kontatzeko. Pixkanaka forma ematen hasi ginen eta orain dena dugu gertu; istorio bat kontatzera gatoz, bere bizitzako pasarte ezberdinak kontatuko dizkigun protagonista batekin".

Edukiaren inguruan ez dute askoz gehiago aurreratu nahi izan, gaurko aurkezpeneko espoilerrik ez egiteko. Izan ere, diskoa otsailean kaleratzeko asmoa dute eta gaur Seminarixoan proiektatuko dituzten bideoklipak banaka egingo dituzte publiko urtarrean eta otsailean zehar; beraz, oraingoz, hiru bideoklipak ikusteko aukera bakarria izango da gaur Seminarixora joatea. Sarrera doakoa izango da, edukiera bete arte. "Aurkezpen txiki bat egingo dugu, eta gero, proiektzioa; ekitaldi laburra izango da. Trilogiaren ekoizpenean parte hartu dutenak ere bertan egongo dira eta labor-labor kontatuko dute prozesua nolakoa izan den". Ekoizpenean parte hartu duten izen propioen artean honako hauek aipatu behar dira: Beñat Goia, zuzendari lanetan; Gaizka Sarasua, aktorea; Malen Trenado, produkzio-zuzendaria; Jon Corres, argazki-zuzendaria;



Brigade Loco, *Bide baten esanahia* diskoaren promoziorako argazkian. BEÑAT GOIA

HIRU BIDEOKLIPAK AURRERAGO EGINGO DITUZTE PUBLIKO; LEHEN EMANALDIA ETXEAN EGINGO DUTE

Nahia Beroiz, arte-zuzendaria eta jantzitegia; Ekaitz Bertiz, gidoilaria; Ekaitz Bertiz, aktore-zuzendaria; Jon Corres, kolorearen arduraduna; eta Beñat Etxebarria *Kera*, diseinatzailea.

Aurkezpena Seminarixoan antolatu izana ez da kasualitatea: "Trilogia lehendabizi Bergaran aurkeztu nahi genuen, gertukoenei aurrean. Detalle txiki bat izan beti hor egon direnekin. Argi genuen doakoa izango zela aurkezpena, eta, Seminarixoan egiteko aukera irten zenez, aurrera; areto itzela da".

Lan berezia erakusteko gogoz *Brigadetarrak* oso gogotsu daude egindakoa erakusteko: "Lan handia egon da atzetik. Orain arteko lan berezia eta landua da; zer garen ahaztu gabe, badu kutsu ezberdin bat. Uste dugu nabaritutako dela". Honako data hauek iragarri dituzte oraingoz: otsailaren 7an, Londresko New Cross Inn aretoan (Inglaterra); otsailaren 8an, Derbyko Forever Young jaialdian (Inglaterra); otsailaren 22an, Iruñeko Totem aretoan; martxoaren 15ean, Gasteizko Jimmy Jazzen; martxoaren 21ean, Zaragozako Lo Intento aretoan (Espainia); martxoaren 22an, Bartzelonako Razzmatazz 2 aretoan (Katalunia); apirilaren 12an, Bilboko Santana 27 aretoan; apirilaren 26an, Madrilgo Mon aretoan (Espainia); eta maiatzaren 10ean, Astigarragako Oialume biltokian.

Euskaldun zahar baten eta berri baten artekoak, antzerki bidez

Taulela antzerki taldearen 'Euskaldungak' antzezlanaren helduko da bihar Seminarixora; sarrerek salgai daude

J.B.L. BERGARA

Taulelak antzerki taldearen *Euskaldungak* obra ikusi ahal da bihar, hilak 11, Seminarixoan (20:00). Ikuskizun horretan, Aroa Blanco eta Maite Lopez aktoreak lehen aldiz igo dira agertokira elkarrekin, eskal kulturaren eta euskararen "mundu liluragarrian" izandako abenturak kontatzeko.

Euskaldun zahar eta berri

Euskaren bueltan arituko dira, euskaldun zaharren eta berrien artean: "Euskaldun zaharrei eus-

kaldun berriak zuzentzea zergatik kostatzen zaie horrenbeste? Eta euskaldun berriek zergatik diote halako beldurra akatsak egiteari? Solasaldi, eztabaida eta gaizki-ulertuen bidez gai horri argi pixka bat ematen saiatuko gara. Ez da erraza izango, ezta serioa ere. Zer esango dute euskaldun berri batek eta euskaldun zahar batek euskarari buruz? Euskararekin duten erlazioaz? Beren *istoriaz*? Istorioa? Historia? *H*-rekin ala gabe? A itsatsia dauka?". Sarrerek salgai daude *seminarixoa.eus*-en, zortzi eurotan.



OIHANA ELORZA

Begiratu berezia Okinaren lanei

Miguel Okinaren jaiotzaren mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldien barruan, koadro-foruma egin zuten urtarrean 3an Aroztegin. Okinaren bost koadroren gaineko askotariko azalpenak eman zituzten Beart-eko presidente Xabier Agirrek eta Bingen De Pedro artistak.

Taila Elkarteko 40 bat pieza ikusteko aukera Aroztegin

Azken urteetako ohiturari eutsiz, urtarrean erakutsiko dituzte Taila Elkartekoek euren lanak Aroztegi aretoan. Gaur, irekiera ekitaldi xume bat egingo dute (18:30), eta hilaren 19ra arte egongo dira lanak ikusgai –ohiko ordutegian–. Taila elkarteko Iñaki Osak aurreratu duenez, 40 bat pieza ikusi ahal da, herriko 16 tailugilek egindakoak.

Amustei zuzenean San Juan auzoko ermitan (20:00)

Herriko Amustei taldeak kontzertua emango du bihar, hilak 11, San Juan auzoko ermitan (20:00). 2023an sortua, rock amerikarra egiten du taldearen izena baserri bati zor dion taldeak. Rocka bai, baina bestelako doinuak ere tartekatzen dituzte, ibilbide luzea duten musikariei esker. Obieta elkartek lagundu du kontzertua antolatzen.

Sormenezko elkartrukea egin dute Laskurainandin

Europako eta Latinoamerikako hamar lagun elkartu dira Antzuolan, jardunaldiak egin baitituzte 'Europa Sortzen' izenpean. Tartean izan dira hiru antzuolar, garatutako sormen lanak aurkezten eta ekarpenak egiten: Iñaki Mata, Marisol Abreu eta Ariel Moreno

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Nork bere barnean daramanari begiratzea eta hori artelan bilakatzea da, hein batean, *Europa Sortzen* jardunaldiaren asmoetako bat, Iñaki Mata artista antzuolarraren hitzetan. "Batez ere, gure barneko identitatearekin, sormen identitatearekin, konektatzea da". Horretarako, ordea, bide jakin bat ez dagoela azpimarratu du Ana Octavia De Petre argentinarrak, Creando (Sortzen) ekimeneko kideak eta jardunaldien antolatzaileetako batek: "Sorkuntza librea da, baina erabat lotuta dago artistaren prozesu pertsonal, emozional, psikologiko eta intimoa-rekin; bide introspektibo horren, autoezagutzaren, emaitza dira, horrenbestez, lan horiek, artista bakoitzak urtebete igaro baitu inspirazio eta sortze prozesuan jardunaldietan publikoki aurkeztu eta gainontzekoen iritziak jaso aurretik". Bada, jardun horretan aritu dira urtea hasiarekin batera Laskurainandi baserrian.

Creando izeneko arte esperimentazio eskolan dute oinarria jardunaldiak: Argentinan sortu eta Venezuelan garatu zen, Juan Carlos eta Ana Rita de Petre dituzte sustatzaile, eta 2004an egin zuten lehen topaketa; ordutik, urtean behin edo birritan elkar-tzen dira Europako eta Latinoamerikako hainbat lagun euren arte sorkuntzak eta prozesuan izandako bizipenak elkartrukatzeko, eta bosgarren aldia dute Antzuolan. Hamar kidek hartu dute parte, eta, besteak beste, arte plastikoa, literatura, pintura, antzerkia eta eskultura landu dituzte euren lanetan. "Espazio honetan gure benetako izatea, izakia, ateratzen da, sormena gogoan izanda; izan ere, izaki guztiok gara sortzaileak, eta ez du zerikusirik bakoitzak eginiko ikasketekin. Identitate



Europa Sortzen jardunaldietako parte hartzaileak. 'EUROPA SORTZEN'

SORMENEZKO LANAK AURKEZTEN DITUZTE PARTE-HARTZAILEEK, BARNE PROZESU BATETIK ABIATUTA

puntu horrekin konektatu nahi dugu", erantsi du Matak.

Tartean, hiru antzuolar

Hamar kideetako bakoitzak azken urtean garatutako lana aurkezteko aukera izan du jardunaldietan, eta horietako bat izan da Matarena: *Itzalak*. Bizitzaren muinera bidaia egin, ama lurrera, kobazuloetara, eta hasiera horrekin gizakiek duten konexioa erakutsi nahi izan du bere lanean: "Zugarramurdin (Nafarroa) ibili nintzen urte batzuetan, hango museoa jarri genuen martxan hango kondairak, hango magia, gorde beharra zegoela uste genuelako, eta horrekin gogoratuta sortu dut *Itzalak*". Ohikoak dituen txotxongiloak albo batera utzi, eta beste arte diziplina bat probatu du oraingoan Matak, argiekin eta itzalekin jolastu baitu haren

lana sortzeko. "Ez dakit zein ibilbide izango duen lanak aurrera begira, baina jendea hona [Laskurainandi baserria] etortzeko ideia dut buruan".

Jardunaldietan izan da Marisol Abreu ere, Venezuelakoa den antzuolarra, eta *Respiro* lana aurkeztu du. "Buztina, narrazioa, poesia... landu izan ditut jardunaldien beste edizio batzuetan, eta marrazkietan murgildu naiz aurtengoan. Lanak ez du kalitate teknikorik, ez baitut marrazketa ikasi, baina hutsetik sortzen da, itzarotetik... Azkenean, nire esperientzietatik sortutako bi irudi agertu zitzaizkidan, eta irudikatu egin nituen: arkatzarekin, orri normal batean, eta akuarelarekin, kolorea emateko. Obrak hirugarren parte bat ere badu: idatzi bat".

Han izan da Ariel Moreno herriarra ere, jatorri venezuelarrekoa; *Color y algo más* lana aurkeztu du. "Instalazio modular bat da, teknika mistoarekin: collagea da lanaren zentrala, burmuin bat balitz bezala, eta koloreak ditu ondoren, alkohol-tintak erabilia. Garrantzi handia du argiak lan honetan. 2024ko azken hiruhilekoan egin dut".

Martxan da 'Guria erabili zeinke' kanpaina herriko komertzioetan

Haurrek eta nerabeek zerbitzu publikoetako eta dendetako telefonoak erabili ahal izango dituzte

A.R.K. ANTZUOLA

Altxa Burua taldeak, Udalarekin batera, martxan du *Guria erabili zeinke* kanpaina, umeek eta nerabeek eskuko telefonoa erabiltzeko beharrik ez dezaten izan helburuztat hartuta. "Horrez gain, kanpainaren asmoa da, umeek esparru publikoa berreskuratu eta erabiltzeaz gain, komunitateko kideen laguntza, babesa eta koordinazioa indartzea, eta heldu-erreferentzia gehiago izatea, gizarte-sarea indartzeko".

Hala, kasu horretan, herriko zerbitzu publikoak eta saltokiak

izango dituzte bidelagun 8 eta 16 urte arteko haurrek eta nerabeek, kanpainarekin bat egin duten zerbitzu etako telefonoak eskuragarri izango baitituzte beharra dutenetan. "Horretarako, hain zuzen ere, *Guria erabili zeinke* jartzen duen pegatina identifikagarriak izango dituzte jarrita leku ikusgarri batean".

Kanpainak urtebete iraungo izango du, 2025eko Gabonetara arte, eta sustatzaileek ondoren baloratuko dute nola jarraituko duten etorkizunean.

GORA ETA BEHERA



Torresoroako ateetako bat apurtu egin dute

Udalak salatu duenez, abenduaren 27 goizean agertu zen Torresoroako sarrerako ateetako bat apurtuta – liburutegirako, gizarte zerbitzuetarako eta aretorako sarbidea-. Herriarendako "eragin ekonomikoa" izango zuela ohartarazi zuen, 2.000 euroko gastua zehaztuta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



Bakarrizketa saioak izango dira gaur iluntzean gaztetxean

Bakarrizketa saioak izango dira gaur iluntzean Antzuolako gaztetxean, 20:30ean hasita. Hain zuzen ere, Esti Curiel zumaiarra, Manex Astigarraga debarra eta Xabin Fernandez legorretarra arituko dira oholtza gainean euren bakarrizketak egiten. Sarrerera, gainera, doakoa izango dela jakinarazi dute Gazte Asanbladako kideek.

'Zaldi mamarroa' lana izango dute berbaigai irakurle taldean

Eguenean, hilaren 16an, elkartuko da euskarazko irakurle taldea urtarrileko saioan, eta Ekaitz Goienetxea idazle lapurtarraren *Zaldi mamarroa* (Elkar, 2018) liburua izango dute berbaigai parte-hartzaileek. Alaine Agirre idazleak izango du saioaren gidaritzaren ardura, eta liburutegian izango da, arratsaldeko seieta.

Eskolako jantoki eredua aldatzeko urrats berriak

Udalak 300.000 euroko diru-lerroa bideratu du proiekturako, eta udal aurrekontuko inbertsiorik garrantzitsuena da. Proiektua idatzita dago eta Jangela Eraldaketa batzordeak lanean dihardu Hezkuntza Saitetik finkatutako irizpideak betetzeko

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Gaia potoloa da eta erpin asko ditu. Denbora eskatzen du eta horretan ari gara, baina proiektua egin dago eta xehetasunak lotzen jarraitzea falta zaigu", adierazi du Hezkuntza zinegotzi eta Jangela Eraldaketa batzordeko kide Kepa de Vegak.

Egitasmoak 2021ean egin zituen lehen urratsak, eta, ordutik, familiendako elikadura eskola, Hamaiketako Osasungarria ekimena, eskolako jangelaren inguruko lan-saioa eta Jangela Eraldaketa batzordearen sorrera izan dira mugarri nagusiak.

Udalbatzak, berriz, eta Udalean ordezkariak duten bi alderdien babesarekin, 300.000 euroko diru-lerroa sortu du obrari ekiteko. "Itxaropentsu daude", azaldu dute Jangela Eraldaketa batzordekoek. "Herriko alderdiak proiektuaren alde daude. Guraso elkarteak eta eskolako organo gorenak ere bai (...) Gainera, Hezkuntza komunitatean eraldaketaren inguruko galdeketa egin dugu, eta %94k babestu dute".

Proiektua eginda dago

Goiatxe eta Mendieta arkitektoek egin dute jangelaren eraldaketarako proiektua. Antzokiko sukaldean eta jangelan kokatua, sukalde propioa eta 96 jankiderendako lekua izango luke espazioak. "Ikasturte honetan 97 ikasle daude zerbitzuan alta emanda, eta egunean batez beste 81 jankide daude. Bi txanda egin behar dira", azaldu dute eskolakoek. "Gaur egungo jantokia Haur Hezkuntzako ikasgelen alboan kokatutako gela bat da. Office-a dauka, eta eredu garraiatua da: janaria prest eta ontziratuta ekartzen da, beroan mantenduz. Dieta bereziak hotean heltzen dira eta eskolan berotzen dira", azaldu dute.

Eredu berriarekin, catering enpresek lehengaiak ekarriko lituzkete eta goizean bertan pres-



Elgetako eskolako jangelak ez du sukalderik gaur egun, office-gune bat du. UDALA

"JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN LAGUNTZA EZINBESTEKOA IZANGO DA"

tatuko litzateke bazkaria eskolako sukaldean. "Epe luzera begira gertuko eta sasoiko produktuez hornitzen den jangela bat dugu xede, baina hori posible izan bitartean urrats xumeago bat egitea dugu helburu: eredu garraiatutik, bertan, bertakoen tza eta momentuan prestatutako janaria ekarriko lukeen eradura", esan dute batzordekoek.

Hezkuntza Sailarekin lanean

Jangela Eraldaketa batzordeko kideak aurreko ikasturtean hasi ziren hartu-emanetan Hezkuntza Saileko ordezkariekin. "Erantzun hau jasotzen dugu: 'Hezkuntzak ez du bere gain hartuko obra'. Beste aukera bat Hezkuntza Sailak udalei ematen dien dirulaguntzen bidea hartzea da: %60ko laguntza ekarriko luke. Hezkuntza Saileko teknikariekin eta ordezkariekin elkarlanean

jarraituko dugu. Dirulaguntzak bideratzeko, haiengandik jasotako irizpideak jarraituko ditugu, poliki-poliki beharrezko pausoak emanez".

Jangela Eraldaketa batzordeak ontzat hartu du Udalak proiekturako 300.000 euroko diru-lerroa sortu izana, baina ahal izateko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza ezinbestekoa izango da, eta horretan dihardugu elkarlanean. Jarrera baikorra erakutsi digute eta itxaropentsu gaude", adierazi dute.

Udal ordezkarien babesa

"Proiektu hori oso garrantzitsua da guretzat. Eskolan dagoen jantoki eredua kezka sortzen ditu, eta badoaz urte batzuk horren inguruan aztertzen eta sakontzen. Uste dugu proiektu hori aurrera eramateko urtea dela. Apustu egiten dugu eskola jangela eredu osasuntsu, hurbilago eta hezitzaile baten alde", esan zuen alkateak azken osoko bilkuran.



L.Z.L.

Hilketa matxista salatu dute

Barakaldoko hilketa matxista salatzen elkartziren martitzenean hainbat elgetar. Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak egindako deialdiaren bat egin, eta *Beste emakume bat eraila. Aski da* zioen pankarta zabaldu zuten, plazan, Amantalak talde feministako kideek. Indarkeria matxistak 126 emakume eta hamabi ume hil ditu Euskal Herrian 2013a ezker.

GORA ETA BEHERA



Kanpandorreko ordulariak ez ditu ordu osoak jotzen



Ordulariak du matxura, eta konpondu egingo dutela esan du alkateak. Aurreratu du, bestalde, gaueko kanpaikadak kentzeko asmoa duela Udalak, hainbat herritarrek horrela eskatuta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Kantsatzeke mendi taldeak urteko batzarra egingo du

Urtarrilaren 21erako iragarri dute urteko batzarra, 20:00etan, kultura etxeko bigarren solairuan. Bestetik, urtarrileko martitzenetan federatzeko eta bazkide egiteko aukera emango dute, 19:00etatik 20:00etara, leku berean. Etxetik egiteko aukera ere izango da, bazkidetu.kantsatzeke.eus loturan dagoen formularioa beteta.

OHARRAK

Intxortako igoera


Urteroko ekitaldia, domekan, 11:00etan, Intxortan.

Podologoa

Eguaztenean izango da kontsulta. Txanda hartzeko: 653 74 19 64 (Uri Gallego).

Koko-batzea: batzarra

Goibekok lehen batzarra deitu du. Eguaztenean izango da, hilak 15, 19:00etan, Ozkarbin.



Xabier Zabaleta, Iñaki Olalde eta Xabier Igartua, martitzenean osoko bilkuren aretoan egindako aurkezpenean. TXOMIN MADINA

2.855 toponimo, mapa interaktiboan jasota

Herriko erreken, basoen, mendien, etxeen zein bestelako tokien izenak batzeko egin den lana bukatu, eta udal webgunean sartuta herritar orok kontsultatu ahal izango duen mapa interaktibo batean kokatu dituzte. Urtarrilaren 15ean aurkeztuko dute

Oihana Elortza Gorostiza GOIENA

Herriko batez ere, landa eremuko 2.855 toponimo identifikatu eta batu dituzten mapa interaktiboa prestatu du Oñatiko Udalak, laster udal webgunean kontsultatzeko moduan egongo dena. Datorren eguaztenean, urtarrilak 15, nola erabili jakiteko erremintak erakutsiko eta azalduko dituzte herritarren aurrean egingo duten aurkezpenean, baita ekarpen berriak nola egin ere, mapa aberasten segitzeko.

Auzotarrekin egonda

Azken lau hamarkadetan hainbat izan dira Oñatiko toponimia batzeko egin diren ahaleginak. 1983an, Jose Anjel Idigoras oñatiarrak eta Aranzadi elkarrekin elkarlanean 1.705 toponimo jaso zituzten. 90eko hamarkadan, eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, Deustuko Unibertsitateak lantaldean Amaia Erostarbe zegoela egindako lanketa baten ostean beste 977 toki-izen batu zituen. Orain, horiei guztiei

beste 173 izen toponimiko gehitu zaizkie, eta, denera, 2.855 izeneko bilduma dago. Emun enpresako Elias Zumalde herritarra izan du orain arte batutako bilketa egin eta izen berriak gehitzearen ardura. Azken urte eta erdian ibili da horretan. "Auzo bakoitzean informatzaileak topatzea izan zen lehen pausoa. Hiruzpalau topatutakoan, bilerak egiten zituzten aurreko izenen berrikusketarekin egiteko eta berriak topatzeko", azaldu du Udaleko Euskara teknikari Xabier Zabaletak.

Orain arte jasotako 2.855 toponimo horiek adostutako idaztarau batzuk jarraituta daude idatzita eta jasota laster kontsultatzeko moduan egongo den

**KULTURA ETXEAN
IZANGO DA
HERRITARRENDAKO
AURKEZPENA,
HILAREN 15EAN**

mapa interaktiboan. "Asko daude batuta, baina gehiago jasotzen jarraitu gurako genuke. Baita toki-izen horiei buruz etxeetan hitz egitea ere, ikustea jasota daudela inoiz edo hainbatetan entzundako toki-izen horiek. Geure ondarea da hori, ahozko transmisioaren bidez jaso dugu, eta idatzita, jasota, dago orain. Uste dut oso garrantzitsua dela hori etorkizunerako", dio Euskara eta Kultura batzordeburu Iñaki Olalde.

Bilatzailerekin

Teknologia berriekin ematen dituzten aukerak erabili dituzte mapa ahalik eta osatuena izateko eta erraz erabiltzeko. "Bilatzaila bat ere jarri dugu, hizki gutxi batzuk jarrita toponimoen zerrenda bat erakutsiko duena: bakoitza zein auzotan dagoen esateaz gain, gainean klikatuz gero mapan duen kokalekura eroango du erabiltzailea", azaldu du Landa Garapenerako batzordeburu Xabier Igartuak.

Ikastaroen gain, gizonen foroa jarriko dute martxan otsailean

Jabetze Eskolak antolatuta izango dira guztiak eta izenak urtarrilaren 22ra arte jasoko dituzte

O.E.G. GOIENA

Txi kunga, teoria feminista, komunikazioa, amatasunak, umore tailerra, irakurketa kluba, jelsokortasuna, autodefentsa ikastaroak eta gizonen foroa jarriko ditu martxan neguan hasi eta udaberriaren bukatuko den Jabetze Eskolako eskaintzak. Otsailaren 12an hasiko da azken hori, adibidez, eta hiru aste behin saio bat egingo dute, maiatzera bitartean.

Komunikazio asertiboa –urtarrilaren 28tik– eta pentsalari eta ekintzaile latinoamerikarren lanei buruzko irakurketa taldea –hilaren 29tik– izango dira hasiko dituzten lehen bi ikastaroak. Bakoitzaren egutegia zehaztuta dute eta Udalaren webgunean ikus daitezke. Izenak ere hortxe edo HAZ bulegora joanda eman behar dira. Horretarako azken eguna urtarrilaren 22a da. Lehen-



Gizon bat Bidebarrieta kalean. GOIENA

tasuna izango dute Oñatin errolatutakoek eta aurrez ikastaro bera egin ez dutenek. Zozketa bidez eratuko dituzte taldeak, eta harremanetan jarrita konfirmatuko dute parte-hartzea. Taldea sortzeko, gutxienez zazpi pertsona behar dira.

Martitzenean hasiko dituzte Inauterietako entseguak

Gabonak bukatuta, martxoaren lehen egongo den Aratuste egunerako lanean hasita dago Oñatiko Inauterietako taldea; datorren martitzenean egingo dute lehen entsegua, hilaren 14an. Martitzenetan, 19:00etan, eta zapatuetan 12:00etan izango dira entsegu saioak, Eltzian. 2008. urtean edo aurretik jaiotakoek parte hartu ahal izango dute.



Oñatiko Inauterietako. GOIENA

Ekaintxou pailazoa eta txotxongiloak ikusteko sarrerak

Ekaintxou pailazoaren saioa eta txotxongilo ikuskizuna egongo dira gaztetxean datorren hilean, eta sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai, urtarrilaren 13an. Ekaintxouren malabarismo eta jolas ikuskizuna otsailaren 2an izango da eta txotxongilo saioa, otsailaren 23an; biak 17:00etan. Sarrerak Mizken eta Txokolateixan eros daitezke.

Arkauzen, Bellotzan eta Mizken banatu dituzte sari nagusiak

Akazu Optikan –78.908–, Bellotza lora dendan –6.766– eta Mizke gozoki-dendan –66.777– banatu dituzte Gabonetako urtarrileko loterian sarituak izan diren lehen hiru zenbakiak. 1.000, 600 eta 400 euroko saria dute, hurrenez hurren. 30 euroko 99 sari ere emango die Txandak lehen sariaren azken hiru digituekin bat egiten duten zenbakien jabeak.

Gipuzkeraz idatzitako lehen lanetako bat

Arantzazuko liburutegiaren garbiketa egiten ari zirela aurkitu zuten 'Doctrina Christianaren explicacioa' liburua. XVIII. mendean idatzitako lanaren ale gutxi daudela dio David Cano historialari oñatiarrak, eta Arantzazun dago horietako bat

Julen Murua Mesonero OÑATI

Gipuzkeraz idatzitako lehenen-gotariko liburua aurkitu dute Arantzazuko liburutegian: Jose Otxoa Arinek idatzitako *Doctrina Christianaren explicacioa*. 1713. urteko lana da, eta gipuzkeraz idatzita dago, XVIII. mendean Villafrancan, gaur egungo Ordizian, euskalki horretan hitz egiten zelako. Arantzazuko liburutegiaren garbiketa amaitu ostean topatu dute bertan lanean ibili direnek duela mende batzuk idatzitako liburu hori, eta zeresana piztu du euren artean.

Hiru urteko lana

Arantzazuko liburutegia garbitzen ibili dira azken hiru urteetan bertako teknikariak, eta 2024 amaitu aurretik bukatu zituzten garbiketa lan guztiak. Hiru urteko jarduna izan da; izan ere, liburutegi batean "80.000 edo 100.000 liburu" ego-teak luzatu egiten ditu guztia- ren garbiketa eta katalogazio-lanak, David Cano historialariaren arabera. Horrenbeste liburu- ren artean badaude oso esanguratsuak diren batzuk; tartean, Otxoa Arinek idatzitako liburua. "*Doctrina Christianaren explicacioa*, *Villafranca Guipuzcoaco onetan eufcaraz itceguitendan moduan* liburua 1713. urtean idatzi zuen Otxoa Arinek. Erdarazko grafian idatzita dago, duela hamarkada batzuk arte grafia horretan idazten zelako euskaraz. Eurek ahoskatzen zuten bezala idatzita dago; hau da, doktrina kristaua XVIII. mende hasieran Villafrancan [Ordizian] hitz egiten zen euskarara itzulita dago", Canoren arabera. Historialari oñatiarrak dio, gainera, lan hori ezagutzen dela "gipuzkeraz idatzitako lehenengoetariko liburu" bezala, eta, horri gehituta liburuaren ale gutxi daudela, aurkikuntza are bereziago bihurtu da.



Garbitzen aritu diren Juan Miguel Dorronsoro, David Cano eta Noelia Gomez. D. CANO



'Doctrina Christianaren explicacioa'. D.C.

Aurretik ezaguna

Canoren arabera, "lan luzea" da liburutegia garbitu eta liburuak katalogatzearena. Esan bezala, hiru urteko jarduna izan da eurentzat, eta aurkitzen zituzten liburuaren garrantzia aztertu behar izaten zuten katalogatuta ez zeukaten liburu bakoitzeko.

HIRU URTEZ IBILI DIRA ARANTZAZUKO LIBURUTEGIAREN GARBIKETA LANETAN MURGILDUTA

Otxoa Arinen liburuarekin, baina, ez da lan zaila izan; izan ere, Canok Ordiziako historia ikertzen du, eta bazuen pertsonaia haren berri: "Aurkitu arte, ez neukan liburua fisikoki ikusita, baina banekien existitzen zela. Liburuaren ale bat Arantzazun aurkitzeak poztu egin ninduen".

Liburutegia aberasten

Aurkikuntza berezia izan da Arantzazuko liburutegiaren garbiketa lanetan ibili direnentzat, eta, Canoren arabera, halako lan bat aurkitzea "aberasgarria" izan da liburutegientzat. "Arantzazuko liburutegian daude 500, 600 edo 700 liburu inguru, patrimonioak direnak; akaso, Espainia osoan halako hiru aurki daitezkeelako, edo mundu osoan ale bakarra. Badugu Arantzazuko fraide batek XVII. mendean bertako historiaren inguruan idatzitako liburu bat, eta mundu osoan liburu horren ale bakarra dago. Ez da Otxoa Arinen liburuaren kasu berbera, baina bata zein besteak aberastu egiten dute liburutegia", Canoren arabera.

"Hunkigarria izan zen Pake Lekuko aitortza jasotzea"

MIGEL MARI GURIDI 'TXOME' 'PAKE LEKU' SARIDUNA
Pake Leku elkarteko eskertza jaso du oñatiarrak

J.M.M. OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkar-tearen 2024ko Boluntariotza Saria jaso du Migel Mari Guridi *Txome*-k (Oñati, 1942). Musikarekiko eta herriarekiko lotura handia izan du, eta urte hauetan guztietan herriari, eta bereziki Pake Lekuri, egindako ekarpena aitortu gura izan diote elkarteko kideek.

Zer da aitortza hori jasotzea?

Oso pozgarria izan zen, ez nuen espero halako aitortzarik, ezta horrenbeste pertsona gerturazterik ere. Kantuan ibili ginen, eta oso ondo prestatu zuten guztia Pake Lekuko kideek.

Herriari asko eman diozun erakusle da.

Hala esaten dute, bai. Norbera, askotan, kontziente ere ez da izaten halako aitortza bat jaso arte. Urteak daramatzat Pake Lekuri lotuta; batzordeko kide ere izan nintzen, eta bertatik Boluntariotza Saria jasotzea ederra izan zen. Hunkitzeko modukoa, benetan.

Urteak egin dituzue musikari lotuta.

Bai; urte pila bat egin ditut Pake Lekun eta Oñatiko bandan. Pake Lekun hasi ginenean, Santa Ageda egunean atera



Migel Mari Guridi *Txome*. GOIENA

ginen kalera koruarekin aurreneko. Entsegu batzuk egiten hasi ginen, eta gaur egun ere martxan jarraitzen du elkarteko koruak.

Hunkitzeko moduko ekitaldia izan zen, ezta?

Bai, oso hunkigarria izan zen ekitaldia. Familiako kideak egon ziren aurreneko lerroan, eta Pake Lekuko aretoa bete egin zen. Asko gozatu nuen egunaz, eta esker hitzak besterik ez dut omenaldia antolatzen ibili ziren guztientzat; izan ere, hunkituta amaitu nuen.

Elikadura Mahaia sortzeko lehen bilera, martitzenean

Oñatiko Elikadura Mahaia sortzeko lehen bilera martitzenean, urtarrilak 14, izango da, 18:30ean, kultura etxeko goiko gelan. Elikadura Mahaia sortzeko proposamenarekin egin zuen aurkezpena horretarako lanean ibilitako lantaldeak. Hitzaldiak antolatu zituzten abenduko hiru egunetan eta gaia herritarrei azaltzeko aprobetxatu. Herritarrek interesa agertu dutela ikusita, Elikadura Mahaia sortzeko lehen bilera egingo dute datorren astean. Tokiko elikadura jasagarriaren aldeko sentsibilizazioan, ekintzetan, saretean jardungo du mahaia horrek eta urratsak eman taldea osatu eta dinamika hartu ahala.

Garuneko gimnasia tailerra egingo dute, lau astez, Zubikoan

Datorren astean hasita, garuneko gimnasia tailerra egingo dute Zubikoa kiroldegian lau astez. Ohitura osasuntsuaren orientazio zerbitzuak, Adinduk eta Oñatiko Udalak antolatuta, kiroldegian egingo dira saioak, 16:00etatik 17:30era, urtarrilaren 14an, 21ean eta 28an eta otsailaren 4ean. Garunari gimnasia eraginez lor daitezke jarduerak egiteko kontzentrazioa erraztea, mugimenduaren trebetasunak lantzea, garunaren zahartzea atzeratzea edo informazioa mantentzeko gaitasuna hobetzeko moduko onurak. Izena kiroldegiko harreran edo poz.oinati@athlon.eus helbidera mezua bidalita egin daiteke.

Kiroldegiko bazkidetzan aldaketak egiteko aukera

Urte osorako bazkidetzan aldaketaren bat egin gura dutenek urtarril bukaerara arte izango dute aukera; bestela, 2024ko kuota kobratuko zaie. Ordainketa helbideratuta duten bazkideei otsail hasieran egingo diete urteko bazkidetzaren kobrantza

Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Urte hasierarekin, Zubikoa kiroldegiko bazkidetza berritzeko unea heldu da. Dagoeneko dei egin diete bazkideei, eta abonatu-txartelean aldaketaren bat egin gura dutenek urtarril bukaerara arte izango dute horretarako aukera. "Urteko ordainagiriak otsail hasieran pasako ditugu. Beraz, bazkide-txartelean aldaketaren bat egin behar duten bazkideek urtarrilean egin beharko dute. Aldaketarik eskatzen ez duten bazkideei 2024an indarrean zuten bazkidetza mota kobratuko zaie", esan du Oskar Carrascal Kirol teknikariak.

Ordainketa helbideratuta dutenei otsail hasieran egingo diete kobrantza. Aldiz, eskuz ordaintzen dutenek dagoeneko egin dezakete, kiroldegian bertan. Bazkidetza-abonua ordaindu arte, baja emango zaie.

Hobarren eskaera

2024an hobariren bat jaso zutenek eskaera egin beharko dute, aurten ere hobaria edukitzeko. Herritarren Arreta Zerbitzuan edo udal webgunean egin daiteke eskaera. Inprimakiak kiroldegian ere badaude. Hobariak eskatzeko azken eguna hilaren 20 da, eta eskaria egiten ez dutenei kuota osoa kobratuko zaie.



Hainbat erabiltzaile Zubikoako gimnasioan, eguaztenean. M.B.M.

URTARRIL BUKAERA ARTE EGIN DAITEZKE ALDAKETAK ZUBIKOAKO URTEKO ABONUAN

"Dena den, aurrerago bazkide berriak etortzen badira, hobaria eskatu ahal izango dute, maiztaren 31ra arte", gaineratu du Carrascalak.

Errentaren eta bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren ara-

bera, %25 eta %95 arteko hoberia lortzeko aukera dago.

Beste aukera batzuk

Urte osorako bazkidetzaz gain, kiroldegia baditu egunerako sarrerak eta aldi baterako abonua ere. Azken horietan daude urteko azken seihilekorako edo hiruhilekorako abonua. Lehenak urteko abonua %60 balio du eta bigarrenak, %35.

Bestalde, gimnasia, rokdromorako, igerilekurako eta saunarako eguneko sarrerak ere badaude.

4.231 bazkide urte bukaeran

Zubikoa kiroldegia 4.231 bazkide zituen 2024 bukaeran. Haietatik 1.248 banakako bazkidetzak ziren, pertsona bakarrekoak, eta 2.983 familiarak. Aurtengo kanpainak zein zifra emango duen jakin barik, kiroldegiko bazkidetzan goranzko joera dagoela erakusten dute datuek. 2023 amaieran 4.079 bazkide ziren, 2024an baino 152 gutxiago.

Udako hilabeteetan

Urterako bazkidetza egiten ez duten hainbat herritarrek eguneko sarrerak eta hamar eguneko bonuak ere erabiltzen dituzte. 3.351 pertsonak erabili zuten aukera hori. Oso parekoak dira saunarako, eremu lehorrerako eta igerilekurako hamar eguneko bonuen erabilera: 143na lehen bietarako eta 135

hirugarrenerako; saunarako bonu gehien, 72, iazko urtarrilean erabili ziren; gune lehorrerako, urtarrilean (20), apirilean (21) eta uztailen (16).

Eguneko sarrerei erreparatu, gune bustia erabiltzeko kopurua da handiena: 1.513. Horren %62,5 -947 sarrera- ekainean, uztailen eta abuztuan izaten dira. Hilabete horietan ere nabarmen igotzen dira gune lehorra egun batez erabili gura duten pertsona kopurua.



Iker Martinez de Zuazo, Iñigo Ibarrondo, Ane Arruti eta Egoitz Olalde. KEIA

Gaztelekua berotzeko ardura Keiak eta Delirium Tremensek

Biharko emanaldirako sarrerak udal webgunean eros daitezke, hamabi eurotan -kudeaketa-gastuak, 0,50-

M.B.M. OÑATI

Keia eta Delirium Tremens taldeak batuko ditu urteko lehen kontzertuak gaztelekuko ohol-tzan -bihar, zapatua, 22:00etan-. Sarrerak salgai daude udal webgunean eta leihatilan, hamabi eurotan.

Keiaren bigarren diskoa

Mutrikuko taldeak geldialdia egingo du Oñatin, haren agur-biraren baitan. Basterretxea, Irisarri, Yurrita eta Harreguy igoko dira oholtzara. Eta, hain justu ere, Harreguy da bi taldeen arteko lotura. Izan ere, Keiak

Harreguyekin grabatu du bigarren diskoa. "Guretzat ohorea da talde mitiko honen hasierako kantari izatea. Badakigu jende asko joango dela kontzertura haiek entzutea, baina gure musika iristen bazaie, pozik geratuko gara", kontatu dio GOIENARI Keiako abeslari Ane Arrutik.

Hain zuzen ere, Harreguyekin grabatu duten *Zamalanak* bigarren diskoa aurkezteko emanaldia izango da biharkoa: "Gogotsu gaude kanta berriak zuzenean jotzeko gaztelekuan; lehen aldia izango da".

Allegro Vivo musika bandaren saioa, Kepa Lopezek zuzenduta

Zuzendari oñatiarrarendako lehen kontzertua izango da domekan egingo dutena, Santa Anan, 12:30ean

M.B.M. OÑATI

Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan sortutako Allegro Vivo musika banda emanaldia egingo du domekan, Santa Anan, 12:30ean. Banda zuzentzen egongo da Kepa Lopez Lasa oñatiarra, eta lehen kontzertua izango da harendako. "Urduri nago. Zuzendari moduan egiten dudan lehen kontzertua izango da, eta etxean, gainera. Ea nola kudeatzen ditudan nerbioak", esan du Lopez Lasak.

Emanaldia deialdekoa izango da, aretoaren edukiera bete arte.

Zuzendari ikasketak

Lopez Lasak zuzendari ikasketak egiten dihardu, eta hari bururatu zitzaion musika banda martxan jartzea. "Zuzendari lanetan gabiltzanok aukera txikiak ditugu praktikak egiteko. Are gutxiago, hasiberriak gare-nok. Hala, kontserbatorioko musikari batzuekin berba egin, eta banda sortzea erabaki genuen. Musikariak badute eskarmentua zuzenekoetan, baina niretzat lehen aldia da".

Hiru poema sinfoniko prestatu dituzte domekarako.

6.

ALDA

DANBAKA))))))

MUSIKA LEHIAKETA

DEL VAL REBEL NOISE MALKO

Bergarako
Seminarixoa
Urtarrilak 17
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
TURTUKIÑA KOLEKTIBOA

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena eta Primeran
aplikazioetan alta emanda **0 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**



Begarako Udala



GIPUZKOA

Kultura



SEIN

Leuzak, Leizorak, Erriberak,
Hondarribia, Leizorak, Leizorak

goiena™

KOMUNIKAZIO TALDEA

PRIMERAN





Larrea, iaz, Udalatxeko gainera iristeko azken metroen faltan, animoak jasotzen. ANTON GUARESTI

Izena ematea ez dadila buruhauste bilakatu

MENDI LASTERKETAK Arrasate-Udalatxeko eta Aloñako Igoerako antolatzaileek izen-ematea egiteko sistema aldatzea erabaki dute, eta zozketa bidez egingo dute. "Lasterketa aurretik beste lasterketa bat egoten delako, izena ematekoarena"

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE Otsailaren 22an egingo dute Antzuolako 8 Miliak lasterketa, Debagoieneko egutegiko lehenengoa. Eta dortsalak hamar minutuan saldu dituzte antolatzaileek. Horrek esan nahi du makina bat lagun egon dela, izen-ematea zabaldu zuten uanean ordenagailua edo poltsikoko telefonoa eskuetan, izena eman

guran. Eta minutu batzuek des-pistatu zena kanpoan geratu da. Mendi lasterketetan –edo bestelako kirol proba edo kultura ikuskizunetan– parte hartzen ibiltzen direnak ohituta daude euren agendetan egun eta ordu jakin horiek gordetzera, bereziki arrakasta izaten duten lasterketetako dortsalak segituan agortzen direlako. Hala,

asko dira Arrasate-Udalatxeko edota Aloñako Igoerako irteera puntuan egon nahi izaten duten korrikalariak, baina aurten ere ez da denendako tokia egongo. "Ez dakigu esaten guztira zenbat lagun geratzen diren kanpoan, izena emateko orduan askok gailu bat baino gehiago erabiltzen dutelako izen-ematea tramitatzeke. Arazoa ez da ego-

ten izen-ematearen webgunean bertan, baina bai ordainketa egiteko orduan. Sistemak pasabide berri batera bideratzen zaitu, eta tarte horretan jende asko pilatzen denean etortzen dira arazoak eta haserreak", dio Aloñako Igoerako antolatzaile Pablo Arejolareibak. "Arrasate-Udalatxen urtero izaten dugu gutxienez 100 laguneko itzarote-zerrenda, eta aurten ere ez dira gutxiago izango".

Zozketa bidez egingo dute

Hori amaitzeko, aurten zozketa bidez banatuko dituzte dortsalak. Arrasate-Udalatxen (apirilak 13) izena emateko epea astebetekoa izango da: urtarrilaren 20an (00:00etan) hasi eta urtarrilaren 26an (23:59an) amaituko da (*kronoak.com*). Eta izena ematen dutenen artean otsailaren 8an zozketa bidez 400 dortsal banatuko dituzte –arrasatearrendako 100 dortsal gordeko dituzte–.

Aloñako Igoeran (apirilak 27) 300 dortsal salduko dituzte, eta 80 oñatiarrendako gordeko dituzte. Oñatiarren izen-ematea urtarrilaren 18an 10:00etan zabalduko dute, eta urtarrilaren 19an 20:00etan itxi; ohiko metodoa jarraituz, zozketa gabe. Izen-emate orokorrerako zozketaren izen-ematea, berriz, urtarrilaren 20tik urtarrilaren 23ra bitarte izango da. Eta zozketa urtarrilaren 24an egingo dute.

Aloñako Igoerak 20 urte

Aurten, gainera, Aloñako Igoerak bi hamarkada beteko ditu, eta, hori ospatzeko, ohiko lasterketarekin batera, egubakoitzean (apirilak 25) Buetraitzeko kilometro bertikaleko lasterketa egingo dute.

Zergatik aldatu duzue sistema?



PABLO AREJOLALEIBA
ALOÑAKO IGOERAKO ANT.

"Azkeneko urteotan korrikalariak bi lasterketa egin behar izan dituzte: Aloñako Igoerakoa bata eta bertara izena emateko bestea. Hori amaitzea nahi dugu, jendea ez dadila estresatuta ibili, ea ze emaitza ematen duen, eta baloratuko dugu gero".



GANIX LASA
MONDRAITZEKO KIDEA

"Izen-emateekin harreman sanoagoa izan beharko genuke; ea sistema hobea den. Gainkostu batzuk ditu, baina gure gain hartuko ditugu. Jendea lasaigo ibiliko da, eta justuagoa da. Gainera, beti egongo da lehengo sistemara bueltatzeko aukera".

Puertollanoko gola sartu zuen Jesus Mari Aranbarri hil da

FUTBOLA Realarekin debut partiduan lortu zuen mailaz igotzeko txartela eman zuen 2-2koa egitea

X.U. ARRASATE Jesus Mari Aranbarri Otxoa (Arrasate, 1948) futbolari ohia hil zen martitzenean, 76 urterekin, Gasteizen. Garagartzakoak Mondran, Realean eta Alavesen jokatu zuen. Bereziki talde txu-

ri-urdinean zegoela egindako gol batek eraman zuen gipuzkoarren bihotzetara, 1967ko apirilaren 23ko arratsalde hartan arrasatearrak Puertollanon egindako 2-2koari esker igo zen eta Real Lehenengo Mailara.

Realarekin egin zuen debuteko partiduan lortu zuen kirol ibilbideko gol garrantzitsua.

Arrasatekoa Mondratik fitxatu zuen Realak, eta denboraldi erdia Sansen jokatu zuen, Puertollanoko partidurako Elizondo entrenatzaileak deialdian sartu zuen arte. Hala, gol garrantzitsu harekin batera arrasatearrak beste hamar sartu zituen Realarekin. Klubean beste bost urte egin zituen, baina ez zuen askorik jokatu, eta 1972an Alavesek fitxatu zuen.



Aranbarri, Mojategin. GOIENA

Valdanorekin batera

Alavesen ere jokalaria historiko bilakatu zen Aranbarri, 70eko hamarkadako taldearen bizkarrezur bilakatu zen eta. 1974an taldea Bigarren Mailara igo zutenean, arrasatearra zen kapitaina, eta, 1975ean talde babazorroak fitxaketa garrantzitsu bat egin zutenean, Jorge Valdano, biek osatu zuten Alavesen aurrealdea. Erretiroa hartuta, Alavesko bigarren entrenatzaile ere ibili zen, Txutxi Arangurenen esanetara.

Derbiak Arrasaten eta Bergaran, seniorretan

ESKUBALOIA Gipuzkoako txapelketan derbiak izango dira asteburuan Debagoiengan: gizonetzkoetan, arrasatearrek oñatiarrak hartuko dituzte, Iturripen; eta emakumezkoetan, beste horrenbeste egingo dute bergararrek, Labegaraletan

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Urtea hastearrekin batera, egutegiak senior mailako bi derbi ekarriko ditu astebururako: batetik, emakumezkoen ligan, Bergarako Mondragon Lingua-koek eta Oñatiko Construcciones Ugartekoek bigarren itzuliko norgehiagoka jokatuko dute, zapatu arratsaldean, Labegaraletan (13:00). Joaneko partiduan, Oñatin, bistan geratu zen bi taldeen artean alde handia dagoela (36-20), eta helburuak ere ez dituzte berberak: oñatiarrak Euskadiko Txapelketatik datoz eta Bergarakoa aurten hasi berri duten proiektua da. Eta, hala ere, txantxikuei kosta egin zitzaizen liga hasieran erregularitasuna lortzea, baina azken lau partiduak jarraian irabazi dituzte.

Lehen puntuak Bergarak

Bergarakoen kasuan, mahone-roek pisu handia kendu dute gainetik. Bergararrek duela bi jardunaldi erakutsi zuten ligako lehenengo garaipena iristear zetorrela, Usurbilekoen kontra eskura izan zituzten-eta denboraldiko lehen puntuak. Hala, partidu lehiatua jokatu ondoren, norgehiagokako azken jokaldian hartutako erabaki txar batek ekarri zuen esku hutsik buel-



Oñatiarren eta bergararren arteko azken partiduko irudi bat, iaz. GOIENA

tatzea (24-25), baina etxekoei konfiantza hartzeko balio izan zuten norgehiagokak. Eta urtea amaitu aurretik iritsi dira ligako lehenengo puntuak, La Salle Legazpikoei 23-24 irabazi zieten eta.

Gizonetzkoen derbia Iturripen

Gipuzkoako ligan diharduten Soraluze BKE, Mugarrri Ingu eta Fagor Professional taldeen artean, bergararrak dira ondoen dabiltzanak, bosgarren postuan daude. Eta, hain zuzen, mahone-roen bisita izango dute pattal

dabiltzan arrasatearrek (zapatua, 15:45), Iturripen. Herreroen mutilek partidu bakarra irabazi dute ligan, eta Gabon aurretik jokatutako azken derbian, oñatiarren kontra, behea jo zuten (36-25). Bada, goialdeko postuen trena galdu nahi ez duten bergararren kontra nahi dute egotera iraultzen hasi.

Azkenik, liga hasieran makal ibili diren txantxikuak hasi dira motorrak berotzen, azkeneko hiru partiduak jarraian irabazi dituzte, eta bihar Zarautzen jokatuko dute (17:30).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Portug.
Dom. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK MAILA NAZIO.

Bergara-Danok Bat
Dom. 17:00. Agorrosin.

O.ERREGIONALA GIZON.

Mondra-Anaitasuna
Zap. 16:30. Mojategi.

Añorga-Aloña Mendi
Zap. 16:30. Rezola.

Bergara-Zarautz
Dom. 16:30. Agorr.

O.ERREG. EMAKUM.

Bergara-Goierri
Zap. 12:00. Agorrosin.

GAZTEAK MUTILAK

Egia-Atm. Bergara
Dom. 12:00. Donost.

GAZTEAK NESKAK

Lana Aloña-Goizper B.
Zap. 17:30. Zubikoa.

SASKIBALOIA

FEB HIRU. MAILA

MU-Pas Pielagos
Dom. 18:30. Iturripen.

EMAKUM. LF2 MAILA

MU-ADBA
Zap. 18:30. Iturripen.

EUSKADIKO JUNIORRAK

Amurrio-MU
Zap. 18:45. Amurrio.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kukuyaga-Mondrate
Zap. 17:30. Etxebarri.

Eskoriatza-Lagun On.
Dom. 18:00. M.Muñoz.

GIPUZKOAKO TXAP.

Aloña Mendi-Gaintxu
Zap. 18:00. Zubikoa..

GIP. BIGARREN MAILA

Miren Tab.-Eskoriatza
Gaur. 22:00. Oiartzun.

ESKUBALOIA

GIP. SENIORRAK GIZO.

Mugarri In.-Sora. BKE
Zap. 15:45. Iturripen.

Aritzatalde.-Fagor P.
Zap. 17:30. Zarautz.

GIP. SENIORRAK EMAK.

M.Bergara-Cons.Aloña
Zap. 13:00. Labegarai.

GAZTEAK MUTILAK

Egia-Atm. Bergara
Dom. 12:00. Donost.

GAZTEAK NESKAK

Lana Aloña-Goizper B.
Zap. 17:30. Zubikoa.

SASKIBALOIA

FEB HIRU. MAILA

MU-Pas Pielagos
Dom. 18:30. Iturripen.

EMAKUM. LF2 MAILA

MU-ADBA
Zap. 18:30. Iturripen.

EUSKADIKO JUNIORRAK

Amurrio-MU
Zap. 18:45. Amurrio.

GIP. SENIOR MUTILAK

Bosteko-Biotz Aloña
Zap. 16:00. Donostia.

Bergara-Digitarte
Zap. 16:00. Labegarai.

Bergara-Digitarte
Zap. 16:00. Labegarai.

GIP. SENIOR NESKAK

Goierri-Bergara Goizp.
Zap. 16:00. Urretxu.

MU-Eskoriatza
Dom. 16:00. Eskoriatza.

ERRUGBIA

EUSKADIKO EMAK.

AGT/ERT-Univ.Bilbo
Zap. 12:00. Mojategi.

PILOTA

ANTZUOLA

Zapatuan, 10:30ean hasita bost partidu.

Gipuzkoako txap. eta Udaberri torneokoak.

ARETXABALETA

Zapatuan. 11:00.

Udaberri torneoko partidu bat.

ARRASATE

Domekan. 11:00

Infantilen partidu bat.

FUTBOLA Lehen itzulia ondo amaitu nahi du Aretxabaletak

Lehen itzuliko azken norgehiagoka jokatuko du domekan Aretxabaletak (16:30, Ibarra), eta Calzonen mutilek (26 puntu) ondo amaitu nahi dute urte erdia, nahiz eta kategoriako oilar bat izango duten aurrean, bigarren dagoen Portugalete (34 puntu). Emaizta edozein dela ere, etxekoen orain arteko lana nabarmen ona izan da.



Ibarrondo, Touringen kontra. GOIENA



Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua urtarrilaren 26an izango da, 16:15ean.

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilaren 19a.

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
Goienakide
eta Reala
ikusteko aukera
izango duzue!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia

16 proposamenak, epaimahaiaren ahotik

KORDA ROTA 2024-10-25

Lehenak izan ziren Danbakaren seigarren edizioako oholdza gainera igotzen, horrek dakarren presioarekin. Hala ere, eroso sentitu genituen agertoki gainean. Eszenatokiko energia eta indarra helarazteko gai izan ziren eta euren arteko konplizitatea nabarmentzeko da; nabaritzen da euren arteko harremana estua dela. Eskandinaviako punk rock doinuen zaleak izanik, eskarmentua erakutsi zuten genero horretan, melodia landuekin eta gitarra solo gogoangarriekin. Danbaka hasteko modu ezin hobea izan zen.



LOW COST DELUXE 2024-11-15

Proposamen eta emanaldi interesgarria oparitu zigun laukote bergararrak. Urduritasun puntuak tempoarekin eta afinazioarekin gorabeheratxo batzuk izatea eragin zien emanaldiaren hasieran, baina handik aurrera gorantz besterik ez zuten egin zuzenekoan zehar, bai jarrera aldetik, baita abestien exekuzio aldetik ere. Kontuan izanda lau taldeetatik lehena izatea ze zaila den, gaua irekitzearen ardura izatea ez delako batere erraza, Seminarixoa ondo berotu zuten ondoren zetozen hiru taldeendako. Gozatzen ikusi genituen.



KTARSIA 2024-10-25

Ahots joko ederrak eta melodia finak eskaini zituen Bergarako laukoteak. Konpromiso politikoz eta emozioz beteriko hitzez osatutako abestiak oinarri hartuta, ezinbestekoa den jarrerarekin taularatu ziren. Gazteak izan arren, agerikoa da eskarmentua badutela oholdzaren gainean; edo, behintzat, eroso sentitu genituen Seminarixoko agertokian euren proposamena defendatzen. Bigarren aldia zen Danbakan parte hartzen zutena eta 2022tik hona igarri zitzaizen bilakaera. Euren proiektua gorpuzten doa.



ETEN 2024-11-15

Duela bi urte igo zen lehen aldiz oholdza gainera Eten taldea. Danbakarako prestatu zuten ordu erdiko emanaldian esperientzia falta sumatu genuen arren, eskaintako proposamena bereziki interesgarria iruditu zitzaigun. Melodia itsaskorrek egiten dakitela erakutsi ziguten, hitz landuak iruditu zitzaizkigun eta horren beharrezkoa den talde formatu berria gorpuztu zuten. Ahotsak fintzea eta haien arteko lanketa garatzen saiatzea gomendatuko genieke, ahal duten heinean, etorkizun luzea eta zabalba opa diegu eta.



SOTOALDE 2024-10-25

Azken urteetan trapak eta, oro har, musika urbanoak sortutako uzta musikalaren isla izan zen Bergarako taldearen emanaldia. Etxean jokatzeko zutela nabaritu zitzaizen hasieratik, eta, lehen gaueko hirugarren taldea izanik publikoa bereziki mugitu zutela esan daiteke. Gozatzen ikusi genituen, emanaldiaren denbora muga ere apur bat gainditzeraino. Kontzertuan zehar une lauk izan baziren ere, gaur egungo musika panoraman lekutxo bat egitea lortu dezakete lanean sendo jarraitzen badute. Ziur laster parranda giroan entzungo ditugula.



K-PO 2024-11-25

Musika urbanoaren fenomenoaren isla ere bada Danbaka, eta K-POren proposamena da horren adibide garbia. Rap doinuarekin abiatuta, azken urteotan erregistro, melodia eta oinarri berriak arakatuz eboluzionatu egin duen musikaria da bergararra, eta haren jarraitzaileek estimatzen duten estilo propio eta pertsonala sortu. Bakarka izan edo kolaboratzaileen laguntzarekin, eroso ikusi genuen taula gainean. Horrek guztiak, haren jarrerarekin eta gaztetasunarekin batera, iradokitzen du etorkizun oparoa izango duela.



MALKO 2024-10-25

Indartsu igo ziren eszenatokira. Nabari zitzaizen zuzenekoak ematen zirela, eta ondo baino hobeto defendatu zuten egiten dakitena 30 minutuan. Euren arteko konplizitatea igarri genuen eta kontzertuko dinamikekin nola jokatu ere badakite. Maddi abeslariak berez indartsu eta seguru jotzen duen taldea beste maila batera eramaten du, bai abesten, baita eszenatokian transmititzen duenarekin ere. Ez da kasualitatea talde hori dagoen lekuan egotea; hurrengo hilabete eta urteetan zeresan handia emango dute.



REBEL NOISE 2024-11-25

Bigarren gaua ixteko ardura izan zuen Arrasateko, Oñatiko eta Aramaioko kideak dituen taldea. Gogoz eta indarrez jo zuten eta entzuleek eurekin batera gozatu zuten. Partaide bakoitzak ondo daki zenu den bere tokia talde barruan, eta argi erakutsi ziguten taldearen sendotasuna. Boskotearen jarrera bat dator ematen duten mezuarekin eta egiten duten punk-oi! eta punk-rock doinuekin. Presentzia eta segurtasuna oholdza gainean; eta, haien testuinguru ohikoena izan gabe ere, entzuleak kutsatzea lortu zuten.



Sara Alonsok, Ainhoa Vitoriak, Amaia Arriaranek, Iñigo Ugartek eta Julen Narbaizak osatzen dute Danbakako epaimahaia, eta Bergarako Seminarixotik pasatu diren 16 proposamenak baloratu dituzte. Diotenez, "askotarikoa bezain goi-mailakoa" izan da seigarren edizioa

DEL VAL 2024-11-29

Nortasun handiko taldea dela erakutsi zuen Jon Garcia Del Val arrasatearra buru duen proposamenak. Gitarra delikatuak eta baxu efektu sendoak, sintetizadoreekin batera, musika-giro interesgarria sortu zuten hirugarren gaua irekitzeko. Estilo handiz eta dotoretasunez beteriko proposamenarekin etorri ziren; eskarmentu handiko eta ibilbide luzeko musikariek osatutako proposamena zela igarri zen hasieratik. Teknikoki apartak dira eta presentzia eta segurtasuna transmititu ziguten Seminarixoko agertokian. Pop doinu zainduak.



ONDARE 2024-12-13

Proposamen ausarta da Ondare. Jende askorik ezagutzen ez dituen erreferenteak dituzte eta atentzia deitzen duen proiektua da. Abesti mota horiek konposatzen direnetik taldera eraman, landu eta exekutatzen diren arte izugarritzko lana dagoela nabari da, erritmo aldaketa konplexuak baitituzte eta melodia zein abestien norabideak ez baitira aurreikusi daitezkeen horietakoak. Taldeari jardutea falta zaio, musika mota hori jotzeko asko behar baita, baina talde gaztea da eta joango dira piezak bateratzen.



KARENA 2024-11-29

Sentsibiltate handiko proposamena eraman zuen Seminarixora Antzuolako eta Hernaniko musikariek osatutako boskoteak. Estilo eta soinu intimoa oinarri eta saxofoi ukituak osagarri, lasaitasunera eramaten duten doinuekin osatu zuten emanaldia. Irati izeneko bi abeslariaren ahotsak protagonismo berezia izan zuten, eskutik helduta zihoazen ahots melodia gozoekin. Nabaritu genien oholta gainean badutela eskarmentua, eta emanaldi ederra egin zuten, han batutako jendearen gozamenerako.



MAIDER MIMI 2024-12-13

Mezu indartsuz jositako emanaldia egin zuen Maiderrek. Osasun mentala, jazarpena, sexu erasoak, emozioen adierazpenak, itxura fisikoa... halako gaien inguruan abestu eta kontatu zigun; bihotzetik, haserretik, beldurretik, tristuratik... 30 minutuan gure arreta bereganatu zuen guztiz. Maiderren proiektuak, agian, ez dauka Seminarixotik pasatu diren beste talde batzuen maila musikalik, baina egiten duenaz gozatzen du, badauka zer esan eta haren mezuek gero eta jende gehiagorengana iritsi beharko lukete.



HENKO 2024-11-29

Hiru proiektuekin hiru edizio ezberdinetan hartu du parte Unai Urkiak Danbakan; azken edizio honetan, Henko taldearekin, abeslari aritu zen. Askotariko ahots erregistroak dituela erakutsi zigun Urkiak; mikrofonoarekin bakarrik erosi ibili zen, eta hori ez da erraza izaten zuzenean instrumentu bat izatera ohitua dagoenarentzat. Urkia gidari konposizioan zein zuzenekoan, kontzertu indartsua eskaini zuen Henkok. Metal eta metal-core doinuen artean mugitu ziren; igarri zen musikariek eskarmentu handia dutela estilo horretan.



721-GOGOR GABILTZA 2024-12-13

Urtebeteko ibilbidea du taldeak, baina eskarmentua duten lagunak batu direla antzeman dugu proiektu horretan. Esperimentaziorako beldurrik ez dutela erakutsi zuten, eta ausardia hori eskertzekoa izan da guretzat. Gustuko dituzten musika generoak uztartu dituzte: ska, rocka, punka, trapa... eta argi geratu da nahasketa guztiak posible direla ondo lantzen badira. Nabarmentzekoa izan zen publikoaren eta bandaren artean zuzenekoan sortu zen konplizitatea. Energia berezia sentitu genuen.



TXERRIKUMEAK 2024-11-29

Oso ondo orekatuta egon ziren elementu guztiak Aretxabaletako taldearen emanaldi osoan. Jarrera, exekuzio ona eta erreperitorio zaindua. Agertokian hartu zituzten lekuei dagokienez, *frontman*-aren figura ohikoa ez den lekuan nabaritu genuen, baina, hala ere, horrek ez zuen eragin negatiborik izan. Bestalde, begi bistakoa da urte asko daramatzatela elkarrekin jotzen; euren arteko konplizitatea da horren adierazle garbia. Emanaldi egonkor eta indartsua egin zuten. Ibilbide polita dute oraindik ere aretxabaletarrek.



BANANA SHAKE 2024-12-13

Rock-oinarririk abiatuta, haize-sekzio bat gehitu dute, eta, horri esker, hasierako proposamena zabalagoa izatea lortu zuten, hainbat estilo uztartuta. Horren emaitza musika alai eta kutsakorra da, ezin hobea zuzenean jotzeko, eta bertan, garrantzitsua da publikoa gainean izatea, potentzial guztia garatzeko. Musikalki oso landua den proposamena da arrasatearra, eta erreperitorioa askotariko kantuekin osatzen dute. Egitarau horren barruan, hain zuzen, abesti propioak nahiz gustukoak dituzten taldeen bertsioak sartu zituzten.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasateko Garagartza auzoa. Arrasateko Garagartza auzoan etxea saltzen da. Ebeak sukalde-jangela bat, 4 komun, 4 logela, 2 balkoi eta terraza bat ditu. Txokoa, garajea eta sotoa ere baditu. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 627 43 92 98

Oñatiko erdigunean. Oñatiko erdigunean dagoen duplex etxebizitza bat saltzen da. Garajea aukeran. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 660 15 66 64

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Hiru logela duen etxea errentan hartuko genuke. 4 pertsona gara eta lan-kontratu dugu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 97 95 41

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasaten taberna errentan eman edo saldu. Arrasateko Munar auzoan alokatzeko edo saltzeko da taberna. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 677 67 51 82.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Banatzaillea Arrasaten. Goienak banatzaillea behar du Arrasaten Goiena eta Puntua aldiak banatzeko. Interesatuok deitu edo idatzi: 688 69 00 07 edo harpidetza@goiena.eus

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. 695 73 87 95

Bergara. Bergarako neska gaztea goizetan haurrak zaintzeko edo ikastolara eramateko prest nago. Begirale titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 48 83

Debagoiena. Arratsaldetan pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 642 37 01 92

Debagoiena. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara bitartean, lan egingo nuke. Berehalako prestutasuna daukan emakumea naiz. Lan desberdinetara egokitzen naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 747 49 22 10

Debagoiena. Banatzaile lanak egiteko, garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 642 36 70 42

Debagoiena. Emakumea, orduka, garbiketa lanak egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Esperientzia duen pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, baita ospitalean txandaka ere. 643 50 58 27

BANATZAILLEA ARRASATEN

Goienak banatzaillea behar du Arrasaten Goiena eta Puntua aldiak banatzeko.

Interesatuok deitu edo idatzi:
688 69 00 07
harpidetza@goiena.eus

Debagoiena. Garbiketarako lanak egiten edo pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 94 62 82

Debagoiena. Etxeak garbitzeko edo sukaldetan egiteko prest dagoen emakumea. 666 07 42 98

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pisuko zerbitzari gisa, garbiketa-lanak egiten edo pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Ez dut pixoihalik aldatzen. 688 71 08 09.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 94 62 82

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, bai ospitalean txandaka ere. Pertsona nagusiak zaindu edo paseatzera laguntzeko prest. Soziosanitario titulua eta esperientzia ditut. 643 50 56 62

Debagoiena. Garbiketarako lanak egin edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest dagoen emakumea. Erizaintzako laguntzaile ikasketak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 673 64 41 99

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. Astelehenetik ostiralera lan egingo prest. 662 43 08 54

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo eta garbiketa lanak egingo nitzuke. Bestelako lanak egiteko prestutasuna. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. 643 47 39 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu zein garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 642 10 52 18

Debagoiena. Pertsona zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut. 604 37 79 34

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasaten klase partikularak. Arrasaten, etxean bertan, Batxilergo lehenengo mailako ikasle bati klaseak emango dion pertsona bat behar dugu, batez ere ingeles eta matematika klaseak. Deitu telefono zenbaki honetara: 629 95 59 51

Bergara. Batxilergo zientifikoa egiten ari den ikasle bati matematikako klase partikularak emateko interesa duen norbaiten bila gabiz. Deitu 678 32 90 62 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

808. BESTELAKOAK

Arrasateko Legazpi-kobrea elkarbanatu. Legazpin lan egiten dut bi errelebotan (goizez eta arratsaldean). Ez daukat kotxerik, baina elkarbanatzea gustatuko litzaidake gastuak erdibituz. Kontakturako telefonoa: 602 39 67 38

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



'SASHA, TXERNOBYLETIK BERGARARA'

Chernobil elkartearen bidez Gabonak Debagoiengan pasatzera etorri zen ukrainar gaztea ezagutzen.

'Hemen Debagoiena' Gaur, 19:30 eta 21:30



MONDRA-ANAITASUNA PARTIDUAREN LABURPENA

Ohorezko Erregional Mailako partidu horretaz gain, eskubaloia eta saskibaloia ere landuko dituzte.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00



HERBEHEREETARA BISITA

Herbehereetan bizi den David Vargas arrasatearrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

'Mundutik' Martitzena, 19:30 eta 21:30



ROSA ERRAZKINI ELKARRIZKETA

Laboratorium museoko zuzendari Rosa Errazkini egingo dio elkarrizketa Goiatz Aranak.

'Berbagai' Eguaztena, 20:00 eta 22:00



'DANBAKAST' PODCASTA

Seigarren Danbakaren finalaren aurretik, azken podcasta gidatuko du Jokin Bereziartuak.

'Danbakast' Eguena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

Korosti Inmobiliaria

Bergara:
Herrilagunak,
52m², erdialdean,
2 logela, igogailua,
trastelekua.
195.000€



Bergara: Goenkale,
100m², familiabakarra,
3 solairu, 3 logela,
egongela tximinia.
280.000€

Bergara:
Belanbidea,
53m², 2
logela, terraza
eta igogailua.
210.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokokorosti.com

Informazio
gehiago:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Amalur Karpio Azpitarte
Urtarrilaren 16an, 10 urte. Zorion potolo bat gure neskatilari. Ondo pasa urtebetetzean. Zure amama Resu, osaba Gorka, aitita Txomin eta Ion txakurtxo. Aupa Bulkano!



OÑATI
Elene Gorosabel Urrutia
Urtarrilaren 15an, 7 urte. Zorionak, Elene! Patxo haundi bat familia danan partetik eta ondo-ondo pasau zure eguna. Jarraitu holako alaia eta jatorra izaten!



BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, 12 urte. Zorionak, June! Askok maite zaitugu, txapeldun! Muxu erraldoi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Hegoa Zugasti Larrañaga
Urtarrilaren 13an, 2 urte. Zorionak, poxpolin! Gozatu zure urtebetetze eguna familiaren berotasunean. Muxu potolo bat etxekoan partetik.



BERGARA
Ibon Lete Cobo
Urtarrilaren 12an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Segi holako jator! Muxu potolo bat danon partetik!



ARETXABALETA
Iratxe Lombide Márquez
Urtarrilaren 10an, 6 urte. Zorionak etxeko guztion partetik!



DEBAGOIENA
Iker
Urtarrilaren 10an, 12 urte. Zorionak! Oso ondo ospatu zure eguna. Muxuak eta besarkadak familiaren partetik.



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
Urtarrilaren 8an, 12 urte. Zorionak, bihotza! Gozatu zure eguna ta topera disfrutau 12 urte horreik! Patxo asko etxeko guztion partetik!



BERGARA
Naia Badiola Unzurrunzaga
Urtarrilaren 7an, 11 urte. Etxekoan partetik, muxu handi bat!



OÑATI
Ibai Arregui Ladino
Urtarrilaren 7an, 4 urte. Zorionak, Ibai, familia osoaren partetik. Oso ondo pasatu zure eguna eta ederto ospatu.



OÑATI
Ibai Zumalde Olariaga
Urtarrilaren 5an, 7 urte. Zorionak, polittiro! Ze azkar pasau dian 7 urte. Ondo Ondo ospatu zure eguna. Patxo erraldoi bat.



ARETXABALETA
Lia Anduaga Cortes
Urtarrilaren 5an, 6 urte. Zorionak, printzesa! 6 urte! Ze neska haundi ein zaren. Ondo ondo pasau eguna prexioxa. Patxo haundi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
Urtarrilaren 5an, 13 urte. Zorionak, Gara! 13 urtetzar! Esperotako eguna heldu da eta guazten ospatzera! Zorionekuak gu! Mmmmuak



OÑATI
Maddi Dorado Hernández
Urtarrilaren 1an, 9 urte. Zorionak, Maddi, politta! Egun zoriontsua pasa familia eta lagunen artean. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu. Muxu erraldoi bat.



OÑATI
Irati Roldan San Miguel
Abenduaren 31n, 6 urte. Zorionak, Irati! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Pilla bat maite zaitugu. Muxu handi bat etxeko denon partetik.



BERGARA
Marisa Escobar Miranda
Abenduaren 31n, Urtebetetzea. Zorionak, amama! Egun politxa pasatzia espero dou, familia guztiakin batera. Askok maite zaitugu. Besarkada bat Kenar, Alaine, Izei eta jaiotzearen dagoen Eukenen partetik.



ESKORIATZA
Itziar Garaiurrebaso
Abenduaren 29an, 66 urte. Zorionak! Ondo ondo pasa zure eguna. Besarkada bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Iratxe Osa Zabala
Abenduaren 29an, 12 urte. Gure etxeko altxor haundixa! 12 urte ein ditzuzu eta zorion bero bat bidaltzia nahi izan dogu aitaxo- amatxo, Oier, osaba eta aiton-amonen partetik. Egun politx bat pasau!



ARETXABALETA
Luka Oliden Arejolaleiba
Abenduaren 24an, 4 urte. Zorionak! Horrela segi, txapeldun! Patxo haundi bat Atxabaltatik.



BERGARA
Manex Osa Arana
Urtarrilaren 1an, 12 urte. Zorion-ononak, Manex politx hori! Familia eta lagun guztien partetik, beste on ona pasa pasa deizuela! Patxo potolo bat!

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta Goiena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

BERRI-ZAKUA



Reala nagusi
Realak, Osasunak, Bergarak eta Vasconiak jokatu zuten Alfredo Najera memoriale. Finalean Osasuna menderatu zuen Realak.



Txapeldunak
Brustuiren Lagunak taldeak irabazi zuen Oñatiko areto futbol txapelketa.



Lauko eskubaloia txapelketa

Arrasate Eskubaloia Taldeak antolatuta, Gabonetako lauko txapelketa jokatu zuten urtarrilaren 2an, Iturripen, 2012 eta 2014. urteen artean jaiotako neska-mutikoei. Hala, oporretako etenarekin, eskubaloia gosea ase ahal izan zuten gazteek.



Saskia, Soraluzera

Bergarako Athleticen lagunartekoak Gabonetan egiten duen saskia Soraluzera joan zen. Torrekua tabernan saldu zuen 2.627 zenbakia, eta Begoñak eraman zuen etxera, pozarren.



Pilota txapelketa Elgetan

Abenduaren 31n jokatu ziren txapelketako azken bi norgehiagokak; tartean, finala. Oraingoan, Haritz Gallastegik eta Ibon Unzetabarrenetxeak jantzi zuten txapela. 22-17 nagusitu ziren, Beñat Arabaolazaren eta Mikel Elkororen kontrako finalean.



Aizkorrin
Abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean Aizkorriara joan zirenek txokolate beroa dastatu zuten. 200 litro esne eta 40 kilo txokolate baino gehiago erabili zituzten.



Lehenengo campusa

Eskoriatza Kirol Elkartek Gabonetako lehen areto-futbol campusa egin zuen hilaren 2tik 4ra. Hamabost haurrek parte hartu zuten.



90 urtetik gorakoei omenaldia

Abaroak eta Arrasateko Udalak 90 urtetik gorako arrasatearrak omendu zituen abenduaren 29an: "Bizi oso bati aitortza". Etxaluzen egindako ekitaldian, omenduekin batera haien senideak eta bi erakundeetako ordezkariek elkartu ziren.



Finaleko taldeak

Oñatiko Gabonetako saskibaloitxapelketa Albok taldeak irabazi zuen, finalean Hangover taldea menderatuta. Banakako sariak ere egon ziren: Hodei Loiti izan zen onena zelai erdiko jaurtiketan eta Euken Nurlan, hirukoetan.



Lehen pausok saskibaloian

Ointxe!-ren Gabonetako saskibaloitxapelketa campusean ederto ibili ziren neska-mutikoak. Guztira, 43. Hemezortzi lehen txandan eta 25 bigarrean.



Gipuzkoako selekzioa txapeldun

Debagoieneko konbinatua eta Real mendean hartuta (4-0 eta 1-0), Arizmendi Kirol Elkartek XIX. aldiz antolatutako Gabonetako torneo irabazi zuen.



Itxumendira ibilaldia

Bergarako Pol Poleko beteranoen taldeko kideek mendian hasi zuten 2025a. Hain justu ere, Itxumendira joan ziren. Ostean, Gorrako elkartearen hamaiketako egin zuten.



Eskubaloitxapelketa Bergaran

Beste behin, argi geratu da eskubaloitxapelketa sendoa duela Bergaran. Hilaren 29an hainbat lagun elkartu ziren;

haietako asko, jokalaritxak. Egungo jokalariekin nahastu eta lau talde egin zituzten, mutilen bi eta nesken bi, eta partiduak jokatu zituzten. Ez zuten aukera galdu garai

bateko oroitxapelketa eta lorpenak gogorarazteko. Eguna amaitzeko, talde-argazkia egin zuten. Eskubaloitxapelketa ereindakoak sendo dirau Bergaran.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora




Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTILO DAK



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanetanda.org
Bidezko merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus **Whatsapp:** GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. 'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



Indarrean dagoen LOPD 15/1989 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu billete honen helburu bakarra indarrean dagoen sustapena gestioa da. Eskubidea izango duzu datuak sartzeke, haiek zuzentzeko edo erretiratzeko, helbide honetara idatziz: goienakide@goiena.eus

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntu*a aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 14

 943 25 05 05  goienakide@goiena.eus  'Goiena app'-a / zozketa atalean.

  **GOIENAKIDE Jatetxea**
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 67€, eta abantailak DOAN aurten gozatzeko arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA!



OROIGARRIA

Iñigo Laspiur Oteiza



2024ko abenduaren 24an hil zen.

*Gure arteko haria ez da inoiz etengo.
Guretzako berezia zara.*

Besarkada handi bat familiari.

Zure lagunak.
Arrasaten, 2025eko urtarrilaren 10ean.

HILDAKOAK

- **Nikolas Gardoki Mazmela.**
Aramaion, abenduaren 24an. 86 urte.
- **Manuel Lopez Rodriguez.**
Aretxabaletan, abenduaren 22an. 79 urte.
- **Antonio Osa Larrañaga.**
Aretxabaletan, abenduaren 26an. 89 urte.
- **Laureana Bolinaga Uriarte.**
Aretxabaletan, abenduaren 31n. 104 urte.
- **Jose Alberto Zabarte Arregi.**
Arrasaten, abenduaren 20an. 82 urte.
- **Amaia Otalora Etxaurre.**
Arrasaten, abenduaren 20an. 90 urte.
- **Julian Domínguez Gonzalez.**
Arrasaten, abenduaren 21an. 81 urte.
- **Eduardo Bujanda Gonzalez.**
Arrasaten, abenduaren 24an. 63 urte.
- **Milagros Zabalo Lekerikaonandia.**
Arrasaten, abenduaren 24an. 94 urte.
- **Ainara Mondragon Irastorza.**
Arrasaten, abenduaren 26an. 47 urte.
- **Xabier Diaz de Zerio Sanz de Galdeano.**
Bergaran, abenduaren 31n. 76 urte.
- **Mari Nieves Zubia Pagalday.**
Eskoriatzan, abenduaren 27an. 65 urte.
- **Angela Fernandez Merchan.**
Eskoriatzan, abenduaren 31n. 83 urte.
- **Maika Garitano Lamarain.**
Oñatin, abenduaren 26an. 69 urte.
- **Felix Larrea Kortabarria.**
Antzuolan, urtarrilaren 3an. 90 urte.
- **Rufino Heriz Beitia.**
Arrasaten, urtarrilaren 3an. 96 urte.
- **Fernando Uranga Uranga "Kirru".**
Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 94 urte.
- **Luis Elorza Loiti.**
Arrasaten, urtarrilaren 4an. 84 urte.
- **M^a Luisa Barandiaran Uribarren.**
Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 90 urte.
- **Tere Pagalday Leibar.**
Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 94 urte.
- **Paco Bassecourt Hernandez.**
Arrasaten, urtarrilaren 7an. 86 urte.
- **Espe Berecibar Altuna.**
Arrasaten, urtarrilaren 7an. 94 urte.
- **Eugenio Gonzalez Rodriguez.**
Bergaran, urtarrilaren 7an. 93 urte.
- **Miren Izaskun Bikuña Zubia.**
Oñatin, urtarrilaren 1ean. 58 urte.

ESKER ONA

Lauri Bolinaga Uriarte
(Fidel Antxia Ezpeletaren alarguna)



2024ko abenduaren 31n hil zen, 104 urte zituela.

Izotzaren zuriak estaltzen zituen belardiak, eguzkiaren printzak edertzen Urtikoako baserri inguruak. Gabon Zahar egun distiratsuan agurtu gaituzu hega askean. Zure adorea eta maitasuna betiko gure bihotzetan. Etxekoak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2025eko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Maika Garitano Lamarain



2024ko abenduaren 26an hil zen, 69 urte zituela.

Azkarregi fan zara gure artetik baina zure inddarra eta irribarria betirako geratuko dia gurekin.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Oñatin, 2025eko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Miren Izaskun Bikuña Zubia



2025eko urtarrilaren 1ean hil zen, 58 urte zituela.

Borroka amaitu da, baina ez duzu galdu. Erraza izan da zu maitatzea, ezinezkoa zu ahaztea. Gero arte, Izas.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean Oñatin, 2025eko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Juan Antonio Osa Larrañaga




2024ko abenduaren 26an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2025eko urtarrilaren 10ean.

ESKER ONA

Nieves Zubia Pagalday



2024ko abenduaren 27an hil zen, 65 urte zituela.

Anai-arrebak: Javier (†) eta Txaro Arenaza, Begoña eta Alberto Oyarzabal eta Asun eta Rafa Oyarzabal. Lobak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2025eko urtarrilaren 10ean.

URTEURRENA

Jose Mari Ezkurra Larrañaga



2024ko urtarrilaren 3an hil zen, 79 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2025eko urtarrilaren 10ean

URTEURRENA

Juan Zabaleta Barrutia
'Galarra'




2024ko urtarrilaren 5ean hil zen, Donostian, 80 urte zituela.

Aitaita, gurekin ez egon arren, gurekin egongo zera beti!

Bergaran, 2025eko urtarrilaren 10ean.

URTEURRENA

Julian Leceta Unzueta



2023ko abenduaren 31n hil zen, 87 urte zituela.

Olamendiko oroitzapenak gogoratu, Zuegandik jasotako guztia zainduz, Jarraituko dugu elkar goxatuz.

Olamendiko sendia. Antzuolan, 2025eko urtarrilaren 10ean.

URTEURRENA

Jesusa Olasolo Eizaguirre



2024ko urtarrilaren 8an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 12an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2025eko urtarrilaren 10ean.



Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guzciei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10

ARAMAIO Bertso saioa
Irekia.
Kultura etxean, 20:00etan.

BERGARA Brigade Locoren 'Trilogia' bideokliparen aurkezpena
Bide baten esanahia diskoko hiru bideoklip. Debalde, aretoaren edukiera bete arte.
Seminarixoan, 20:00etan.

ARETXABALETA 'Katana' bakarriketa saioa
Gaur egungo musika, *sold out* fenomeno, matxismoa, lodifobia eta beste hainbat gai izango ditu hizpide Ana Goitiak, Sarrerak, sei euro.
Arkupun, 20:00etan.

ANTZUOLA Umorezko bakarriketak
Esti Curiel, Manex Astigarraga eta Xabin Fernandez egongo dira oholtzan. Debalde.
Gaztetxean, 20:30ean.

ZAPATUA 11

ARRASATE Muralgintza
Azken saioa egingo dute gaztetxoek.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Euskaldungak' antzezlan
Aroa Blanco eta Maite Lopez lehenengo aldiz igoko dira eszenatokira elkarrekin, euskal kulturaren eta euskararen mundu liluragarrian izandako abenturak eta harriabarrak kontatzeko. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

BERGARA Amustei taldea
Herriarren aurrean joko dute bergararrek.
San Juan ermitan, 20:00etan.

OÑATI Delirium Tremens eta Keia taldeak
Sarrerak: hamabi euro aurrez eta hamabost euro leihatilan.
Gaztelekuan, 22:00etan.

DOMEKA 12

ELGETA Intxortara Igoera 2025
Berbalditxo egin eta argazkia aterako dute tontorrean.
Intxortako puntan, 11:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua
Urteko lehen emanaldia egingo dute, Jose Migel Laskurainek zuzenduta.
Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

ESKORIATZA Pelikula, umeendako
Sarrera, borondatea.
Zaldibar aretoan, 17:00etan.

ESKORIATZA Mahai-jolasak
Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'
0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE 'Zombies' jolasa auzoan zehar
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Pelikula
Sarrera: borondatea.
Zaldibar aretoan, 19:00etan.

ASTELEHENA 13

ARRASATE 'Amerikako Estatu Batuetako sistema-politikoak eta 2024ko hauteskundeak' hitzaldia
Politika eta Administrazio Zientzia Saileko EHuko irakasle Asier Blasek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten.
Herri horietako plaza nagusietan, 12:00etan.

MARTITZENA 14

ARRASATE Idazketa tailerra
Sakontze maila, Miren Amurizarekin.
Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.

ELGETA Kantsatzeke: bazkidetza eta federatu txartela
Tramitazioak egiteko laguntza emango du mendi taldeak.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Polvo serán' filma
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 15

OÑATI Unibertsitatea berba
Ekonomia eta enpresak etengabeko eraldaketan murgilduta dauden honetan, zein da Unibertsitatearen papera? hitzaldia egingo du Lander Belokik, Esperientziaren Gelak gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 10:00etan.

BERGARA Eguaztenak Oxirondon
Baserritarren azoka eta sukaldaritzazuzenean, Elikaeneak gidatuta.
Oxirondo azokan, 17:30ean.

ARETXABALETA Ipuin kontaketa saioa
4 eta 8 urte arteko neska-mutikoendako, Ixabel Agirresaroberen eskutik. Gonbidapenarekin.
Liburutegiko Txiki Txokoan, 17:30ean.

ARRASATE Komiki kluba
Yo no soy Mikel Laboa komikiaren gaineko saioa, Azucena Mongek gidatuta.
Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.

OÑATI Alfabetatze digitalaren formakuntza saioak gurasoendako
DBH-1 eta DBH-2 mailetako ikasleen gurasoendako, Oñatiko Udalak eta Agipad elkarteak antolatuta.
Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.



'EUSKALDUNGAK'

BERGARA 'Euskaldungak' antzezlan
Aroa Blanco eta Maite Lopez lehenengo aldiz igoko dira eszenatokira elkarrekin, euskal kulturaren eta euskararen mundu liluragarriak bizi izandako abenturak kontatzeko. Sarrerak, zortzi euro.
Bihar, zapatua, Seminarixoan, 20:00etan.

ARRASATE 'Familiaren lekua; nork zaintzen du zaintzailea?' hitzaldia
Idoia Madarieta psikologoak egingo du berba, osasun mentalari buruz hausnartzeko hitzaldi zikloan.
Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA Koko-batzea: batzarra
Otsailaren 22an egitekoa den koko-batzea antolatuzeko lehenengo batzar irekia.
Ozkarbi elkartearen, 19:00etan.

BERGARA 'Quand vient l'automne' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsoan eta azpittuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00.

EGUENA 16

ARRASATE Sasoibide
Bi aukera: Aretxabaletara autobusez joan eta itzulera oinez egin; edo Bainuetxeko ibilaldia.
Biteri plazan, 10:00etan.

ANTZUOLA Irakurle taldea
Ekaitz Goienetxearen *Zaldi mamarroa* liburuaren gaineko saioa, Alaine Agirrek gidatuta.
Olaran etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Literatura solasaldia
Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

OÑATI 'Anora' filma
Sean Bakerrek pelikula zineklubean, jatorrizko bertsoan eta azpittuluekin. Sarrerak, 5,5 euro.
Zinema-aretoan, 19:30ean.

ARRASATE Audience taldea
Gernikan 2000ko hamarkadan sortutako boskoteak batez ere rock eta post-rock doinuekin girotuko du urteko lehen Kooltur Ostegunak. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 17

OÑATI Odola emateko eguna
2025eko lehen odol-ateratzea. Aurrez eman behar da izena: 943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:30ean.

ESKORIATZA Sukaldaritz tailerra
Gaztetxoendako ekimena. Kozinatutakoa jan egingo dute ostean.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ESKORIATZA Bertso afaria
Maider Arregi eta Andoni Rekondo bertsolarietara elkartuko dira auzotarrak, mahaiaren bueltan.
Apotzagako auzo etxean, 21:00etan.

BERGARA Danbakako finala
Del Val, Rebel Noise eta Malko taldeak igoko dira oholtzara, sari potoloaren bila.
Seminarixoan, 21:30ean.



DEJABU

ARRASATE 'Itzulera' antzezlan

Konpainia bateko hiru kideek Mexikora egindako bidaia kontatzen du Dejabu taldearen lanak, Ainara Gurrutxaga, Miren Alcalá eta Urko Redondo aktoreekin. Zuzeneko bideoak proiektatuko dituzte. Sarrerak, hamar euro. *Hilaren 19an, Amaia antzokian, 19:30ean.*

OÑATI Beer-pong jolasa

Tabernako barra 20:00etatik aurrera egongo da zabalik. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZAPATUA 18**BERGARA Transgenikoen tailerra**

EHUko ikerlarien gidaritzapean egingo dute transgenikoen tailerra. Prezioa: bost euro. *Laboratoriumen, 11:30ean.*

ARETXABALETA Kanuto Deunaren 25. urteurrena

11:30ean, bola-txapelketa; 15:00etan, bazkaria, Taberna Berri jatetxean; 19:00etan, Kanutoren omenezko kalejira, Orkestra Elektrotuna taldearekin; eta ostean, Oihu eta Akulu taldeak. *Aretxabaletan.*

ESKORIATZA 'Bendita locura' antzezlan

Ausartak taldeko sei kideak oholtzara igoko dira sei emakume gorpuztera. Beraien bizipenak umoretik kontatzera. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

DOMEKA 19**BERGARA Musika Bandaren kontzertua**

Urteko lehen emanaldia, Enrike Txurrukak zuzenduta. *San Pedro elizan, 12:30ean.*

ESKORIATZA 'Denok plazara!' ikuskizuna

Pontx pailazoaren eskutik. Ikusleak gonbidatuko ditu haren lagun baten dendara, laguntza emateko. Sarrerak, hiru euro. *Zaldibar antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera. *Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

ARRASATE 'Itzulera' antzezlan

Dejabu taldearen lana. Konpainia bateko hiru kideek Mexikora egindako bidaia kontatzen du antzezlanak. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ASTELEHENA 20**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten. *Herri horietan, 12:00etan.*

ARETXABALETA Zeramika ikastaroa: hasiera

Gaur hasiko dituzte umeen (17:30) eta helduen (15:00) ikastaroak. *Arkupe.*

OÑATI Haurren Irakurketa Kluba

Aurrez izena emanda dauden LH4-LH5eko haurrendako, Peru Magdalenak gidatuta. *Liburutegian, 17:00etan.*

MARTITZENA 21**ARRASATE 'Euskal Herria zure begietatik' erakusketa: azken egunak**

Hilaren 25era arte ikus daiteke. Arrasateko Argazki Elkarteak antolatutako lehiaketara aurkeztutako artetik aukeraturako 30 argazki. Horiek erosteko aukera egongo da -35 euro-, eta batutako dirua *Mara CLN1* egitasmoarendako izango da. *Kulturaten, 17:00etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia

Breakfast at Tiffany's liburuaren gainekoa, John Costellok gidatuta. *Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan.*

BERGARA 'Zer ari da gertatzen pentsioekin?' hitzaldia

Duintasuna elkarrekin antolatuta, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Legebiltzarrean aurkeztutako Herri Ekimen Legegilea azalduko du Jexux Soubiesek. *Seminarioan, 18:30ean.*

ARRASATE 'Oh Canada' filma

Martitzenetako emanaldia. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ELGETA Kantsatzeke: urteko batzarra

Bazkideak gonbidatu dituzte urte berrirako plangintza ezagutu dezaten. *Kultura etxean, 20:00etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Un lio de millones
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.

Sonic 3

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIOA**

¿Es el enemigo?
Domeka eta astelehena: 19:30.

Nico: más allá de la aurora boreal
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Vivir el momento**

Egunbakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

Mufasa

Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****Jurado nº 2**

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Vaiana 2

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORID****A real pain**

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 20:45.
Domeka: 12:00, 16:30, 19:30, 20:45.

Astelehena eta martitzena: 16:30, 19:30.

Eguaztena eta eguena: 16:30, 19:15.

Ciento volando

Egubakoitza eta zapatua: 21:30.
Domeka: 12:00, 21:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 16:30.
Eguena: 17:00.

Conclave

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:30.
Martitzena: 16:30.

Desmontando un elefante

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30.

Emilia Pérez

Egubakoitza, zapatua, astelehena eta eguaztena: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.
Martitzena eta eguena: 16:30.

La luz que imaginamos

Egubakoitza, zapatua eta domeka: 21:45.
Astelehena eta martitzena: 19:45, 20:45.
Eguaztena: 19:45, 21:00.
Eguena: 19:30, 19:45.

La mitad de Ana

Egubakoitzetik domeka: 20:15, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 18:15.

Las vidas de Sing Sing

Egubakoitzetik domeka: 19:30, 21:45.
Astelehena: 17:00, 19:45.
Martitzena eta eguena: 17:00.
Eguaztena: 17:00, 21:15.

Mufasa

Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 19:30.
Domeka: 12:00, 16:45, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Nosferatu

Egubakoitzetik domeka: 22:00.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

Parthenope

Egubakoitzetik domeka: 19:15.
Astelehenetik eguenera: 16:30.

Queer

Egubakoitzetik domeka: 16:30, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

Sin

instrucciones
Egubakoitzetik domeka: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Vaiana 2

Egubakoitza eta zapatua: 18:30.
Domeka: 12:00, 18:30.

KRIKITA**Vivir el momento**

Zuz.: John Crowley. **Herr.:** Erresuma Batua (2024).
Aktoreak: Andrew Garfield, Florence Pugh, Adam James.

★★★★★

Ametsak lortzeko borrokan

Antonio Zabala

Donostia Zinemaldiaren Sail Ofizialari bukaera eman zion filma *Vivir el momento* izan zen. Lehiaketatik kanpo aurkeztu zen. Florence Pugh eta Andrew Garfield aktore ezagun eta talentudunek parte hartzen dute. Eta bikotearen lanean datza filmaren lorpen handiena. Melodrama eta komedia dramatikokoarekin jokatzeko duen istorio erromantiko baten aurrean gaude. Istorioa kontatzeko, bikotearen harreman oraindik eta iraganeko eszenak nahasten dira. Eszena batzuek komediara jotzen dute eta beste batzuek kutsu dramatikokoak dituzte. Nola elkar ezagutzen duten, euren arteko sentimenduak nola sendotzen diren, alaba bat dutenean edo gaixotasuna agertzen denean bikotearen bizitzan. Bizitzan ametsak lortzeko azken arte borrokatu behar dela aldarrikatzen da.

Aktoreen arteko kimikak egiten du filma momentu batzuetan gustagarri izatea. Biek argi lagatzen dute ederki mugitzen direla komedian, baita eszena dramatikoa ere. Elkarrekin ondo moldatzen dira antzeztu dituzten pertsonaiak erakargarri egiteko. Dena den, *Vivir el momento* nahiko konbentzionala da. Eszenen tratamenduak, momentu askotan, iragarki gogorazten ditu, eta nahiko artifizial geratzen da azken emaitza. Gainera, gehiegi luzatzen da azkeneko partean. Edozelan ere, arazorik gabe ikusten den filma da.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Konjurua

Egunotan hainbat aldiz erabiltzen dugu *urte berri on* esaera. Oraingoan, baina, ez dakit espero dugun 2025a urte hobea izango den. Gerra hotzak ozenago entzuten dira zerrenda amaigabeen.

Berezia izan zen urte pare bat dela Josep Borrell-ek, orduko Europako diplomazia-buruak, adierazitakoa: "Europa ezin da herbiboroa izan mundu karniboro batean". Eta gehitu zuen Europako gaitasun militarrek areagotu egin behar zirela. Ordutik, notiziak ez dira lasaigarriak. Estatu batzuk derrigorrezko soldadutza berrezartzea aztertzen ari dira. Frantziak arma nuklearren modernizazioaren debateari berriro heldu dio. Norvegiarrek gerra egoeran prest egoteko jarraibideak jaso dituzte.

Azken urteotan NATOKo kide gehienek gastu militarra handitu badute ere, hamar egun dela jakin da Trump-ek gehiago gastatzea "eskatuko" diela. Aste honetan, gainera, aurki Ameriketako Estatu Batuetako presidente izango denak Groenlandia bereganatzeko interesa agertu du... horretarako presio militarra erabili behar badu ere.

Guztira, *urte berri on* formulak balio dezala gauza negatiboak uxatzeko eta positiboak erakartzeko konjuru bezala.

GAZTE GARA GAZTE

"Nire zaletasunak argazkilaritzarekin nahasten ditut"

OIER YANIZ
ARGAZKILARIA

Julen Murua Mesonero OÑATI

Argazkilaritza da Oier Yanizen (Oñati, 2002) zaletasunetako bat. Sukena musika taldearen kontzertuetan izaten da, oholtza gainean gertatzen dena argazkien bidez erakusteko, baina hegazkinei argazkiak ateratzen ere aritzen da, *spotter*.

Zer du berezia hegazkinen argazkilaritzak?

Guretzat hegazkinak kromoak bezalakoak dira. Aplikazio baten bitartez ikusten dugu datozen egunetan hegazkin berezirik egongo den edo ez, eta, hala bada, argazkiak ateratzera joaten gara. Zenbat eta *kromo* bereziagoak izan, orduan eta hobea da guretzat. Badaude mundu osoan oso gutxi dauden hegazkinak, eta noizean behin Euskal Herriko aireportuetara etortzen dira; ederra da horien argazkiak edukitzea.

Oholtza gaina ala aireportua, zer duzu nahiago?

Galdera ona da. Azkenaldian gehiago ari naiz kontzertuen munduan lanean hegazkinekin baino. Ez dakit dagoeneko hegazkinei argazkiak ateratzearena pasatu egin zaidan, baina orain ilusio handiagoa pizten dit kontzertuen munduak. Gai-

nera, Sukena oso gertuko proiektu bat da niretzat, bertako kideak lagunak direlako.

Zure ikasketek badute argazkilaritzarekin loturarik?

Ez; izan ere, Ingeniaritza Informatikoa ikasten ari naiz, eta ez du batere zerikusirik.

Hortaz, nola piztu zitzaizun argazkilaria, eta zehazki *spotter*, izateko grina?

Spotter mundua gustatzen hasi zitzaidan *Sully* pelikula ikusi nuenean. Bertan, hegazkin batek istripu bat izaten du eta Hudson errekan lurreratzen da. Horrek piztu zuen nigan hegazkin munduaren gaineko kuriositatea, eta nire bi zaletasunak uztartzea erabaki nuen.

Afizioz ala ofizioz duzu nahiago argazkilaritza?

Gaur egun, argazkilaritza zaletasuna da niretzat, eta oso gustuko dudana zerbait da, gainera. **Argazki-kamerarik ez duzunean, zer gustatzen zaizu egitea?** Normalean, nire gainontzeko zaletasunak nahasten ditut argazkilaritzarekin. Realzalea naiz, futbolzalea ere bai, eta ibili izan naiz Realaren partiduetan argazkiak ateratzen, zelaian bertan; oso gustuko dudana zerbait da. Esku artean argazki kamerarik



Oier Yaniz argazkilaria oñatiarra. OIER YANIZ

MOTZEAN

Janari gustukoena?

Txuleta.

Mendia ala hondartza?

Mendia.

Parranda ala Netflix?

Parranda egitea.

Patata-tortilla, tipularekin ala barik?

Tipularekin, beti.

Abesti bat?

Berri Txarrak-en *Oreka*.

Bidaiazteko toki bat?

Abu Dhabira joan nahi dut.

ez dudanean eta, esaterako, mendian egon eta paisaia erakargarri bat ikusten dudanean, aitortu beharra daukat sufritu egiten dudala argazkiri ateratzeko aukerarik ez dudalako. Badaukat argazkiak ateratzeko behar hori. **Etorkizun hurbila argazkilaritzari lotuta irudikatzen duzu?**

Momentuz, Ingeniaritza Informatikoa ikasten dihardut, eta, epe motzera begira, horretan jarraitzea da nire helburua. Hala ere, argazkilaritza oso gustuko dut eta ate guztiak irekita ditut.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

URTE BERRI ON!

